

Joseba INTXAUSTI

Luzendak: Joseba Intxausti

HISTORIA sálar: Koldo Larrañaga

IRAULTZAREN HILDOTIK

Uru hau Batazko IKASZK eta
Arantzazu JAKINek elkarrekin
ematen dute argitara. Hego eta ipar
Euskal Herria batera heldu dabil.

© ED. FRANCISCANA ARANTZAZU

HUMERO REGISTRO 4.882

DEPOSITO LEGAL B. 174172

J A K I N

ARANTZAZU

ITANI

IRAKOLAK: PERA Y GORRI 12 - DONOSTIA

JAKIN liburu sorta (3)

Zuzendari: Joseba Intxausti

HISTORIA saila: Koldo Larrainaga

Liburu hau Baionako IKASek eta Arantzazuko JAKINEk elkarrekin ematen dute argitara, hego eta ipar Euskal Herrian batera heda dadin.

© ED. FRANCISCANA ARANZAZU

NUMERO REGISTRO 1.692

DEPOSITO LEGAL S. S. 136/72

IZARRA IRARKOLA - PEÑA Y GOÑI, 13 - DONOSTIA

Aurkibidea

33
36
38
44
45
48
53
59
60
62
67
72
78
80
83
90
98
107
112
119
120
Hitz bi	9
Paradoxa aldi baten kazetari	15
1. Etorkizunaren atarian	19
1.1. II Inperioaldiaren erlijio politika	23
1.2. «Erromako hauzia»	25
1.3. Fedea ala aurrerapena?	27
1.4. Politika antolamenduaren bidegurutzean	30

2.	Ideologia eta programa berriak	33
2.1.	Estadua zenbait ideia	36
2.2.	Zein Errepublikak	38
2.3.	Radikalismoaren programa	41
3.	Gizarte zahar eta gizarte berri	45
3.1.	Antiklerikalismo	48
3.2.	Desgaraiaren negarra: monarkizaleak	53
3.3.	Geroaren erakarmena: errepublikazaleak	59
3.3.1.	Moderatuak	60
3.3.2.	Radikalak	62
4.	«La France catholique»?	67
4.1.	Frantziako gizartearen deskristaugintza	72
4.2.	Antinomia baten zurrumbiloi	78
4.3.	Katolikoak politikan	80
4.3.1.	Gotzainak	83
4.3.2.	Apaizeria xumea	90
4.3.3.	Euskal gizartea eta politika	98
5.	Errepublikagintzaren hauziak	107
5.1.	Gizartearen laikogintza	115
5.2.	Irakaskintza: ikastolatik Unibertsidadera	119
5.2.1.	1879-ko egoeraraino	120
5.2.2.	Ikastetxeak zertarako?	126
5.2.3.	1880-1886 urteetako moderatismoaren eraberrikuntza	129
5.3.	Erligio elkarteak	140
5.3.1.	Kongregazioneak kanpora?	141
5.3.2.	1902 arte	144
5.4.	<i>Ralliement</i> : errepublikaratzea	149
5.4.1.	Laikogintzaren erasopean	149
5.4.2.	Errepublikarako deia	153
5.4.3.	Oihartzun eta erantzunak	160

5.44. Euskal Herrian	164
5.45. Eta Errepublikaratzeaz zer?	167
5.5. Ilunabar ala egunsenti?	169
5.51. Dreyfus hauziaren mendebalean ...	169
5.52. Combes-en Gobernua (1902-1905) ...	174
5.53. Eliza-Estaduen apartaketa	178
5.54. Euskal Herrian ere	186
6. Bibliografia zuzentzailea	193
7. Bildumetatik kanpo	195

beharko diot irakurleari. Egun batez, eta erdi ustekabean, Piarres Lafittek liburugai bat eman zidan eskuetara Uztaritzen. Nik ez nekien nor zen ere ia, hainbeste eta hainbeste horrialde bete zuen idazlea. Ez nekien kasik deus Hiriart-Urruty hartaz. Gero, ikasiaz eta irakurriaz jakin dut zerbait.

Historizale eta euskal literaturzaleek ahantz ez genezakeen luma zuen Jean Hiriart-Urrutyk. Jabetu dira hon-taz, dagoneko, JAKINen harpidedun eta irakurleak; baina, orain, beste balio bat azpimarkatu nahi nuke.

Idazle gutik ekar dezaiguke garaiaren histori testigantza jakingarriagorik. Euskal Herrian, hazpandarraren luma egunean eguneko kezketan blai eginda ari bait da lanean. Testigantza hau historiaren kontraispiluan ikus zedin, gutarterako - Euskal Herriaren hegoalderako - kondairaren testoiingurua eman beharrekoa zen. Hona, ba, ustegabeko zereginetan sartuta idazlea.

Zer eman nahi du, beraz, Iraultzaren hildotik honek? Ez gabiltz hemendarrak ipar Euskal Herriazko jakitatez jantziegi, beharbada jakiteko erosotasun handirik ez dugulako ere bai. Hangoen historiari gagozkiola, pobreago gara oraindik, «beste» historia bati loturik egina bait da haiena.

Hiriart-Urrutyk, garaiko hango euskal giroaren berri jakitea eskatzen du. Areago: ipar Euskal Herriarena konprenitzeko, Frantziakoan Euskal Herriak zedukan berezitasuna erakutsi behar zen. Kasik mende erdi bat aztertzen du lehen parteko istudioak: 1870-etik 1914-eraino edo. Bi gerrateen mugetan ezartzen da, beraz, historialdi hau; hala ere, - esan beharrekoa badadi, aitor dezadan - saiatu naiz egunurteon aldi-mugak urratzen, historigileen artean honelako mugaketa hertsiek, dirudienez, aspaldixko galdu bait zuten behinolako errespetagarritasuna.

Iraultzaren hildotik parteak, denboraldi jakin bateko euskal kondairaren testoiinguru zabala ematen du, premiazkoa bait da gure historia ulertu nahi duenarentzat Eu-

roparen zein Europatan bizi izan garen jakitea. Bigarren partea, garai bereko kezken dokumendu berriemailea da. Testigantza honek, bizitasunik behinena ukanen du, lehen-dabizi gure idazle kazetariaren, periodistaren, inguruko liskar zornatua ere atzematen baldin badugu.

Dokumendu horrek ezarri dio lehen parteari histori ikuspegi berezia. Haren arabera gorde den ikusbidea, garaiko (1891-tik 1915-erako) euskal kazetarismo zabalduen harena izan da, bestelako kriterio eta irizpidez (zer esanik ez) begiratu baldin badut ere. Inoiz funtsezko historiarik lortuko baldin bada, Euskal Herriko azpimoldadurak aztertzeari ekin beharko zaio; baina hori, egiteko dago, eta beldur naiz oraindik ere, epe luze batetan, horrelaxe egon beharko ez ote duen. Anartean (R. Kanblong-ek hasi zuen demografiatzko lanak-eta buka ditzagun artean), bizi egin behar eta ahal dugunari -dadukagunari- heldu beharko. Horixe egin dut: ipar euskaldunak urduritu zituzten politika eta ideia-borroken berri eman.

Lehentxeago aipatu dudan Urliak, Euskal Herrian bertako gehiago nahiko zukeen, eta ni ere ur beraren egarritan gelditzen naiz. Oraingoan ez da posible gertatu asetztea, eta nere oraingo ezinaren ezin hau barkagarri gertatuko ahal zait irakurle eta kritikariaren aurrean. Euskal Herriak, Pirinio Atlantikoetan sartuta egonarren, bere nortasuna atxiki egin zuen, eta nabarmendu, urte haietan, bai politikan, bai beste asmotan. Hori ageri da hemen, eta ez da guti.

Bukatzeko, esan dezadan, dokumendu-antologiaren prestaera dena Piarres Lafitte kalonjeari zor diogula. Eskerrak berari, ipar Euskal Herriaren abots hau gugaratu digulako.

J. I.

Paradoxa aldi baten kazetari

1859-1915. 56 urteko arkupe zabala betetzen du Jean Hiriart-Urrutiren bizitzak. Gorabehera handiko garaia hura. Eta idazlea, aldiaren berriemaile zenez, testigu gertatu zaigu, inguruak iratzartzen zituen oihartzunak jasotzean. Baionako *Eskualdunaren* bulegotik milaka euskaldunei mintzatzen zitzaien hazpandarra ez zen sosegu oneko gizona, eta luma zorrotzez ekin zien aldiko bekatuei, XIX mendetik XX-era zetorkigun aldi tzarra ez bait zen, haren ustetan, zuzena. Itsas-kolpeak gogor eraso-

zuten eta zortzen gertakari bizi frankotekin lotuak Louis Béchereyrek Eskualdunaren del egoian (1891). Euskal jendearantz eta haren mintzatzaren alde emango zuten del jendearantz kazetariek. Berriak, berrirak, berrirak (1892), Leon XIII-ak Frantziako katolikoei auzi publikatzen (Rollemeur) eskatuak ziren. Eta ez zen hain garrantzitsua paradoxa bakarra, nahiz eta Errepublikak «gorria» sobera naiten ez zuten elizgizonen honentzat aski paradoxa gertatu.

1859-1915. 56 urteko arkupe zabala betetzen du Jean Hiriart-Urrutiren bizitza. Gorabehera handiko garaia hura. Eta idazlea, aldiaren berriemaile zenez, testigu gertatu zaigu, inguruak iratzartzen zituen oihartzunak jasotzean. Baionako *Eskualdunaren* bulegotik milaka euskaldunei mintzatzen zitzaien hazpandarra ez zen sosegu oneko gizona, eta luma zorrotzez ekin zien aldiko bekatuei, XIX mendetik XX-era zetorkigun aldi tzarra ez bait zen, haren ustetan, zuzena. Itsas-kolpeak gogor eraso-

1859-1915. 56 urteko arkupe zabala betetzen du Jean Hiriart-Urrutiren bizitzak. Gorabehera handiko garaia hura. Eta idazlea, aldiaren berriemaile zenez, testigu gertatu zaigu, inguruak iratzartzen zituen oihartzunak jasotzean. Baionako *Eskualdunaren* bulegotik milaka euskaldunei mintzatzen zitzaien hazpandarra ez zen sosegu oneko gizona, eta luma zorrotzez ekin zien aldiko bekatuei, XIX mendetik XX-era zetorkigun aldi tzarra ez bait zen, haren ustetan, zuzena. Itsas-kolpeak gogor eraso-

tzen zioten Hiriart-Urrutyk aukeratu zuen ontziari (Eliza eta Euskal Herria), eta, zegokion bidetik, haren defendatzaile kartsu bihurtu zen. Hogeitabost urtetan (1891-1915) etengabe hitzegingo dio bere Herriari.

Hogeitahamabi zituen Hiriart-Urruty apez gazteak Louis Etcheverryk *Eskualdunarako* dei egin zionean (1891). Euskal jendearentzat eta haren mintzairaren alde emango zuen bai izerdi berorik kazetariak. Berehala, biharamunean esateko (1892), Leon XIII-ak Frantziako katolikoei Errepublikaratzea (*Ralliement*) eskatuko zien. Eta ez zen hau garaiaren paradoxa bakarra, nahiz eta Errepublika «gorria» sobera maite ez zuen elizgizon honentzat aski paradoxa gertatu.

Izan ere, Hiriart-Urruty, Frantziako Erreboluziotik-eta zetorren gertakari bitxi frankorekin topatu zen. Hazparnen jaio zitzaigunean eta Seminaria joan arte kasik, Napoleonen agintepEAN zegoen Frantzia; baina, gerrate zoritzarreko bateg Sedanen lemazaina aldatu eta, *Commune*-ren ondoren, Errepublika ekarri zuenetik, hau izan zen Frantziaren gobernari bakarra: *Hirugarren Errepublika* (1871-1940). Gobernailu berriarekin, arian-arian, politiko eta politika berriak jabetu ziren erresumaz. Eta ontzat emanen zuten, adibidez, Italiako Erreinu berria, Vittorio Emanuele-rena.

Eliza beste bidetik ari zen, ordea. *Syllabus* harek (1864) eta Vaticano-ko I Kontzilioak (1870) ez zien elizgizonei deus lagunduko mundu berri baten egunsentia begi argiekin ikusten. Eta Pio IX-ari (hots, preso zegoen Aita Saindu otoitzla-

riari) leialtasunik osoena gorde ondoren, Leon XIII-ak errepublikaratzea eskatuko zien katolikoei. Zer egin, ordu haietan, kazetari katoliko batek? Nork zuen egia: masoneriaren eta karbonarioen persegizio maltzurak, errege koroea kendu eta presorik zedukan Aita Sainduak ala, haren oroitzapena ahantzirik, diplomazia bideak urratzen hasi zen Aita Saindu berriak? Nori sinets? Eta Errepublika onartuta ere, noraino izan behar zen errepublikakide «hargin beltz» haiekin?

Ziotenez, zientzia berriak (antropologiak, soziologiak, etab.) erlijioari lur ematera zihoazen. Positibismoak eta sozialismoek (proudhonismo eta marxismo) bazekiten sineskai zaharrak, beren historia haroa beterik zutela eta hiltzear zirena. Erlijioak, gizarte-eboluzioaren halabeharri loturik iraun zuen, eta historiaren patuak ehortziko zuen zegokion hilobian. Baina, berriz, ere paradoxaren hildotik agertu zen giza historia: Comte-ren atzetik Bergson etorri zen, eta Péguy eta Bernanos eta Claudel... Enbor iharretik kimu gazteak. Errepublikagintzaren korrontean gizartea berritzen ziharduela, fede zaharra ontzat emango ote zuen, gero, Frantziak?

Kristau pentsamenduaren berbiztea gorabehera, 1871-ko nahiz 1905-eko obserbatzaile zoli batek (arrazoi desberdinekin bazen ere) ez zuen halakorik uste izango. Frantzia berrizale eta aurre-rakoiak 1789-ko Iraultza zuen gidari eta horrek bizkortzen zizkion gizarte berrituaren helburu eta ametsak. Benetako progresismoak, Erreboluzio haren asmoak moldatu eta mamitu egin be-

har zituen. Berrikuntza honek, ordea, mesfidantzarik biziena pizten zuen katolikoengan.

Eta Euskal Herria, herriaren beraren erroetatik katolikoa zen, Hiriart-Urrutyk pentsa zezakeenez, gure jendetzaren berritasuna bera ere fedeari atxikia zegoen. Frantzia iraulean, Euskal Herria kontserbakorra zen eta, historia une haretan, areago oraindik euskal elizgizona. Baina berriz ere hona gizadi bakoitzaren arginabar uneak: Hiriart-Urrutyk, Errepublikak barnetik nahi ditu ikusi euskaldunak eta kristauak.

1. Etorkizunaren atarian

urte lehenago kondenatua izan zen Lamennais bezalaxe mintzatu zen oraingoan Mgr Parisis:

Liberté, Égalité, Fraternité, loin de les repudier, ces mots sublimes, le christianisme les revendique comme son ouvrage, comme sa création (1).

Baina hitz ederrok esan ziren arren (eta La-cordaire-ren salbuespen dirdaitsua aparte), Montalembert, Veuillot, Falloux (elkarren diferentziak aitorturik ere) gidari katolikoak ez ziren 1789-ko Iraultzaren jarraile baizik, eta II Errepublikak aintzinago zihoala ikustean gibelera jo, atzera egin behar zuten. Han bukatu zen ezkonberrien amodiozko bidaia. Ez zioten, beraz guti lagundu katoliko haiek Louis-Napoleoni, lehenik (1848, abenduan) Errepublikaren Lendakaritzara hel zedin, eta gero, harmada frantsesak Erroman Aita Sainduari segurantziak eman ondoren, Inperiogoa sortzerakoan (1851, abenduan). Gaetik Erromara Aita Saindua ekarri eta Irakaskintzarako Falloux Legea eman zuen gobernariak irabazita zedukan katolikoek eskerrona, eta gobernari hori Louis-Napoleon izanik, hari zor zioten boza. «Koldarkeriarik» gabe, eta igaro urteetako bere historia apurño bat ahantzirik, hola dei egin zien Montalembert-ek:

Emaiozue zuen boza Louis-Napoleoni. Horrek ez

(1) DANSETTE, A.: *Histoire religieuse de la France contemporaine*. Paris, 1965. 265 horr. "Askatasuna, Berdintasuna, Anaitasuna, hitzok —gorenenak izanik— zapuztu ez baina, kristautasunak beretzat hartzen ditu, izan ere bere obra bait dira, bere sorkari".

du esan nahi haren politika osoa onartzen du-
zuenik; baina horrelaxe egin beharko da auke-
ra, Frantzia, haren bidez, erabateko hondamen-
ditik salba dadin (2).

Inperio go berriak bazuen urtetarako (1860-ra arte, esan dezagun) adiskidantza hau. Garantia bat zen, dudarik gabe. Ia hogeitaz luza-
tuko den agintaritza, bi unealditan erdibi genezake: lehenen hamarrekotan, agintearen babes gozoan, lan gaitza egiten du Elizak bere oinarriak irmo-
tzen; agintarismoaren aldia da hau. 1859-az ge-
ro nolabaiteko (eta azken urteetan dudamudaz-
ko) liberaltasun batetara itzultzen da. Italiako batasun hauziak arras pozointzen ditu katoli-
koen eta gobernuaren arteko harremanak, baina inperioaldiaren lehenen hamarrekotan burututa-
ko lana funtsezkoa zen eta irautekoa.

1.1. II Inperioaldiaren erlijio politika

Gobernabide berriaren jaiotorduetatik Inpe-
ratorea prest zegoen Elizari bere babesa eskain-
tzeko. Gobernuak ematen dituen erraztasunei es-
ker elizelkarteak ugaltzen joango dira, eta erruz
gainera. Hau izango da 1830-tik 1880-ra artekoan
erlijio gertaerarik garrantzizko eta ondoretsue-
na. Gertakizun hau sakonki errotuko da Frantzia-
ko gizartean, eta Kongregazioneak dakazkiten

(2) LATREILLE, A.: *Histoire du Catholicisme en Fran-
ce*. III: *La période contemporaine*, 311 horr. "Voter pour
Louis-Napoléon, ce n'est pas approuver tout ce qu'il a fait,
c'est choisir entre lui et la ruine totale de la France".

ikastetxeak errotuago utziko dute oraindik urte hauetako elizgintza: Frantziako eremu osoa elizaren ikastetxez ereinda geldituko da ondorengo borroketarako (3).

Azpimoldadura hori trinkatuaz etorri zen Estaduaren presopustua. Uztaileko Monarkiarekin, eliz-jalgipena 40 miloetaraino ozta-ozta igotzen zen, II Inperioaldian 65 miloe dira (1859) Elizari emanak; baina diru hau goi-kleroarentzat izan zen gehienbat. Eta esan behar da urte haietanxe birregin eta osatu zuela Elizak galdutako ondasun-multzoa.

Baina hau dena, askotan, legearen esana eta izpiritua ahantziaz izan zen posible; ikusia zegoen, Inperioaren edergailutzak behar zuen Eliza Napoleon III-ak. Kristaua zen bera, baita politikoa ere; aiurritz ezkertiarra izanarren, errepublikazaleen beldurrez, ongi gorde behar zituen

(3) LATREILLE, A.: aip. lib., III, 314-317 horr. Kongregazioneen ugaltzen honek, ikusiko denez, berebiziko garrantzia ukanen du ondorengo hamarrekotan. 1852-urtarrila-31-ko dekretu-legeak dioenez, aintzinakoan dekretu bidez afroгатuko da Kongragazione berri baten eraikitzea. Lege honi esker, hamar urtetan, bikoiztu egiten dira elizelkarteak: 1860an, 817 komunidadetutugu. Bokazioak ugari doaz etxe ireki berri hauetara: mojak laukoiztu egiten dira hogeiturtetan. Mgr Pie Artxapezpikuak, loratze hontaz liluratuta, honela dio: "...ces innombrables familles de pauvres Soeurs... multipliées avec un incroyable fécondité, se sont répandues jusque dans les quartiers les plus délaissés". Gizonetzko Kongregazioneekin, legez debekatuak baldin badira ere, berdintsu gertatzen da: Gobernuaren txera onak hainbat, lagundu zien gizarte giroak, batez ere Frantziako hegoaldeetan. Legez kanpo zeudenak salbu, batatz beste bazeuden 1861ean 71.557 elizetxe erlijio-soen eskutan.

politika tresna batzu: bonapartistak *vont à la messe à tort et à travers* (bonapartistak zoromoro mezetara, zioten errepublikanoek). Gizarteari agintarismo gogorra bizkarreratzen zaio, baina Frantziak eskasik dadukan libertade hura ukanen du Elizak: irakaskintza legeak honen alde irakurriko dira, eta Konkordato ondoren posible izan ez ziren kontzilioak bilduko eliz-probinztietan.

1.2. «Erromako hauzia»

Hala ere, Inperioaren eta Errepublikaren arteko ezkonberri poza ez zen luzarorako izanen: Napoleon eta Cavour, Plombières-en bilduko dira 1858-ko abuztuan. Inperatoreak eduki bazeuzkan bere gogoetak Italiaren etorkizunaz, baina, katoliko frantsesen ustetan, Aita Saindua ahaztuxea zerabilkien: Europarako amestu zuen herrien federazioak eta Italiari eman nahi zion moldadura politikoak ahantziarazi zion, nonbait, alferrikako utopiatan sarturik zebilena. Piemontek engainatu egin zuen, Aita Sainduaren eskualde bat atzemanaz, eta, orduan, irtenbidea bilatu nahirik hala kontseilatu zion honi Inperatoreak: *Zenbat eta tipiago lur-eremuak, hainbat eta handiago izanen da Aita Saindua*. Laister odolberotu zitzaizkion katolikoak halakorik entzutean, eta Pio IX-ak gogor eraso zion Frantziako enbaxadariari: *Zure Inperatorea gezurti eta zuri bat da* (4). Ondoren Veuillot kazetari kato-

(4) "Votre Empereur n'est qu'un menteur, un fourbe".

likoari eskutitz bat bidali zion: Aita Sainduak, bere aginte-eremua osorik behar zuela adierazten zuen. Veuillot-en *L'Univers* debekatua izan zen eta, espero zen bezalaxe, geroz eta gogortuagoak izanen dira 1859-tik aurrera Estadu eta Elizaren harremanak.

Euskal Herrian «Erromako hauziak» aparteko oihartzuna eduki zuen, izan ere, hemen apaizeria eta herria hertsiki loturik zetozenez, herri xumeak bihotzetik sentitu zuen Aita Sainduaren ezbeharra. Hala ere, Baionako Apezpikua, Lacroix, malsoki mintzatu zen hauziaz, ez bait zen beharrik ere agian. Euskal Herritik hala ezagutarazi zuen jaun fiskalak Parisera, gure herriaren egoera agertuaz:

Euskal Herrian bakarrik ditu populazioak apaizen kezka berak... Erromako hauziak biziki arduratzen du euskal jendea, hau da Maule eta Baionako eskualdeetan, katolikoago bait dira eta, protestantez, Orthez eta Pabeko lurraldeak baino gutiago nahasiak (5).

Berribide honek esaten duenez, Parisen gogoran zedukaten jende katolikoaren iritzia, Erromako hura pozointzen ari zen hauzia bait zen Frantziako gobernamentuarentzat.

(5) "C'est seulement dans le Pays basque que les fidèles partagent l'inquiétude de leurs prêtres... La question romaine préoccupe au plus haut degré la population basque, c'est-à-dire les arrondissements de Mauléon et de Bayonne, plus catholiques, moins mélangés de protestants que ceux d'Orthez et de Pau". Ikus MOREAU, R.: *Histoire de l'âme basque*. Imprimerie Taffard, Bordeaux, 1970. 508, 539 horr.

1.3. Fedea ala aurrerapena?

Harremanik zailenak ez dira, haatik, horiek. Elizak baditu buruhauste kezkarriagoak, sako-nagoak, beste tokitan. 1862-an ematen du *Joseph Ernest Renan*-ek Frantziako kolejoan bere lehenen ikasgaia eta Jesus *gizaki berdingabe* hartaz mintzatzen da. Jakintza eta literatura, batean dotoz, diotenez, haren *Vie de Jésus* liburu berrian (1863). Berriz ere, garaiko kulturak eraso die Elizaren fede zutabeei. Zer esan, zer erantzun?

Pio IX-ak erabaki du bere ikas-mezua munduari aldarrikatzea, kristau gizarteak, eta besteak, jakin dezan non den kristau fedearen egia: 1864-ko abenduaren 8-an *Quanta Cura* Enziklika argitaratzen du. Bere barnean doaz liberalismoaren eta XIX mendeko 80 erruak, *Syllabus* luza-garrian laburturik. Kristauek bazekiten harrez gero: larogeiak kondekatuak zeuden. Gizarte politiko berriaren zimentarri zirudien zenbait libertade ere bai: erlijioen libertade politikoa, Estadu eta Elizaren arteko apartazioa, prentsa libertadea eta batez ere ate guziak hersten zituen azken proposamendu kondenatu hura:

Aita Sainduak bakeak egin eta amor eman dezake eta behar du progresuarekin, liberalismo eta gizarte modernuarekin.

Honelako gaitzespenak bazuen noski bere golkoan lehegarririk. Eliz-barneko amorekaitz guziek txalotu zuten eskutitza; eta berdintsu kanpoko ezkertiar beroenak. Denontzat argi zegoen, argitua zegoen eztabaida: fedea eta gizarte mo-

dernuko balioak ez ziren elkarrekin adosgarri: barneko eskuindarrek fedea gordeko zuten; besteek, aski zuten gizarte librearekin. Dupanloup eta *Civiltà Cattolica* entseatu ziren konponketa bat moldatu nahirik (tesia eta hipotesiaren argudio sonatuaren bidez), baina ekaitza ez zen berehala (inoiz bai?) baretuko. 1863-an Peyrat-ek oihuztaturiko *Le clericalisme, voilà l'ennemi!* berritzeko atxakia ederra zuten ezkertiarrek. Renan-ek, adibidez, apaizgai zaharra izaki, Elizari barnetik ekin zion:

Zorakeria hau konprenitzeko, teologo zahar bat zer den jakin behar litzake eta beste mundu batetako gizaki haren kaskopean pentsakizunak nola apalatzen eta formulatzen diren ezagutu (6).

Errepublikazaleek laister ikusi zuten zein probetxagarri gerta zekiekeen halako arrabots eta tarrapata, «Erromako hauzia» eta eztabaida berriarekin nahastuaz. Bazekiten, garaiko giroaren haizeak ez zutela Aita Sainduaren eskubiderik aurrera bultzatuko. Geroz eta zeharkago zetozen haize haiek, eta Frantziako Apezpikuek berek ere ez zuten bihotz berorik delako hauzi hura gehiegi defendatzeko. Jendeak ez zuen sinesten fedea-
ren eta «hauziaren» arteko lotura derrigorrezkoa, eta errepublikanismoaren eraginaz antiklerikalismoa mariagora zetorren. Elizako eta Fran-

(6) DANSETTE, A.: aip. lib., 330 horr. Gogorrago hitzeginak ere baziren, esate baterako Allain-Targé (gerora, III Errepublikan ministro izatekoa): "Il n'est plus permis d'être intelligent et catholique... Le pauvre pape abuse-t-il de son infaillibilité pour dire de sottises!"

tziako antiklerikalismoak elkarri laguntzen zioten eta prentsa volterianoa indarberritzen ari zen, guzian idealak bizkortzeko (7). Giroa goritzen zihon benetan, eta zitaltzen: 1869-an, izenburutzat *l'Excommunié* zuen horri bat irakurtzeko aukera eman zitzaion lionesei.

Bitartean, katolikoek ez zuten behar zen zientzi prestaerarik. Alemaniako kritika exegetikoak (Strauss, Baur, Wette, etab.) eginik zuen bere lana Frantziako intelektualen artean, baina jakitun katolikoek nahiago izan zuten ezentzunarena egin.

Erroman ez zuen santutasun usain gozoric inestigazio libertadeak, gainerako libertade modernuak ez zuten bezalaxe (8).

Ez da, beraz, harritzekoa fedegabe askoren miztoa, katolikoek debozio eta mirakulu egarria ironiaz gomentatzean. Jakitatez urri eta mirakuluz oparo bizi zen Elizak ez zuen erarik gizarte-giro berri haretan murgiltzeko. Izan ere, kleroak basedukan nahiko lan Lurderako erromeriak eratzen. Tarbeko Apezpikuak 1862an afrogatu zituen Lurdeko gertakariak, eta 1876an,

(7) *Le Siècle*, Havin volterianoarena adibidez (202.500 harpidedun bildu zituen Havin berak argitara eman zuen *Voltaire-ren* edizioak, 1867an); *Le Temps*, Nefftzer-ena; *l'Opinion Nationale*, Guérault-ena; *l'Avenir national*, Peyrat-ena.

(8) LATREILLE, A.: aip. lib., III, 378: "...la liberté de recherche n'était pas plus en odeur de sainteté à Rome que les autres libertés modernes. De sorte que le petit nombre des gens informés préférait ne pas donner d'écho à des questions qu'il était impossible de débattre". Gezurtaezina: katolikoek, behar zuten prestaerarik ez zedukatelako noski.

100.000 kristau eta 36 Apezpiku presente zirela, benedikatu zen Basilika berria. Eta, egia, kezka hauek ez ziren aski apologetika beharrezko bat sortzeko, positibistek ez bait zuten mirakulueten sinesten (9).

1.4. Politika antolamendu berriaren bidegurutzean

Sedan-go gudaketa ondotik Elizaren kontra biztu ziren asarreak bazuten kristauen jokabidean esplikabiderik, Ferrata Kardinalak zioen bezala:

Jendetzaren begietan, erlijioa politika baten eskumakila bezala agertzen zen, aristokraziaren monopolio eta Errejimen Zaharreko aberatsen feudo bezala (10).

Honela, herri xumeak batetik, eta pentsalariak bestetik, sorbalda eman diote Elizari, eta Eliza hau atzerakoi, reaktionariotzat dadukate; etorkizuneko aurrerapenaren bideak sasipeturik daduzka —hori da askoren kontzientzia— erlijio

(9) LATREILLE, A.: aip. lib., III, 381: "Or ce qui devait être pour la France le signe peut-être le plus élatant de sa vitalité religieuse et son rayonnement universel à l'époque contemporain fut à l'origine et devait continuer longtemps à être aux yeux des positivistes un preuve supplémentaire du pouvoir de la superstition et de ravages de l'esprit grégaire au sein du catholicisme".

(10) ROPS, D.: *L'Eglise des Révolutions. Un combat pour Dieu*. Paris. Gaztelaniazko itzulpenean (Barcelona, 1965), 111 horr.

instituzio horrek. Horra, ba: *Commune*-ren nabarmenkeriak ukanen dute, beraz, esplikabide bat, erabatekoa ez bada ere. Bestalde, errepublikazaleak ere badoaz beren ideiak programa politikoetan proposatzen. Bide honetatik ideial berri konkretuak eskaintzen zaizkio populuari, 1871-ko errepublikazaleen garaipenak (11) ez bait ziren kontrakoan hutsegiteetan bakarrik finkatuko. Euskal Herrian errepublikazaleek ez zuten hain zeru ozkarbirik herri opinioaren aldetik; baina, Inperiogoa hondatzean, Pirinio Atlantikoetako depardamentuan, beste hainzeta bezalatsu, politiko kontserbakorrak bidegaldurik eta norakorik gabe dabilta eta errepublikazaleen deputatugai zenbait (Barthe, Renaud, Duclercq) babestuko dute (12). Biharamunean ikusiko de-

(11) 1871-n, urtarrilean egin ziren bakezkoen ondoren (alemanekin, alegia), bi bozketa izan ziren. Bata, otsailaren 8an: 200 errepublikazale (1869an 30 bakarrik gertatu ziren), 430 monarkizale, baina hirutan sakabanatuak (200 erregetiar lejitimista, 200 erregetiar orleanista, eta 30 bonapartista). Monarkizale hauek, elkarren etsai beti, ez ziren ados izanen inolako erabakirik hartzeko: honela, bide bakarra *monarkizaleen Errepublika* izango da, eta erdi Errepublika honetan errepublikazaleak bakarrik ziren zer nahi zuten erabakita zedukaten bakarrak. Bigarren bozketak (1871-uztaila-2) errepublikazaleok sekulako garaitzapena ukanen zuten: otsailean hutsik gelditutako 118 aulkietarako, ehun bat errepublikazale izanen ditugu. Ikus MOURRE, M.: *Dictionnaire d'Histoire*, Paris, 1968, II, 2.364 horr. Baita BOUJU, P. M., DUBOIS, H.: *La Troisième République*. Paris, 1971, 7gn. ed., 13-14 horr.

(12) MICHEU-PUYOU, J.: *Histoire électorale du département des Basses-Pyrénées sous la IIIe et la IVe République*. Paris, 1965. 125-129 horr. Departamendu osoan deputatu gertatu zirenak hauk ditugu: Barthe (err.), Dagueneu (mon.), Duclercq (err.), Dufaur (mon.), de Gontaut-Biron (mon.), Jau-

nez, departamendua bozketara berriz deitua izatean (1872) populuaren iritziak eskuindarrik eskuindarra eramango du Deputatu Ganbarara, Charles Chesnelong (13). Pirinio Atlantikoetako eta Euskal Herriko iritziak ez zuen, ordea, zuzenduko Frantziakoa, eta Frantziakoak agintzen zuen Euskal Herrian.

Sedango hondamendiaren ondorenak darmaizki aintzina erresuma eta Errepublika jaioberrria. Porrokaldiak izpiritu berri bat ematen dio Frantziari, komunidadere beharren sena biztuaz: elkar lanean burutu behar da erresumaren, eta orain errepublikaren, etorkizuna (14). Politika estruktura berriak behar ditu Frantziak gerrari aurpegi emateko; horixe izanen da politika betebeharraren ardatza. Zein etorbide berri eskaintzen zioten, ordea, Frantziari politiko berriek?

reguiberry (err.), Lacaze (err.), de Lestapis (err.), Renaud (err.). Sei errepublikazale eta hiru monarkiko (ikus aip. lib., 365 horr.). Bestalde, politikoeak bazekiten Elizaren itzal onaren berri: Emile Garet "gorriak" haren laguntza bilatuko du, Jainkoaz ahanzi gabe (ikus, 128 horr.).

(13) Chesnelong izanen da laister Frantziako lejitimisten gidari. Bozketa aldirako, Thiers-en Errepublika onartzen bazuen ere, guziek zekiten haren gogoetaz zer pentsa. Garet-en *l'Indépendant* egunkari errepublikazaleak hala zioen (1871-abendua-27): "M. Chesnelong a una marotte, dont il a montré plusieurs fois le bout de l'oreille, il veut que notre Saint-Père le Pape soit roi de Rome et d'Italie".

(14) GUIRAL, P.: "L'expansion de l'Europe". Ikus GROUSSET eta LEONARD-en liburuan: *Histoire Universelle*. III: *De la Réforme à nos jours*. Paris, 1958. 635 horr.

2. Ideologia eta programa berriak

(ia) gertatu ziren. Hori alderiz alderiz, baina ez du gertatu behar. Hori alderiz alderiz, baina ez du gertatu behar.

2.1. Estatuaren sorrerari buruzko ideak

Demokratiaren aldekoen artean, baina ez du gertatu behar. Hori alderiz alderiz, baina ez du gertatu behar. Hori alderiz alderiz, baina ez du gertatu behar.

Hori alderiz alderiz, baina ez du gertatu behar. Hori alderiz alderiz, baina ez du gertatu behar. Hori alderiz alderiz, baina ez du gertatu behar.

1870-az gero

Frantziak Estatuaren sorrerari ekin behar dio. Ideia zaharrak ala berriak izanen ote dira nagusi lan-keta onetan? Egia esan, inork ez du argi ikusten nongo bidea aukeratuko den. Gerokoek, gertatuak gogoan ditugula, badakigu zein pentsamolde jabetu zen Estatuaz; baina ondorengoak, Napoleon III-ak aldiaren behar hura konprenitu ez zuelako (burgesia zabalago batek haren agintaritzagandik bide erosoagoak nahi zituela, ale-

gia) gertatu ziren. Hori ulertezinak, lur jotzeraino bultzatu zuen Inperiogoa.

2.1. Estaduaz zenbait ideia

Demografia aldatzen doa, ideiak berdin, ekonomiak teknika berriak ditu, eta guziok Estatuarekiko ideia bera ere aldatu egiten dute. Jendearen interesak eboluzionatzen duten neurrian, aginteari laguntza berriak eskatzen zaizkio, eta gizarte ordenamenduaren ideia berri batek administrazioa ere bilaka eta alda dadin lanegiten du (15). Estaduaren nozioa berritu egiten da.

Baina gizarte osoak ez du hortaz ideia berdina. Teorigilea eta herri xumea ez datoz ados beren ikuseretan. Teorikoak, norberaren jabego librea, ekinbide eta kompetentzia libreak babes ditzan nahi du Konstituzioa; populu xeheak aisago bizi nahi, eta honetan lagun dakion nahi du Estadua. Gizarte hierarkia bakoitzari nozio desberdin bat dagokio; hierarkia horretan gorago goazela, are zerbitzu gutiago espero dira Estaduagandik. Herria, Estadua aipatzean, errazki ari zaigu Nazioaz mintzatzen; eta indibidutasunaren defendatzaileek, berriz, Estaduagan ikusten dute zuzeneko arriskua. Robespierre-k eskatutako Estadu eragilea, 1870ean ere proiektu hutsa zen oraindik (16), burgesia liberalak ez bait du maitate Robespierre.

(15) MORAZE, CH.: *La France bourgeoise*. 1946. Gaztelaniazko itzulpenean (Barcelona, 1967), 199 horr.

(16) MORAZE, CH.: aip. lib., 218-219.

Argigarria dugu 1880en *Institut*-ek sortu zuen eztabaida: lehengo «Estadu-polizia» haretatik pasata, Estaduaren aginpidearia eginkizun zabala goak ematera doa askoren pentsaera. Garai batetako ideiak zioenez, Estaduak legegintza lana zuen gehienik ere eta honen helburua *ondasunen gozamina segurtatzea* zen (Jean Bodin). 1880ko eztabaidan Estadu planeatzailearen ideia agertuko da: Estaduak etorkizuna sortu eta zuzendu egin behar luke, eta ekonomiaren eta kulturaren planeamendu bat eskaini herriari. Geror eta gehiago, Estaduak herrigintzan eskuhar dezala nahi litzake; ez dadila geldi hiritarrei lege aterpe bat ematen. Gizartearen babesgarri ez ezik, zuzentzaile eta eragile ere izan dadila. Liberalismoan bertan ere pentsaera aldaketa hau suma genezake, Dupont-White katolikoagan adibidez (17).

Industri erreboluzioak bere baitan dakar ideien eboluzio au. Frantziak ibilbide berrien sarea eremu guzira zabaltzen du: trenbide eta kami-noak ez daitezke inoren eskutan nolanahi utz. Eginkizun horretan Estaduak badu zerikusirik franko. Arian-arian Estadua aberastasuaren banatzaile izango da. Baina, etorkizunak ideia modu hauetarako joera nabarmena badu ere, pentsamolde zaharrak ez dira 1869an zokoratu, eta ez dator bat gizarte osoa iritzi hauetan:

Erdiko klaseek Estaduagandik laguntza eta babesa espero dituzte, aurrerapen mekanikoak irents ez ditzan. Honetan artesauk monarkiari eska-

(17) MORAZE, CH.: aip. lib., 226-227.

tzen ziotena nahi dute hauek ere. — Estaduaren teoria frantsesa, agitz nahasia, bere jatorburuetara itzultzen da, eta jatorri hau monarkikoa eta artesaua da (18).

Frantziako hirugarren errepublikagintzari ekitan korronte desberdinak jotzen dute elkar 1871-ko ibaigurutzean.

2.2. Zein Errepublika?

Hau zen politika talde guziek gogoan zuten galdera. Monarkizaleentzat ihesbide bat zen Errepublika, parentesi hutsa, gerora monarkiko bakoitzak bere Monarkia propioa sortarazteko esperantza. Eta errepublikazaleen artean, ez zuten Thiers, Gambetta nahiz *Commune*-tiarrek Errepublika batbera eskatzen.

Hala ere, errepublikazaleen badiu guttitsuentzat diren pentsamendu iturburuak eta ideia funtsezko batzu. Errepublikazale laikoak —eta hemen *errepublikazaleak* aipatzean laiko horietaz ariko gara— II Inperioaldiaren azken hamarrekoan taxutuak dira. Zenbait dotrina motatan eskolatuak ditugu: katolikokontraiko izpiritualismo batetan, protestantismo liberalean, Kant-en kritizismoan, Renouvier-en pertsonalismoan, Spencer eta Darwin-en eboluzionismoan eta Comte-ren positibismoan. Pentsamolde guzior irakaskizunak Taine, Renan eta, bereziki, Zola-gan mamitu dira, hauengandik gizartera

(18) MORAZE, CH.: aip. lib., 232.

barreatzeko. Ikusten denez, iturri hauetatik zuzenean dator erlijio positiboak zapuztu eta, gutienik, erlijio agintea ukatzea.

Aipa ditzagun errepublikazale laikoen pentsakizun-zutabeak; hiru pontutan baitipat sostengatzen da beren irakaskintza: itzal barneko bat diote Erreboluzio handiari, honek askatu bait zuen gizona apaizen morrontzapetik, hiri-gizon (*citoyen*) hori, behar zuen bikaintasun batetaraino jasoaz. Robespierre, Girondarrak eta Herria kantatuko dituzte idazleen lumek (L. Blanc, Lamartine, Michelet). Bigarrenez, errepublikazaleok giza izate eta izankizunaren fede hanpatu bat dute: monarkia eta erlijioa baztertuaz, gizona kapaz da bere gisara egia atzemateko. Izan ere, behar luke gizonak bere burujabetasuna indarberritu (19). Hirugarren, gizaeginkizun honetarako laguntza paregabe bat idoro dute, *zientzia*, Comte-k ere esana bait du: pasa dira teologia eta metafisikaren haroak, zientziarenean sartuak gara, zientzia honen azken aurkikundeak agertzen dutenez. Zientziak eta Arrazoimenak

(19) Radikalismoak, eta bidebatez Hirugarren Errepublikak, gizaeraren intuizio bat darama barnean. Politika, ez da eginkizun pragmatiko hutsa, areago da: etika bat da, giza-gintza lana. NICOLET-ek argi ikusi du hori: "La Révolution française a marqué le début d'une étrange aventure: le passage de la politique du domaine de l'empirisme au domaine de la morale. Et surtout, elle a fait concevoir la politique comme une grande ascèse pour l'élaboration d'une nouvelle sorte d'homme: le citoyen, autonome, moralement bon parce que juridiquement défini, universel". Ikus NICOLET, C.: *Le Radicalisme*. Paris, 1967, 6 horr.

porrokatu zuten, beraz, katolizismoaren zimentarria (20). Labur dezagun pentsaera hori:

Burgesia gobernari honek gizarte-filosofia liberal bat onartzen du eta hiri-gizon guzien berdintasun printzipioa; lana gomendatzen du, diru-ahorroa, janedanaren neurritasuna; badu federik me-rezimenduzko gorakada sozial batetan; interes-taldeen arteko harremanetan, Estaduaren eskuhar-tzea debekatu egiten du, eta berdin defendatzen da Elizarenetik. Maite du, sinespen osoz eta nahi bada taktikaz, halako antiklerikalismo bat, beti lanean diharduen klero indarraren influentzia muga dezan eta herriaren eskabideak helburu onargarrietara zuzen ditzan: esan nahi bait da, Errepublikaren defentsara, eskolagintzaren desarrollora, hiri-moral independente baten aurrerabideetara (21).

Helburu horiek ardiets zitezten, gizarteak tresna berriak behar zituen. 1789 eta 1848-etako ideia-lak, Gobernu lanabes egoki bat zuen eskakizun, ez Paris bakarrik, Frantziako eskualde denak erakarri behar ziren Errepublikaren ideiarda (22). Errejimen hau berez da sistima berria, Thiers batek, lehenaldietara itzuliaz, Errepublika kontserbakorra nahi izanarren; honegatik Weiss-ek hola erantzungo dio: itxuragabekeria da Errepu-

(20) Berthelot-ek (jakintsu, teoriko: *L'Avenir de la science*, 1849), Renan-en adiskide min eta Irakaskintzako Ministroak (1886-1887) hala zioen: "Le monde est aujourd'hui sans mystère... La notion du miracle... s'est évanouie comme un vain mirage".

(21) LATREILLE, A.: aip. lib., III, 420.

(22) BOUJU, DUBOIS: aip. lib., 21.

blika horrela mugatzea, honek bere baitan bait ditu aurrera asmo guziak (23). Etorkizuna irekia du, hortaz.

2.3. Radikalismoaren programa

Irekitasun horren ideia, ordea, zeharo *radikala* da, Radikal Partiduari itsatsia Weis radikala zen bezalaxe (24). Errepublikagintza, Thiers eta honen lagunkideak gaindituaz egingo da. Hirugarren Errepublikaren historia, hein handi batetan, radikalek egingo duten aginpidearen konkista eta entseguaren kondaira da. Funtsean radikalismoak hori du: gizonaren ideia eta asmo berri bat.

Baina funtsezko ideia hauetatik aintzina baldin bagoaz, ez da erraza gertatuko radikalismoak dakarkien ideologia deskribatzea. Ez da harritzekoa Touchard-ek idatzi zuena: *errazkiago egin liteke partidu radikalaren historia, haren definizioa ematea baino* (25). Dena dela, esan dezagun: kontzientziak antzaldatu behar dira, gizagintza haretarako, nazio demokratiko bat eraikiaz eta libertadea, berdintasuna eta anaitasuna aho batez onartuaz (26). Nicolet-ek eman digu, agian, radikalismoaren deskribapenik egokiena:

(23) NICOLET, C.: aip. lib., 23.

(24) Ikus beherago Radikalismoaren kanpoko historia.

(25) TOUCHARD, J.: *Histoire des idées politiques*. Paris. Ikus gaztelaniazko itzulpenean (Madrid, 1969, 3gn. ed.), 514 horr.

(26) *Ledru-Rollin*-ek eman zuen, 1847an, Radikalismoaren lehenen definizioa: "Nous sommes des ultra-radicaux, si

Radikalismoak politika mogimendu bat baino gehiago izan nahi izandu du: pentsa-modu bat, gizarte-antolamendu baten diseinua, munduaren ikusmolde bat edo, esan ohi den bezala, *un état d'esprit*. (...). Burgestu denean ere, Frantziako Iraultzak, utzi du franko urrats onartua izan dadin: harrez gero, Frantzia erdibitua dago, eta, XIX mendean, Radikalismoa da izan, Erreboluzio-herentzia, eta bi zati haietatik baten ager-garri da (27).

II Inperioaldian moldatu eta hezi zen gazte-riak, zientzismo positibista bat, laizismoa eta erabateko liberalismoa dakartzi politikara. Zientzismo harek inkredulutasunera eramaten du (ez beti, Combes esate baterako izpiritualista bait da); laizismoak erlijio natural bat nahiko du, eta zientzia zabaltzeko eskolagintza berri-berri bat eskatuko. Printzipio hauen ondorio bezala, Radikalismo estrenagabeak eskari hauk egingo ditu *Belleville-ko programan* (1869) erlijioari begira:

vous entendez par ce mot le Parti qui veut faire entrer dans la réalité de la vie le grand symbole (egi-bilduma, esan nahi du) de la liberté, de l'égalité et de la fraternité". Ikus NICOLET, C.: aip. lib., 14 horr.

(27) NICOLET, C.: aip. lib., 5-6. Radikalismoaren pentsamendu gunea hobekien eman digun pentsalaria Emile Auguste Ch. *Alain* (1868-1951) izan da. Rouen-en eta Parisen izan zen irakasle: bere gogoetak indibidua salbatu nahi du, gizarte nahiz erlijio ordenamendu guzietan berengan daramaten zapalketa-joeratik salbatu, alegia. Radikalismoak beti eta pentsalari eta politiko guziengan abots berdina ez ukanarren (gogora dezagun Clemenceau), beti maite izan du, aparteko begirunez, indibidutasuna, gizabanakoa, agintarismo denetatik gorde nahirik.

- Eragozpen eta enbarazo gabeko *bilera-libertadea*, erlijio, filosofi-politika eta gizarte-gaiak eztabaidatzeko eskubide osoarekin.
- *Elkartzeko eskubide* oso eta betea.
- Kulture presopostua kendu, eta *Eliza-Estaduen apartatzea*.
- Lehen mailako *Irakaskintza, laikoa*, debaldekkoa eta nahitaezkoa izan dadila... (28).

Pontu hauek, eta programa osoak, 1905era arte iraungo dute beren horretan, garantia politikoak eskatuaz, baina segurtapen sozialak oraindik oso urrun direla. Programa horren berrikuntza 1907an egingen da, eta arnasa berria Combes-engandik jaso du, Edouard Herriot presentatzaile dela. Nancy-ko Kongresu honek, radikal kontserbakorrek eta aurrerakoiak elkarganatze-ko (=Parti Radical et Radical-Socialiste) birpentsatu zuen programa zaharra. Erlijioari eta Irakaskintzari gagozkiola zera dio:

- 9.º Osoro gordeko dira laikotasun legeak, eta daduzkagun Kongregazioneak benetan deusezteak eskatzen du Alderdi Radikal-Sozialistak. *Eliza librea Estadu burujabe batean* delako formulak ongi segurtatzen du kontzientzi libertadea, eta baita kulture guzieren ihardunak eta aginte zibilaren gorentasuna.

(28) "...La liberté de réunion sans entrave et sans piège, avec la faculté de discuter toute matière religieuse, philosophique et sociale... La liberté d'association pleine et entière... La supression du budge des cultes et la séparation des Églises et d'Etat... L'instruction primaire laïque, gratuite et obligatoire..." Ikus NICOLET, C.: aip. lib., 20-21.

10.º Estaduaren eskubiderik bikainenetako bat irakaskintza da, eta Estaduak berak eman behar du maisu laikoen bitartez edo ta zorrotz kontrolatu, eskolaketa inoren esku-tan utzi behar duenean (29).

Ikus daitekeenez, bi gizarte modu desberdinen ideiak daduzkagu errepublikagintzarako orduan: mendez mende datorrena eta berrikitan sortu nahi dena. Eta eginkizun honetarako tresnen bila dabil Radikalismoa. Baina errepublikagintza-ren zoritxarrerako, errepublikazaletasunak saka-banaturik dihardu.

(29) NICOLET, C.: aip. lib., 45. Asmo hauk, ikusten de-nez, Radikalismoak bizi-bizi daramazki bere baitan, 1901ean Partidua eraiki zen aintzinatik eta geroztik. Ikastolei buruzko kezka honetan, Frantziako historiaren interpretapen bat ere bada: Frantziak —dio interpretapen horrek— ez du Erreformarik izan eta arrazionalismo faltatan izan da, eta Alemaniak aurrea hartu dio. Historia hutsune horretan finkatuko litzake 1870eko porroketa hura, hondamendiari esplikabide bat emana-z. Aitzitik, ikastola berriak egin beharko luke des-elizatzea (gogora dezagun Frantziako Eliza katolikoa dela), hau da egin-gabeko izpiritu Erreforma hura. Honela izanen da posible gi-zon berria ere. Ikus NICOLET, C.: aip. lib. 33, eta DAN-SETTE, A.: aip. lib., 326.

3. Gizarte zahar eta gizarte berri

kuindar eta ezkeriarren arteko mugak (31). Es-
 kua ezkeriak, diak burgesak, hondak elkar mu-
 gaxan baidin baidin langileriatzaren eta, ezker-
 tar errepublikazaleengan bezala, antikerikalis-
 moak badi badi xertegirik. Burgesiak, eta berdin lau-
 gileriak, biek dute antikerikalismoaren ideia gure-
 kor eta balako mesianismo errepublikazale bat.
 eta antiera jo behar honak, dakizenez, Elizaren
 kin togo gainko eragari datamaxe. Katolikoa
 ez zuten ikusi bi gizarte-talde hauen antikerika-
 listaren barne-joinaren zerpatia; izaki esatua
 zuten elizkoiak behar hura, lehenetsago, Com-
 munean gaitan, elizgizonen hiletak gizar-
 deskriptorearen kasian bezala ikusi zirezen
 bezalatsu.

3.1. Antikerikalismoa

Argi da: erre-
 publikazaleak ez daude konforme eman zaien gi-
 zartearekin. Beste bat nahi dute, baina berrikun-
 tza honek aurpegi ematera bortxatzen ditu. XIX
 mendearan azken laurdenean bi etsai daduzka
 —diotenez— errepublikagintzak: gudarismoa eta
 klerikalismoa. Bi hauen aurka ez dago amor ema-
 terik (30), eta antikerikalismoak ezartzen du es-

(30) Ikus SALIS, J. R.: *Historia del mundo contemporá-
 neo. 1871-1904*. Madrid, 1960, 618 horr. Antikerikalismo hau

kuindar eta ezkertiarren arteko muga (31). Es-kuin-ekerrak, biak burgesia, honela elkar mugatzen baldin badira, langileriarengan ere, ezkertiar errepublika-zaleengan bezala, antiklerikalismoak badu zereginik. Burgesiak, eta berdin langileriak, biek dute aurrerakuntzaren ideia parekoa eta halako mesianismo errepublikazale bat, eta aurrera jo behar honek, dakitenez, Elizarekin topo gaizto egitera daramazki. Katolikoek ez zuten ikusi bi gizarte-talde hauen antiklerikalismoaren barne-loturaren zergatia; itsuki epaitu zuten elizkontra behar hura, lehentxeago, *Commune*-ren garaian, elizgizonen hilketak gizarte deskristautzearen *kastigu bezala* ikusi zituzten bezalatsu.

3.1. Antiklerikalismoa

Egia, Frantzian askorengan sumatzen da apaizeriaganako gorroto bat; baina fenomeno horri esplikabide bat bilatzea zor zitzaion. II Inperioalditik zetorren hori; orduan ikusia zuten unibertsitarioek, Elizak nolako joera zuen ideia «desbidetuak» bideratzeko; gogorra zela, giza askatasunarekin begirune gutikoa, intelektualak bortxatuak izan bait ziren sarri asko. Ez zen

apaizeriaren aginte kontserbakoia ren kontra egongo litzake, ez Eliza beraren kontra.

(31) SALIS, J. R.: aip. lib., ib. Apaiza, bozaldietan eskuindiarren abotsa da. Faktu bat da hori: inguru ki haiekin eta han, besterik izatea posible izan zitekeen jakin beharko litzake, eta posibilitasun horren aurrekondizioak jakin.

erraza, beraz, askatasuna emateko nahi zen Errepublikak, elizjendearen lagunkide izatea.

Baina esan behar da, Frantzia bi partetan erdibitu baldin bada, ez dela honela gertatu elkar disezagutu gabe. Errepublikazaleek nahiko sinpleki epaitzen dituzte Eliza nahiz elizgizonak; eta berebat egiten dute katolikoek haiekin. Ferry errerepublikazale moderatuak, 1880an ere, honela zioen:

Hondamendien biharamunean, gure katolizismoa antzaldatu egin zaigu, aristokrazia intelektual amanazagarri bilakatu da; eta erasoka ekin die, ez 1789-ko printzipioei bakarrik, baita frantsezen tradizioei ere, eta mendez mende Eliza-Estaden arteko harremanak bidetzen dituzten lege zaharrei, eta erasoka dator gure libertade modernu maitatuen kontra ere... (32).

Ferry izan da noski III Errepublikaren izpiritua hobekien eman digun politikoa. Politikoa bai, baina filosofia bat ere bazekarkien harek. Jakingarria benetan Jaurès sozialista eta Ferry moderatuaren arteko elkarrizketa hura:

(32) DANSETTE, A.: aip. lib., 405-406. "A la veille de nos désastres, le catholicisme s'est transformé, est devenu une aristocratie intellectuelle menaçante, a déclaré la guerre, non seulement aux principes de 1789, mais encore à toutes nos traditions françaises, aux vieilles lois qui reglent depuis des siècles les rapports de l'Église et de l'État, à nos chères libertés modernes..." Hiriart-Urrutyk bazekien nori erasoten zion Ferryren heriotzekoan, *Bat gutiago hura idatzi zuenean*. Ikus artikulu hau *Mintzaira, aurpegia: Gizon!* "Jakin liburu sorta" (2), 1972.

- Zein da zure ideiala?, *galdetu zuen Jaurés-ek*.
Zu ez zara enpiriko bat. Zein da zure jomuga?
– Nere helburua? Jainko eta erregerik gabeko
gizadi bat eratzea da (33).

Eta bide horretatik ez zen erraza, katolikoek nola segi zezaketen asmatzea. Horregatik ezker-eskuinek elkarrekin lan egitea ez zen posible gertatuko, eta eliztarrek monarkismora joko zuten gehienbat.

Euskal Herrian aztergarri litzake Txahoren (34) eta, dirudienez, Zuberoako zenbait xokotako antiklerikalismoa. Harek, 1834-41 urteetako *La Sentinelle de Bayonne*-ri jarraituz, *L'Ariel*-ean ematen zuen apaizeriaren kontrako bere kezka. Aldizkariak 1844-52etan lanegin zuen, «catholiquets», «catholiquetteries» eta «catholiquetages» haiek aipatuaz. Kongregazioneak ez zituen bakan uzten, ez bait zitzaizkion atsegin josulagun, frantziskotar, eta beste «piztiak»:

Ah! la monacaille revient! Nous la chasserons,
foi de Navarrais!

L'Ariel hura errepublikazalea zen noski, eta 1848-ko Iraultza heldu zenean, *Le Républicain de Vasconie* eman zion izenburutzat. Txahoren borroka gogoak gorabehera, euskal antiklerikalismoak ez zuen herriagan oihartzun handirik ukan (35).

(33) “Mon but, c’est d’organiser l’humanité sans Dieu et sans roi”. Ikus DANSETTE, A.: aip. lib., 405.

(34) Txahori buruzko bibliografia “Boletín de Amigos del País”-ean, IV (1948), 493-506.

(35) MOREAU, R.: aip. lib., 500-503.

Frantziako Unibertsidadetik antiklerikalismoari eman zitzaion indarberritzean, Hiriart-Urrutyk *hargin beltzak* deituko zituen haiek parte nagusia ukan zuten. II Inperiogoak elkarrekin —eta bilera— libertatea ukatzean, *logia* masondiarrak izango dira legezko biltoki bakarra. Erreboluzioaz gero, orain izango du egokierarik onena masoneriak Frantziako erlijio historian esku hartzeko. 1860-az gero udaberri bizigarri bat ezagutuko du «anaidi» honek, Inperiogoaren kontrako gazteriak biltokitzak eta elkarte-ordekoztat hautatzen bait ditu *logiak*. Floquet donibane-garaztarra ere hemen eskolatu zen (36).

Masoneriaren ideologian bada, XIX mendean, eboluziorik. 1860-ko hamarrekora arte, izpiritualista da, baina 1864-az gero deismo zaharrak, positibismo ateo bati egiten dio leku. Hain zuzen, aldaketa honen ondotik eta urte hartaz geroztik utziko zitzaion askatasunari esker, errepublikazale gazteen aterbe da. Eta 1877an jainkogabeen taldea jabetuko da masoneriaren ideologiaz.

(36) Masoneriatik datoz III Errepublikaren hainbat gizon: Brisson, Pelletan, Gambetta, Bert, Clemenceau, Simon, Tirard, etab. Floquet-i buruz, ikus HIRIART-URRUTYren iritzia aipatu liburuan. Politiko honi (Donibane-Garazin jaioa bera) ukatu egingo dio Hiriart-Urrutyk euskaltasuna: "Arroz-tua zen osoki, eta goizdanik. Haren gogoia ez zen hemen (...). Ahaidetasunezko atxikimenduak balinbazauzkan, ez ordean euskalduntasunezkoak". Ez zaio atsegin euskaldun frasona: "eskualdun arnegatu edo arrotz axola gabe, hemen gaindiko frasonen gain doala" nahi luke kazetariak egin zitzaion harako homenaldi hura. Euskal masoneriaren kondaira, egiteko dadukagu oraindik (bestelako askorena bezelatsu). Ikus MICHEU-PUYOU, J.: aip lib., 111-113 horr.

Masoneriak, ordea, bere gorabidean sofritu zuen erorialdirik ere. 1857an, 244 *logia* ditugu; 1870erako zabalkunde handia izan du masoneriak: 392 *logia*; baina kontserbakoiek ezarriko duten *Ordre Moral*-ean (1871-79) beherakada bat sofritzen du: 301 *logia*, 1879an. 1880-ko hamarrekook, berriz, masoneriaren urterik onenak dakartzi. Gogora dezagun, denboraldi honetantxe ematen direla errepublikagintzaren pausorik finagarrienak (37) eta, urteotan, masoneria politika igobiderik onenetakoa gertatuko da askorentzat.

Errepublikaren etxegintza *hargin beltz* hauek bakarrik burutu zutela esatea gehiegikeria bat litzake noski; errepublikazaleen eta framasonen arteko elkar lanean, masonen parte zenbaterainokoa izan zen jakitea ez litzake lan samurra. Deputatuen Ganbaran hartutako erabakirik nagusienak *logietan* eztabaidatuak izaten zirena, badakigu. Bestalde, ministrorik masondiarrenek (Bourgeois, Combes) oso-osorik onartuko dituzte masoneriaren urteroko bilkuretako programak. Errepublikazaleen eta masoneriaren artean bada, beraz, ahaidekotasun hurbilik.

Errepublikazaleen gizarte pentsatzailea, masoneria da II Inperioaldian, eta horrelatsu —neurri tipiagoan izanarren— Errepublika garaian ere. Pentsakizun lanaren kabi izan baldin bazen (1864-70), Errepublikarekin, eta 1880-tik aintzinaakoan batez ere, ekintza lana hartuko du bere gain masoneriak: Frantzia zehar Errepublikaren

(37) LATREILLE, A.: aip. lib., III, 386-387.

predikariak izango dira *hargin beltzok*. Herrieta-ko izkribau, midiku, albaiteru, botikario eta irakasleek masoneriaren eta Errepublika-fedearen zabaltzaile izanen dira, herria Errepublikarantz itzularaziaz.

3.2. Desgaraiaren negarra: monarkizaleak

Lan horrek Errepublikaren ideia probintzietara eramán nahi luke. *Commune*-ren ondoren, irabazi zen Paris, lehenbiziko harmaz eta gero Errepublikaren beraren berrikuntzaz, ekonomia gora zihoala. Baina Frantzia ez zen Parisen hesparrutan bukatzen, eta errepublikagintzak osoa eta iraunkorra izan nahi baldin bazuen, beharko zen laguntza zabalagorik bilatu, probintzialdeak Errepublikaratuaz. Laboraria izango da probintzietako burgesia, hain zuzen 1880-ko urteetan, Errepublika indartuko duena. Eta burgesia honek segurantzia nahi du, zuhurtzia; handinahi izugarririk ez du, baina lanak eman dizkion ondasunak ez lituzke politika menturatan galdu nahi: ez horixe!

Honela doa Frantzia Errepublikan sartzen, gobernamentu honen barnean denek, frantses guziek, leku egokirik izan dezaten: ekonomi, jakitun eta harmagizonen «aristokrazia» *oportunistora*, egokierazaletasunera etorriko da; industrigile, merkatarí, nekazari jabeak eta maisuak *radikalismoan* ukanen dute beren abotsa;

enplegatu xumeek eta langileriak *sozialismora* joko duten bitartean.

Baina, politika bizitzari dagokionez, atxiki-mendu hauk aldagarriak dira. Izan ere gizartearen politika banaketa horretan bakoitzak bere asmoak eta gogoak ditu. Honegatik, Errepublikaren eboluzioan bada joera-lege bat: Errepublika, ezkerrera linburtzen eta irristatzen doa; monarkikoen Errepublikatik (1871-79), moderatuen Errepublikara (1879-97) eta radikalenera (1897-14) doa gobernamentua, sozialisten laguntza ere onartuaz (Millerand, 1899) (38). Baina eskuinak eskuindar jarritzen du, esan gabe doa.

Puy de Clinchamps-ek egin du berrikitan monarkizaletasunaren historia, eta hasera-haseratik honela esposatu du hauziaren gakoa:

Erregezaletasuna? Baina zertan gabiltza honelako itzulimitzulitan?, esango du urliak. Erregezaletasuna, sinpleki esateko, *erregearen alde* dagoena da. Segurki. Baina zein errege? (39).

(38) Ferry izan daiteke Errepublikaren ezkerreratze honen kontrapondu, berehala moderatu gertatzen bait zaigu, beste errepublikazale zenbaiten ezkerreratzea nabarmenagotuz. 1883-an radikalen kontra ekingo dio Ferryk: "Ezkerrean, hor da gure arriskual", hotsegiten du. Frantziako eskolagintzaren guraso honek ezker-eskuin ditu, beraz, etsaiak, burgesia oparobaten defendatzaile eta "maisur laiko" —dena batera— delako. Errepublika segurtatu denetik, bere baitan dituen kontra-joerek zatikatu egingo dute: lehenen, laikogintzaren egokierari buruz erdibituko da errepublikazaleria (oportunismoa eta radikalismoa); geroago, aldiz, gizarte-hauziari buruz (sozialismoari erantzun nahiaz).

(39) PUY DE CLINCHAMPS, PH.: *Le Royalisme*. Pa-

Eta azken galdera hau historiari begira egi-ten bada, ez litzake erraza handik zein errege hautatu behar litzakeen deliberatzea, koroedun bakoitza bere arabera bait da errege. Puy de Clinchamps-ek Luis XI (1461-1483) eta Luis XIV (1643-1715) gonbaratzen ditu: oportunistak, makia-belozale eta bakezale bata; zentralista, abertzale, gerrazale eta kasik gaurko diktadore bat, bestea. Non hauta? Iturburutik datorkion hauzia, XIX mendean monarkizaletasunak nahasiago bihurtuko du. Baina, puntu honetara heldu aintzinetik, jakin dezagun zer den erregezaletasun hori.

Monarkizaletasuna ez da dotrina bakar batean finkatzen. Bere funtsean, ez da dotrina bat, ez da programa bat, aurretik aztertu eta lagunartek herriari proposatzen dioten betekizun jakin bat. Ez da gobernakizun baterako programa bat. Bestalde, badu sentipenezko atxikimendurik eta halako esteta gozamen bat. Baina monarkizale-*tasunaren oinarri-oinarria herentziaren gorde-
nahia* da. Giza-joera honetan errotzen dira monarkizaletasunaren leialtasunik irmoenak. Monarkiak, herentziaren lege gisara jaso nahi du historia. Eta erregea, histori herentzia horri zor zaio, eta ez da inoren partiduko buruzagi, denentzat eta denen onerako da gobernari. Hau da monarki gobernamentuaren betebeharra. Baina monarkizaletasuna partidu bilakatzen da 1870-az

ris, 1967. 7 horr.: "Le royalisme? Mais, dira-t-on, pourquoi tant détours? Un royaliste c'est, tout bonnement, celui qui est 'pour le roi'. Certes. Mais quel roi?"

gero, eta partidu bat bilakatu den mogimendu hura honelatsu defini daiteke:

Ez da politika-pentsamendu iraunkor bati zaion atxikimendua, ez eta gizarte-etika bat, baizik-eta gogoeta eta aukerapen jarraibide bat: eta odol, ahaidekotasun batean elkartzen da hori dena (40).

1870-ean, Frantziako monarkizaleen buruzagirik axolazkoena *Hendrike V*-a da, Bordeleko duke eta Chambord-eko kontea. *Henri Dieudonné* 1820-an jaio zen, azkeneko hogeitabost urtetan Erreboluzioaren *printzipio hilezkorrek* gogorki laidotu eta zapaldu zuten familia batean. Haren errege-eskubideak ez zetozen populuagandik, Jainkoaren berarengandik baizik. Pontu hontaz ongi segurtatua zegoen *Henri Dieudonné*. 1873-an errege koroea eskaini zitzaionean, ezezko esplikagaitz hura eman baldin bazuen, agian honexegatik izan zen. *Hendrike V*, «erregea», ez zen mundu berria konprenitzeko kapaz, eta emazteak ez zion deus lagundu buru hertsia hura argitzen.

Baina monarkizaleen arteko *Hendrike V*-aren buruzagitza ez zen eztabaida gabea gerta. II Inperioaldia erortzean, hiru talde ditugu monarkizaleetan: borbondiarrena (*legitimistes* deituak), orleandiarrek (*Orléans*-go *Louis Philippe I*-aren jarraileak) eta bonapartistak (41). Bonapartis-

(40) PUY DE CLINCHAMPS, PH.: aip. lib., 10-11: '... il n'est pas l'adhésion à une pensée politique continue, ni à une éthique social, mais à une suite de pensées et d'options sans autre lien que la consanguinité (...)'.
 (41) 1873-an, Pariseko Konteak (hau da, orleandiarren

tek galdu berria zuten agintea, eta beste bi taldeak ziren indartsuenak. Erregegai bakoitzak politika-grina desberdinak zekartzien haurtzarotik. Pariseko konteaz honela idazten zuen norbaitek 1873-an: *Bere ama protestanteak hezia da, eta, ezpairik gabe moderatua izanarren, bera ere libre-pentsatzaile bat da, baina fanatismo klerikaletik eta positibismotik berdintsu aldendua*. Borbondiarrek, berriz, sineskai zaharrak jaso dituzte, eta ez da harritzeko jauntxo laborarien bihotz xaloak irabazita izatea. Orleandiarrek, hirietako jaun eta burgesiatik datoz; egin duten beren Erreboluzioa eta eratu duten burges gizartea gordetzeko baliatu nahi lukete Elizaz: ez dira arras «garbiak». 1873-an ukan zuten monarkizaleek (ez noski bonapartistek) aukerarik ederrena; 1871-z gero gehientasun handi bat zuten Asanblean (400 erregezaile, 200 errepublikazale, 30 bonapartista). Alabaina, Chambord-eko konteak, esana zedukan ez zuela izan nahi *le roi de la révolution*. 1873-ko abuztuaz gero elkartu ziren monarkizaleak, baina bideak nahiko irekiarren, jakin egin behar zen lehenik Frantziak zer nahi zuen, nolako monarkia. Chambord-eko kontesak ba zeduzkan bere susmo txarrak:

buruzagiak), Chambord-ekoari homenaldira egin zionez gero, bi erregetiar taldeak elkartu egin ziren (1873-uztaila-5), baina jaioberri zela hil zen elkartasun hau: delako ikurrin zuriaren hauzia (Errejimen Zaharrarena, alegia) Hendrique V-ak plazara atera zuen arte iraun zuen bakarrik (1873-urrila-23). Ikurrinaren atxakiarekin hondatu zen Frantzian monarkia agintartzeko egokierarik onena. Chambord-eko kontea (Hendrike V, «erregea») hiltzean (1883), borbondiar eta orleandiarrek buruzagi bakarra ukanen dute: Orléans sortetxeko oinordekoa gertatzen da «errege», Pariseko kontea «Felipe VII».

Haren begiek ez zuten deus maite harako irudi hura: Erreboluzioaren eta erlijio gabetasunaren buru tzarra tente zeramakien Frantziaren hidra sinbolua, alegia (42).

Monarkiaren berritze eguna, hala ere, izendatu zen azkenean: 1873-ko azaroaren bosta, Chesnelong eta monarkizaleek autolotua zuten dena, bozketa bakoitzean aurrerakada bat irabazten bait zieten errepublikazaleek, eta urduri zebiltzen haiek. Baina Hendrike V-ak berak erabaki zuen dena, lehenagotik esana zedukan bezalaxe:

Ez, ez dut utziko inork ikurrin zaharra eskuetatik ken dezaidan: Hendrike IV-aren, Frantses I-aren, Arc-eko Joanaren ikurrina. (...). Frantsesok: Hendrike V-ak ez du zokoratuko Hendrike IV-aren ikurrina (43).

Zorioneko ikurrina, ordea, zuria zen, zuri-zuria, Iraultzarik egin gabea eta 1873-an ez posible Frantzian holakorik. *Et le 20 de novembre, le comte de Chambord quittait la France à la nuit, et dans la nuit*, ez bait zedukan harrez gero Frantzian zer eginik, Aita Beck josulagunak esan zuen bezala (44). Horrelaxe bukatu zen esperantzaren

(42) PUY DE CLINCHAMPS, PH.: aip. lib., 39.

(43) PUY DE CLINCHAMPS, PH.: aip. lib., 40: "Non, je ne laisserai pas... arracher de mes mains l'étandard d'Henri IV, de François Ier et de Jeanne d'Arc... Français, Henri V ne peut abandonner le drapeau d'Henri IV".

(44) PUY DE CLINCHAMPS, PH.: "Nous comptons sur le comte de Chambord, il n'a pas su vouloir, maintenant, il ne lui reste plus qu'à mourir".

historia (45): geroago, 1883-an orleandiarrek Frantziako monarkiaren herentzia eskutaratu zutenarako, beranduxko zen.

3.3. Geroaren erakarmena: errepublikazaleak

Bazuten, ikusi denez, programa bat, eta baita indarrak ere. 1871-75eko gobernamentuaren konstituzioa Errepublikaratzeko eginahaletan dihardute, Errepublika oraindik monarkizaleena bait da. Uste hauetan bozketa bakoitzak ur berriak ekarriko ditu eraikitze-edo dagoen Errepublikara: 1871-ko uztailean, 300-dik gora ditugu errepublikazaleak Asanblean (gehienak modera-
tuak) eta 1873-ko apirilean areago: Pariseko hi-

(45) Chambord-eko konteagan monarkizaleen ideia ezagunak elkartzen dira; baina, hain zuzen, ideia hainbat dira sentimendu, eta sentimendukeria honetatik galtzen zaizkigu katolikoak ere. Hendrike V, Jainkoak hautatua da Frantziak bere burua salba dezan, erresuma bera ere Jaunak aukeratua bait da. Probidentzi zaletasun honek erakarmen berezia izango du katolikoengan. Hendrike V-a bera honela mintzatuko da: "Ma personne n'est rien; mon prince est tout. La France verra la fin de ses épreuves quand elle voudra le comprendre. Je suis le pilote nécessaire, le seul capable de conduire le navire au port, parce que j'ai mission et autorité pour cela (...). La France ne peut pas périr, car le Christ aime encore les Francs, et lorsque Dieu a résolu de sauver un peuple, il veille à ce que le sceptre de la justice ne soit remis qu'en des mains assez fermes pour le porter". (Ikus Hendrike V-ak Chesnelong-i zuzendu zion eskutitzean. PUY DE C.: aip. lib., 44). Zoritzarrez, hizkera hauek ez zuten Frantziako gizartearen geroa aski argitzen. Hendrike V-ak, *enfant du miracle* harek, ez zuen behar zen politika-senik.

ria ere errepublikazale ezkertiarren alde agertuko da.

3.31. Moderatuak

1877-an eskutaratzen dute agintza errepublikazaleek (46). *Errepublikazale moderatuak* ditugu. Negozioen eta laizismoaren Errepublika bat jaso behar da. 1875-az gero moderatuek ontzat ematen dute bi Ganbaren sistema (47). Moderatuentzat, Iraultza eta Errepublika bera ere ez dira izan-modu bakarrekoak. Iritzi honen bideetatik posibletuko dute «egokierazaleok» (*opportunistes*) Errepublika bera ere, errepublikagintza odol gudate bat izatetik gordeaz eta eginkizun bakoitzerako egokierarik aproposenak bilatuaz (48). Elizarekin, Napoleongandik jaso duten konkordatoa bere horretan gorde nahiko dute, beldurgarria bait zen haren indarra, libre uzteko, eta, denbora berean, harma beldurgarriago bat kenduko diote Elizai: *irakaskintza*. Moderatuek

(46) Une honetan oraindik ez dira Partiduak Alderdien arabera antolatu. Politika-pentsamenduaren eta ekintzaren hurbiltasunari dagokionez taldekatzen dira politikoak. Errepublikazaleak, eskuinetik ezkerrean honelatsu koka daitezke: 1. katoliko zenbait (Dufaure, Marcère); 2. protestanteak, nahiko banaturik (Waddington, Say, Freycinet); 3. izpiritualistak (Jules Simon, adibidez); 4. positibistak (Gambetta, Ferry); 5. materialistak (Bert, Clemenceau). 1879-85etako Errepublikagintzaren ondoren, egoera berriak dakartzien xede eta egarriek politika-koadro hau mogiarazi egingen dute. Ikus DANSETTE, A.: aip. lib., 402.

(47) *Loi du 75-février-1795* relative à l'organisation des pouvoirs publics. Art. 1er. Ikus GODECHOT, J.: *Les Constitutions de la France depuis 1789*. Paris, 1970. 331 horr.

(48) DANSETTE, A.: aip. lib., 407.

ere nahi dute Eliza-Estaduen arteko apartaketa, baina korrikarik gabe, aldiari garai onena bilatuaz. Moderatuak egokierazale dira.

Moderatu eta radikalen hauzia, eztabaida zaharra zen. Iraultza handian, 1789-ko eta 1793-ko ametsak elkarren kontrakoak gertatu ziren. Robespierren Errepublika nahi zen ala ez? Moderatuek onar ote zezaketen Clemenceau-ren hura:

Atsegin bada eta ez bada, frantses Erreboluzioa bloke bat bakarra da (49).

Moderatu egokierazaleek 1879-85 urteetan maituko dute beren politika programa, baina betebeharrak hori burutzen den heinean, Ferry, Freycinet eta Gambetta egindakoaren zaintzaile, jendarma, gertatzen dira. Errepublikak badu aristokrazia berri bat, ekonomiarena, eta honen menpe eroriko da moderatuen politika. Errepublika kontrakoek eta radikalek iratzarri dute arriskua. Hiriart-Urrutyk aipatzen digun *Drumont* hura (50) orain hasiko da (1892) eskuinetik Errepublikari erasoka: Errepublika, lapur-zulo dela esango die frantsesei. Drumont antisemita baino antiplutokratago da (51). Bestalde, errepublikazale radikalek lehendik ikusia zuten arrisku hura, eta bestea: sozialismoarena.

(49) "...que cela nous plaise ou que cela nous choque, la Révolution française est un bloc... un bloc dont on ne peut rien distraire". DANSETTE, A.: aip. lib., 407. Ikus BOUJU, DUBOIS: aip. lib., 24-ean dadukazu errepublikazaleen banaketa.

(50) Ikus HIRIART-URRUTY: aip. lib.

(51) BOUJU, DUBOIS: aip. lib., 44-45.

3.32. Radikalak

Radikalismoaren lehen belaunaldia eskarmendu gaizto baten zamapean zetorren: 1848. Guzien boz-emailetasunak, sufrajio orokarrak, ez zuten II Errepublika salbatu. Demokrazia ez zitekeen, hortakotz, boz-emailetasun horretan bakarririk finka; behar zen besterik eta Proudhon-en *démocratie, c'est démopédie* hura bururatu zitzaien radikalei. Honela, ba, 1848-ko eskarmenduaren ondotik beste utopia bat sortu zuten, Allain-Targé-rena:

Gizon guziek –gai beretan eskolatuak, gauza beretan pentsatzen dutela – ukanen diote elkarri errespetorik eta berdintasun osoz hartuko dute elkar, nahiz Ameriketara nahiz Suizara izan (52).

Bigarren belaunaldi radikala 1860-az gero jaiotzen da, eta erabateko libertade bat nahi du, Thiers-en «beharrezko libertadeak» urrun utzita. Libertade gosearen joerazko kezka, radikalismoagan sozialismoarentzako sarbidea gertatuko da gerora, mende azkenetan. Baina sozialismoarekiko harremanen aurretik radikalismoak —egokierazaleen politika-erreformez baliaturik— *homo politicus radicalis* haren albistea Frantzia osoari zabalduko dio, probintzietako botikario, midiku eta holakoak bereganatu eta hirietako apaiz eta jaunen kontra ekinaz (52 bis).

1880-an sortzen du Clemenceau-k bere *La Jus-*

(52) NICOLET, C.: aip. lib., 17.

(52 bis) Ikus SORRE-n sarrera *E. Combes. Mémoires* liburuan. Paris, 1956.

tice egunerokoa, Belleville-ko programa jatorrizko garbitasun ederrean eman dadin (53). Urteotan atzetik ari da eztenka radikalismoa, Gobernu zenbaitetan parte hartuaz, baina moderatismoari aurpegi emateko aukerarik galdu gabe. Izan ere, radikalak bait dira Errepublikaren «garbizaleak» eta atezainak, «kintakolunistarik» sar ez dadin (gogora *Ralliement* arriskutsu hura). Lehen Gobernu osoki radikala Bourgeois-ena izanen da (1859-96), baina ordurako radikalismoak eginik zuen lan sakona Frantziako eskualdeetan, eta 1890 ingururako jende hainitz bereganatu du. 1893-1902etan, Dreyfus-en hauzia tarteko dela, Radikalismoak borroka-idea zaharberrituekin bilduko ditu jarraileak: orain ere, eskuinean da etsaia (nazionalismoa, klerikalismoa, antisemitismoa, etab.). Urteotan goranahi bizkorra dakar 1901-an Partidu bilakatuko den Radikalismoak (54), eta dena beharko du 1901-5 urteetako programa politikoa aintzina atera dezan. Radikalismoaren ekintzarik zindoena ez da, ordea, lege

(53) Ferry moderatuak utopiatzat zedukan errepublikazaletasun berriaren programa hura: "Rédigé dans la servitude, il comportait un brin d'utopie, la seule consolation qui nous fût permise". NICOLET, C.: aip. lib., 28.

(54) Bozaldi bakoitzean ugaritzen dira deputatu radikalak: 46 deputatu 1881-ean; 100, 1885-ean; 112, 1889-an; 49 sozialista eta radikal-sozialista, beste 122 radikalekin, 1893-an; baina moderatuak dira oraingoan, inoiz baino areago, irabazle, 317 deputatuekin. 1898-an bozketak hiru bloke ematen ditu: ezkertiarrek 235 deputatu dituzte (57 sozialista, 74 radikal-sozialista, 104 radikal), gehientasunera heldu gabe bada ere. Baina radikalak izanen dira garaile 1902-an, "ezkertiarren blokean": 340 aulki ezkertiarrentzat, eta hauetatik 233 radikalentzat nahiz radikal-sozialistentzat.

nahiz erabaki jakin bat izango, Frantziaren beraren errepublikaratzea baizik. Eta hauxe aitortuko dute bai radikalek eta baita haien etsaiek ere: *La France entière est radicale*, zioen Barrès-ek.

Nondik sortu da, alabaina, radikalismoaren erakarmen hori? Radikalismoak badu bere hezikuntza-metodologia bat, jendea eskolatzeko bide bat. Partiduaren basia ez da indibiduz osatzen: komiteak egiten dute, gero, kantonamenduko komiteok talde zabalagoak osatuaz. Eta, departamendu bakoitzekoek, bildurik, Federazioa osatzen dute. Eta Partiduari lot dakizkiokeen aldizkariak, Federazioaren menpe gelditzen dira. Federazio denek hartzen dute parte Kongresuan, eta han «Komite Eragilea» aukeratzen. Apostolutzat bat da Errepublikagintza eta nazioaren urbi denak zeregin honetara zuzentzea da Radikalismoaren eginbearra. Nazioa eta Radikalismoa ez dira gauza bat bera, baina, hor nonbait dabiltz, ekoazio bat egingo ote duten:

Alderdi Radikala eta Radikal-Sozialista ez da Partidu bat, hitz honen esanahi hertsian; libertatez eta bakean eratu nahirik ari den demokrazia bera da (55).

Iritzi hau, Estatuarekiko eta nazioarekiko Partiduaren agintarismo, autoritarismo, batetarako bide labaina izanarren, Alderdi Radikalak as-

(55) NICOLET, C.: aip. lib., 38: "Le Parti Radical et Radical-Socialiste n'est plus un Parti au sens étroit du mot, c'est la démocratie française elle-même, tendant à s'organiser dans la liberté et dans la paix", Léon Bourgeois-ek zioenez.

matu zuen bere ezkerraldera behinik behin ateak irekitzen. *Sozialistek*, aurkitu zuten itxaropen biderik Radikalismoan, egon ere, «egokierazaleen» aldean, radikalak oso burumutur batetan bait daude XIX mendearen azken hamarrekoan (56). Clemenceau-k aspaldidanik (1880) zuzeneko zergak ken zitezela eskatzen zuen, eta 1893-ko sozialista garaileek horixe bera eskaini zioten boz-emaileari, eta ikusi dugu langileriak ere Radikalismoaren antiklerikalismo bera-edo zedukala barnean. Radikal ezkerrekoenak, hala ere, ez zuten marxismoa maite, Proudhon baizik, joeraz, anarkismora bait doa Radikalismoaren sozial gogo (57). Berez, Radikalismoak ezkerre maite du, moderatismoak eskuina bezala.

Errepublika eta Frantziako gizartea bideak urratzen zihoazen, etorkizunaren entsegutan; baina, Eliza-Estaduen arteko hauzien berri izan dezagun, jakin beharko da jakin non zen Eliza ere, Hiriart-Urrutyren kezkek euskal elizgizon bate-nak bait dira.

(56) NICOLET, C.: aip. lib., 31.

(57) Azkenean, Proudhon-ek eta Alain-ek, biek, daduka-kiote beldur beltza agintarismoari: Estadua eta agintea noiz-nahi gerta eta bilaka daitezke gizabanakoaren etsai eta zantzaile.

4. «La France catholique»?

gizonak hil eta elizbixtuta deherkatu Elizaren eta Erreboluzioaren zereak ez zirenez bat.

Elizak gizonenakiko mesfidantza bat vedutuan, otonoan liburtasun mugatua. Gizonak, hirigizonak, gidatutako behar dira: apazak, agintaria. Hauak zuten deherkatu gizonen gaxakok diruaren xalantza-uzaintza eta aldarre gaitzaren, gizonak ondorek bati dabiliz. Irudikarizkoak trusonino dira: gizonak nekatasunak eramanago da gaitzaren, heldura batera, biktinatzen otonoagora. Bonapartek baxion mirespenik Elizari, eta hontax baltatu nahi izan zuten Konkordata ixteratuz (1801), baina apazaria, kleroa, estamentu baxia ixtertu eta mangabe. Gaitzaren behar zertan, baina Monarkia Txiki Kristau bertutan ere; Monarkia bertitans ere egindako litaulta baltaxkotat hartzen baxiatu bati xegon. Xortxarrez aski xen baltika xegokietaxkotat. Iru, oportunitas moa alerik, xepait elixgizonaren bertutan gaitz-tor bixtiko. Hauak gero Elizak, Estaduten hon-tes, Erromaren atzer bixtako du, utramontes- nismen: eme-entzik, itegi baxian, igoko da Fran- tziako Errepublikako, katolikoen xeruan errom-

III Errepublikaren

jaiotorduetan baziren oraindik Frantziako Eliza barnean 1789-ko Iraultzaz ezer guti zekite- nak. Maiteago zuten seguraski galdutako teokra- zia errespetagarria: lege eta fede (*loi et foi*) el- kartuta, gizartea gobernatzen, egia sakratuak Erregearen babes epelean gordetzen, heterodosia zigortzen... Egia bakoitzari, zegokion tokia eman- go zion Errege Txiki Kristauak. Baina, 1789-az ge- ro, ames hauk iheskeria bat ziren: Erreboluzio harek Elizari ondasunak kendu bait zizkion, eliz-

gizonak hil, eta elizbizitza debekatu. Elizaren eta Erreboluzioaren xedeak ez zetozen bat.

Elizak gizonarekiko mesfidantza bat zedukan, onenean fidantza mugatua. Gizonak, hirigizonak, gidariak behar ditu: apaiza, agintaria. Hauek zuzen dezatela gizartea gizakiok ditugun zalantza-malantza eta aldarte gaiztotan, gizonak ondoezik bait dabiltz. Iraultzagileak rusoniano dira: gizona askatasunak eramango du garaipenera, heldura batera, bikaintasun oparoagora. Bonaparte-k bazion mirespenik Elizari, eta hontaz baliatu nahi izan zuen Konkordatoa izenpetuaz (1801), baina apaizeria, kleroa, estamendu berezia izatera eramangabe. Galikanismoa behera zetorren, baita Monarkia Txit Kristau berrituan ere; Monarkia berrituena ere egindako Iraultza haintzakotzat hartzera bortxatua bait zegoen. Zoritxarrez aski zen politika «egokierazalekeria» hau, oportunistoa alegia, zenbait elizgizonengan idurimen gaiztoa bizteko. Harrez gero Elizak, Estaduaren kontra, Erromaren aterpea bilatuko du, ultramontanismoa; eme-emeki, ilargi betean, igoko da Frantziako, eta Europako, katolikoan zeruan erromanismo hori. Geroz eta gehiago, XIX mendean, Eliza katolikoaren ardatza eta bizitokia eta ameslekua Erroma izanen da. Halabeharrean (bai patu latza hauxe!), Europako liberalismo denak Erroma haren kontra joango dira.

Elizak ere baditu, ordea, gizon batzu liberalismoa barnetik maitaturik, pentsamolde hau onuragarri ere izan daitekeela uste dutenak. Frantziako Elizak eman zituen gizon sonatuak: La Mennais, Lacordaire, Montalembert eta beren

L'Avenir hura (1830-1831); Lacordaire, Ozanam eta beren *L'Ere Nouvelle* (1848), Montalembert eta Dupanloup II Inperioaldian... Baina katolikoera hau bakarra zen Elizan, eta gaizki ikusia gehienetan. 1870-ean (*Syllabus*-a tarteko), Eliza-Erreboluzioen arteko sintesia egiteko zegoen oraindik (58).

4.1. Gizartearen deskristaigintza

Suma daitekeenez, frantsesak dilema bati erantzutera bortxatuak aurkitzen dira: Eliza ala mundu berria? Elizatarrei ere eupada horixe botatzen zion inguruak, eta Eliza harek, egia esan, bazedukan semerik erantzun beharraren zama bere gain har zezan: 1870-ean, hamarretatik bedertzik katolikotzat zedukan bere burua Frantzian. Librepentsatzaileak 80.000 bat ziren bakarrik, protestanteak 60.000, judeguak 50.000, eta katolikoak 35.000.000-tik gora. Gobernamentua errepublikatzeko garaian ere (1875), bazen apaiz bat 639 bizilagunentzat eta erresumak bazituen 55.000 apaiz sekular (1876), 30.000 erlijioso eta 127.000 serora (1877) (59).

(58) DANSETTE, A.: aip. lib., 371-373. Cfr. AUBERT, R.: *Le Pontificat de Pie IX*.

(59) LATREILLE, A.: aip. lib., 423-433. Ikus DANSETTE, A.: aip. lib., 382. Bertan ikus daiteke apaizeria sekular eta komentutarraren arteko harremanen berri. Ultramontanismoaren marigora harek badu komentutarrekin zerikusirik. Hauek Erroman indar apartekoa zuten eta elkartasun batean lanegiten zuten; Frantzian, berriz, Konkordatoaren arabera, gotzainek ez zezaketen elkartuta indar-egin.

Le Bras-ek eman digu Frantziako erlijio-bizitzaren geografia. 1880-aren inguruan, praktikari buruz bost eskualde-motatan berezten da Frantzia. Erlijio praktikaren berri hiru mailatan eman daiteke: asteroko praktikaren eremuak, urte haroetakoenak, Elizatik apartatuenak. *Praktikatzaileen* eremuak ondoko lauok ditugu: 1) Bretaina, Vendée, Maine ipar-mendebaldean; 2) Flandes; 3) Alsazia, Lorena, Vosges-en goialdeak, Franko-Konterria, Saboia; 4) Euskal Herria eta Biarno. *Erdi-praktikatzaileak*, «Massif Central» eta honen inguruetan daduzkagu. Frantziaren erdialdeak *urteharotiar* dira, eta Parise erdiunetik zurrunbiloan zabaltzen dira eremuok: ipar-ekialdeetara Aisne eta Ardennes-etaraino, ipar-mendebalderuntz Normandiatik Atlantikoraino, eta hegoaldeetara Charente departamenduetatik Bordele zehar Biarnoren mugetaraino. Urteharotiar eremu hau Rhône-n arrua barna Bourgognetik, Mediterraneo-raino doa itsaso honen kostalde osoan hedatuaz. Eskualde *apartatuak* Parisen hegoaldeetan eta Limousin aldetan (60).

Eskualde banaketa hau (1880-koa) Antigoaleko Errejimenetik dator, eta funtsezko aldaketarik gabe iraungo du gure egunetaraino. Erlijio-geografia honek kausa eragile asko ukan ditu: XIX mendean irakaskintza publikoa zabaltzen doa, prentsa hedatuagotzen; komunikabideak aurrerakada handia dakarte eta 1872-az gero soldaduskara bortxatuak dira frantsesak. Garaiko mundu berriak gizartea antzaldatu egiten du, eta erlijiodunak, horren baitan bizi direnez, pentsa-

(60) LE BRAS, G.: *Villes et campagnes*. 290 horr.

-moldeen alde nahiz kontra bizitzera hartaratuak dira. Bere baiezenaren mugak sobera neurtu ga-be ere, nahiko poliki esaten zion Renan-ek Berthelot-i 1875-ean:

Jirabira-erdi arraro baten testigu gara orain: aspaldidanik laborariak sostengatu duten katolizismoak, horien laguntza galdu egin du, hirietako populazioarena galdu ondoren (61).

Hiriak deskristautuak zeuden Errejimen zaharraren erortzean, eta hain zuzen hiriak ziren, populazioaren aldetik, gora zetozenak: 1846-an, Frantziako jendetzaren hiru laurden (% 75,6) landetan laborantzatik bizi da, baina 1872-an % 68,9 dira nekazariak. Ipar Euskal Herriak ere nolabait (eta oso nolabait) hola moduzko demografi aldaketarik badu; Ramuntxo Kanblong-ek erakutsi digunez XIX mendean Euskal Herriak (Lapurdi, Behenafarroa eta Zuberoak) nahiko ugaritu du bere populazioa: 126.493 bizilagun ditu 1801-an eta 182.002, 1911-an (hori, 1832-1891 urteetan, kasik 80.000 euskal seme herbesterratu direla!). Eta ipar Euskal Herrian ere, hirietara edo «hiri-ordeko» den kostaldera doa jendetza; euskal lurbarneak itsasaldera egiten du: mendialdeak 100.000 arima ditu 1876-an, eta 35 urte geroago (1911-an) xifre haren azpitik dago;

(61) RENAN-ek Berthelot adiskideari egindako eskutitzean: "Nous assistons à une volte-face étrange: le catholicisme, si longtemps soutenu par le paysan, a perdu son appui, après celui des populations urbaines". 1875-ean, hemen dioena ez da oraindik egia, baina gizarte-aldaketaren korrontea hortik zihoan.

itsasaldea, berriz, azkartzen doa urte beretan, 59.000-tatik 82.000-tara igoaz (62).

Parisek, 1881-an, 2.800.000 bizilagun daduzka, eta horietatik (Tainek 1890-ean dioenez) % 2 gizonetzok eta % 8,3 emakumezok praktikatzen zuten erlijioa. Aitzitik, kanpainak hobekiago gordetzen zuen erlijio zaharrari zion atxikimendua. Hirietako langileriak eta artesauak utzi dute gehienik erlijio-biziera, baina II Errepublikatik zertorren burgesia aberastua Elizara itzuliko da berriz hirietan: hasieran, itzulpen hau azalzurikeria hutsa da, baina laister benetazkoa izanen da elizaratze hau. 1880 urte inguruan, III Errepublikaren irabazbideei esker, beste burgesia berri bat sortzen da, errepublikazalea eta kontraapaiserismoz betea (63). Nabarmen ikus daitekeenez, erresumaren deskristaugintza aurreratzen doa,

(62) Ikus KANBLONG, RAMUNTXO: "Gure ekonomia-
ren hiru pondu". *Ipar Euskal Herria*-n. "Jakin sorta" (1). 68-74.
Jakin eta aztergarriak dira lan honetan ematen zaizkigun da-
tuak, eta hasi duen datu-bilketa hau aurrera eraman dezala
eskatuko genioke autoreari, ipar Euskal Erria *Basses-Pyrénées*
departamenduan "gal" ez dakigun. Bestalde, jaso ditudan xi-
freok oraingoz ez dute Euskal Herriaren deskristaugintza po-
siblea deus argitzen: erlijio-soziologiaren inkesta historiko bat
beharko litzake horretarako. Zein koerlazio ukan ote zuten
hiru datuok?: barme-emigrazioak, emigratzaileen deseuskaldun-
tzeak eta kostalderatu zen jendearen deskristautzeak (eta, nahi
bada, politika atxikimenduak). Aipatu diren Euskal Herriko
demografi aldakuntzek, zoritxarrez, ez digute oraindik hemen
darabilgun desgristaugintza gertatu zenik eta nolatan izan zi-
tekeenik esaten. Inbestigakizunik balitzake hor. Beste lekuta-
rako egin direnen antzekorik beharko litzake: ikus SEVRIN,
E., *Mgr Clausel de Montals*. Chartres, 1955.

(63) Ikus DANSETTE, A.: aip. lib., 386-387.

eta, katolikoen aburuz, fenomeno honek badu esplikabideren bat.

Esplikabidea, inolaz ere, Erreboluzioa da eta honen oinarrietan finkatu nahi zen Errepublika. Gobernamentu honek bi ekinalditan burutuko du Elizaren kontrako langintza: 1879-1886ko era-soaldia ikastolen aurkakoa izango da bereziki, 1895-1905ekoan Kongregazioneen kontra joan eta Eliza-Estaduen apartaketaraino helduko da. Persegizio hauk ez dira Estadia eta gizartea osoaren krisi batetik sortzen, 1792-99an bezala, Frantziak XIX mendean ezagutuko duen bakealdirik luzeena orainoa (1870-1914) baita. Ez, orain, aintzina egin nahi duen Estadu batek erasotzen dio Elizari. Honegatik antiklerikalismoak zihurtasun bat eman die katoliko gehienei: seguru dira, ez da posible Errepublikarekin bat etortzea.

Gizartea erlijio gabetzea, ez da apaizeriarentzat soziologi gertakizun bat, apaizek nahiago dute moralista bezala konprenitu: bekatu bat da, arrazoinalisten bekatua, Harrokeria. Eta fedekapena ez dator, diotenez, herritik, ez da jende arruntagan jaio, goiko libre-pentsatzaileengan baizik. Baina gero, herriak, pentsakizun eta esanbideak eduki dituenean, XVIII mendeko ilustratuengandiko logikak uste zuen baino urrunago ihes egin du. Herriaren iritziak eskola daitezen, egunkariak sortu dira eskualde eta probintzietan.

Deskristaugintza honetan, Euskal Herria gizarte aparte bat baldin bada ere, kanpokoaren bildurrak eztenkaturik ari izango dira bertako apaizak. Proudhon-en ustetan, 1830-aren inguru-

an hasiko zen Frantziaren deskristaugintza. Eta honela dio diagnosian:

Garai hontaz gero, libertadekeria zabaltzen doa eta federekin batera zabartu ziren ohiturak ere (64).

Landetako apaiza tradizio sistimak berak irentsi du: herriak ez du onartzen apaiz eragilea, maiteago du betikoari jarraituz loa galaraziko ez dion bat. Eta berrikuntzak, Eliza barnetik egin partez, hirietako gizarte deskristaututik datoz. Apaiza, ohiturazko elizkizunetan gorde eta mugatua bizi da, edo egon dago. Apaizeriak —batez ere, menperatzeko zuen makurkeria tarteko zela— ez zuen asmatu Frantziako laborarien erlijio-sentipena eta fedea gordetzen (65).

Frantziako gizartea deskristautzen ari zen, baina Elizari salbabiderako behar zuen autokritika falta zitzaion. Kleroak, «La France Catholique»-ren ametsa, errealidadetzat zedukan XIX mende azkenetan. Egia esan, ikusi ikusten zen aldaketa, baina nahiago zen ameskai hartaz mintzatu. Hortik itsutasun harrigarri bat dute kato-likoek; hala zioen E. Keller-ek 1880-an:

Erreboluzioak badaki bere ezinaren berri, eta baita etorkizuna Elizari dagokiola ere. Erraustu den gure gizartean dena hondatzen ari da, eta Eliza

(64) “Depuis cette époque, le libertinage a été croissant et les moeurs se sont affaïssées avec la foi”.

(65) LATREILLE, A.: aip. lib., 362.

gaztetu eta biziagotzen doa [Kongregazionei esker, esan nahi zuen] (66).

Bozaldietan, 1889 esate baterako, ikusten da frantsesak ez datozela ados elizgizonekin; baina inork ez du Frantziaren katolikotasuna dudakotzat jo nahi. Eginahal guziak egin beharko dira bozaldi bakoitzaren ondoren betiko elekzio gale-
ra hau esplikatzeko, Frantziaren fedegabetzearen esplikabidea ez bait da onartzen. Ez da, beraz, politikarako ere, begi zolirik. Hala ere dominikotar batek emanen ditu (1881) ondoez haien egiazko eta funtsezko arrazoinak:

Zientzia da biziera modernua; badiogu halako susmo gaiztorik eta zokoratu egiten dugu; libertade politikoa da biziera modernua; eginhala guzia eman dugu, hura zapaldu eta gure anatemen tximistaz jotzen; demokrazia da biziera modernua, eta gu partidu zahar guziekin elkartu gara (67).

(66) “La Révolution est convaincu d’impuissance et l’avenir appartient à l’Église... Alors que tout s’effondre dans notre société pulvérisée, l’Église est plus jeune et plus vivante”. Keller buruirekia izanarren, kritika hertsia honen alderdikeria barkagarri zaio, 1880-an ez bait ziren Kongregazioneen geroko desegintza eta kristau eskolen kontrako erasoak ikusten. Hala ere, esan behar, Keller-ek ere itsumen bera sofritu zuen: ez zuen eduki deskristaugintzaren kontzientziarik.

(67) “La vie moderne, c’est la science; nous la suspectons et nous la délaissions. La vie moderne, c’est la liberté politique; nous avons tout fait pour l’écrasser et la foudroyer sous les anathèmes. La vie moderne, c’est la démocratie. Nous sommes alliés à tous les vieux partis”. Ikus DANSETTE, A.: aip. lib., 397.

Ausartegia zen honelakorik esatea, eta isilarazi egin zuten Aita Didon. Interpretapen hau ere motxa da noski, ez bait ditu gizarte eta ekonomi aldaketak behar litzakeen heinean neurtzen, baina ukaezinezko egia batzu ematen zizkien behinik behin katolikoei (68).

4.2. Antinomia baten zurrunbiloan

Erreboluzioaz gero, elkarri xaxaka bizi ziren bi Frantzia zeuden. Bakoitzak bere gizarte molde maite zuen: bata, apaiztiar ideiaz egindakoa; bestea, ideia laikoz moldatua. Frantziaren arima erdibiturik bizi zen. Eta ez jakin, bion bakera posible izango zenentz.

Alemaniko *Kulturkampf*-ean bezala, Frantzian ere bi zibilizazio-era desberdin (kontrako?) jarri dira elkarren aurka. Eta hurbil den borroka honen kontzientzia badute bi alderdiek. Katolikoek Frantziako historiari begiratuko diote, izan denari, lehenaldiari. Errepublikazaleentzat atzerakoiak izanen dira. Hauek, berriz, ez dute atsegin historia zaharra, berri bat laketago dute, geroari begira bizi dira, eta itxaropen fedetsu hau dute beren indar. Gizartea, eginkizun da bereriki errerepublikazaleentzat. Haiiek, katolikoak, erregetiar izango dira gehienbat; hauek aitzitik, Errepublika gobernamentua nahi dute.

Elizak ezin du ontzat eman —hala dio Pio IX-ak— zibilizazio-era berria. Ikusi dugu *Sylla-*

(68) Ikus LATREILLE, A.: aip. lib., 299.

bus haren mintzaera. Ez da erraza Elizaren eta garaiko munduaren ezkontza. Nondik jo ote liteke, nolabait ere elkargana daitezen? Ideia zimentarriak berak ere kilikolo daduzkagu. Hipotesi eta tesiaren teoria ematen dute katolikoek:

Tesiak zera eskatzen du: «Printzipio mogikaitza hertsiki gorde behar da, eta irakaskintza, hari zorrozki lotuko zaio». Hipotesiak, berriz, bestea dio; «Ingurumariak beharturik amor ematea, beharreko nahiz kontseilagarri gerta liteke» (69).

Honela, Ipar Ameriketean, katolikoak minoria bat izaki, hipotesia erabiliko dute; baina Frantzia, katoliko liberalentzat hipotesia baliagarri izanarren, katolikoek komunzki tesia maiteko dute. Errepublikazaleak ez diote Elizari bikoiztasun hau barkatuko, eta ironia goxoz gomendatuko dute «teologia-berria» (70). Errepublikazaleentzat, jokabide hau ez zen batere jatorra, ez zen egiatia. Leon XIII-ak katolikoei errepublikaratzea eskatu zienean, radikalek —ordurarte esanak eta eginak ikusita— ez dira *Ralliement* delakoaz fidatuko eta kintakolunistatzat hartuko dituzte «ralliés» guziak.

(69) Ikus DANSETTE, A.: aip. lib., 313. Honela argitzen zuen Mgr de Mérode-k teoria hau: “Personne n’admire plus que moi l’Apollon du Belvédère; mais quand je me commande une paire de souliers, ce n’est pas sur le pied de l’Apollon mais sur le mien que mon cordonnier va prendre la mesure; voilà la thèse et l’hypothèse”.

(70) “La thèse c’est de brûler M. de Rothschild; l’hypothèse, c’est de dîner chez lui”.

4.3. Katolikoak politikan

Errepublikazaleek, apaizerismoaren tresna bezala ikusiko dute Eliza. Klerikalismoak bere asmo eta gogoetara menperatu nahiko luke gizartea, eta Elizaz baliatzen da hortarako, pentsatzen dute errerepublikazaleek: herri xumea eta errege-tiar alderdiak apaizeriaren eskumakila dira. Izpiritu-interesen zerbitzuan erabili nahi ditu kleroak partiduak, baina, hain zuzen, interes haiek ez dira Errepublikaren zibilizazio berriak bizkortu nahi lituzkeen interesak.

Bestalde, XIX mendeko katolikoek Eliza «erromatartzeko» zuten grina bizi hura ere ez zen onargarri Errepublikan. Hontaz, gobernamentu berriaren jaiotegunetan bertan, eztabaida gorria sortu zen Frantzian. Pio IX-ak laguntza politikoa eskatu zien katolikei, Vittorio Emanuele-k ezarri zizkion eskubide-murrizteak hausteko. Eta katolikoek Mac-Mahon Errepublikako Lehendakariagana jo zuten (1877). Nevers-ko apezpikuak eskabide hau egin zion, *zelanti* guzien asmoak jasoaz:

Deklara bedi argi, zuk ez duzula Italiako erreboluzioarekin partzuergo eta atxikimendurik (71).

Apezpikuen bidez, Vaticano-ak ezarri behar ote zion politika Frantziako gobernariet? Hori zen ezkertiarrek deputatuen Ganbaran galdetu zutena. Eztabaida hau zela, ministro-aulkia lagatzerara ekarria gertatu zen Jules Simon: ondoren

(71) Ikus LATREILLE, A.: aip. lib., 413.

Mac-Mahonek Ganbara sakabanatu egin zuen, eta legezko «coup d'Etat» honek hondatu zion «Ordre Moral» delakoa: ustekabeen errepublikazaleen Errepublikaren egunsentia huraxe izan zen, Frantziako mandioan belar ihartu sobera bait zegoen halako (Nevers-ko gotzainarena bezalakoa) poxpolo biztuak barnera botatzeko.

Egiaz, katolikoen politika-hipoteka zaharrak ez ziren sofrigarriak Errepublika giro haietan. Ba da errepublikazale multzo bat haien artean (Dufaure gidari); baina, 1892-ko Leon XIIIaren deiaren aurretik eta geroztik, katolikoek beren gehientasunean ez dute maite Errepublika, eta jokabide honen honen arrazoinak aipatu ditugu. 1878-an, garaiz beraz, gogorarazi zien bere erlijio kideei Falloux katoliko eta politiko zaharrak:

Ez ahal dakizue, ba, jende gehienak Kontrarreboluzioa «Antigoaleko Errejimenarekin» nahasten duela, hitz hari esanahirik gaiztoena emanaz? Ez ahal duzue hitzen ahalmenaren berririk? Eten gabe ari zarate, esan eta idatzi, Erreboluzio osoa nahi duzuela, osorik gizarte modernua, eta hor zabiltzate sarrienik eginahaletan, Eliza zuen fantasiako madarikazioekin nahastatzen... Horrela betetzen dituzue pozez, jatorriz zuen etsai dituzuen radikalak, horrela hornitzen dituzue harma garailez, horrela Eliza konprometatzen... (72).

(72) LATREILLE, A.: aip. lib., III, 441; "Ne savez-vous pas que le gros du public traduit toujours "Contre-Révolution" par "Ancien Régime" dans la plus mauvaise acception du mot, et ne connaissez-vous pas l'empire des mots? Vous dites et vous écrivez sans cesse que nous en voulez à la Révolution tout entière, à la société moderne tout entière, et le plus

Baina Falloux, liberala zen, eta katoliko gehientsuek horixe ez zuten izan nahi, nonbait. Katolikoek artean arras guti izanen dira errepublikazaleak, eta guti hauek ere ez dute etxe barrukoengandik tratamendu gozorik ukanen, alafede. Bestaldetik, errepublikazaleek ere ez diete arrera onik egingo katoliko hauei, eta gero aipatuko den *Ralliement* hura gorabehera, 1879-1914 urteetan ez dute gobernuan parte hartzerik izango.

Katolikoen monarkizaletasun lejitimistari atxikiak daude. Geroago ikusiko dugunetik, barrunta daiteke joera honen zergatia. Chambord-ek kristau monarkia berritu behar zuen. Chesnelong, politikan ari denean ere, homiliak egiten dabil. Keller, maila berean ez baldin badabil ere, gogora dezagun Napoleon III-aren kontra berak eraman zuela aurrera katoliko erromazaleen oposizioa (73). Gogorrenak bi zutabetan dute finkaturik beren esperantzagaia: *Errege Kristau-kristau* hura, hots Chambord-eko kontea, erregegora itzuli behar da, eta Aita Sainduari lur-agintea bihurtu behar zaio (74). Honela, beren

souvent vous efforcez d'associer l'Église à vos anathèmes de fantaisie... Agir ainsi, (...) c'est combler de joie les radicaux, vos ennemis naturels, leur fournir des armes victorieuses et compromettre gravement l'Église..."

(73) DANSETTE, A.: aip. lib., 389-390.

(74) Programagai hau, *Commune*-ren ondotik, 1871-1875-etan nahiko konprenigarria bada ere, ez zuen usnatzen benetan ez orainaldiaren ez geroaren seinalerik. Itsua zen, *Osservatore Romano*-k idatzi zuen hura bezalaxe: "L'histoire, en les flétrissant, couronnera d'une auréole immortelle leurs deux grandes et invincibles victimes, Pie IX dans le camp religieux

ekintza politikoa, ideologia atzerakoienari lotzen zioten; izan ere, monarkizaleek ez bait zedukaten behar zuten gizon gidaririk, ez garai berriei zegokien izpiriturik.

Latreille-k *Gallia poenitens et devota* deitu duenaren politika, erlijio-jaiera berriekin egiten zen: Paray-le-Monial, La Salette, Lourde, eta abarretan. Asonzionistek (75) sortutako *le Pèlerin* aldizkariak egundoko arrakasta ezagutu zuen. Frantzia bekatari zen, eta haren alde penitentzia eta otoitzari ekin zion Frantziako Elizak. Baina katolikoak ere bekatari ziren agian, eta errepublikazaleek ziotenez, hobe zuten beren bekatu-bide erregetiarrak uztea, sagasti zaharretan fruitu zimelen bila ibili partez.

4.31. *Gotzainak*

Nork erabaki, ostera, etorbideak zeintzuk izan behar zuten? Hierarkiak zedukan horretarako eskuera. Eta zein mentalidade zuen Frantziako hierarkia katolikoak?

1801-az gero Frantziako Eliza, Konkordatoaz baliatzen da Estatuarekiko harremanak zuzentzeko, eta honek apezpikugaiak aurkezteko esku-bidea du (76). Hala ere, gobernariek ez dute apez-

et Henri V (Chambord-eko kontea) dans le camp politique". Era beretsuan Mgr Pie, Poitiers-eko apezpikuak, Chartres-en 40.000 errumesei: "Frantziak bere buruzagia espero du; Frantziak bere jabeari dei egiten dio". Ikus ROPS, D.: aip. lib., 125. LATREILLE, A.: aip. lib., 408-409. Ponderu honen bigarren partea *Ralliement* delakoan ikusi beharko.

(75) Ikus aintzinago Kongregazioneei dagokiena.

(76) Konkordatoaz gain, gogora ditzagun, galikanismo tra-

pikuengan nahi luketen hainbateko leialtasun xalorik. Hilda jaió zen Konkordato hura maiteago zuten, egia esan, gobernariak, hierarkiak baino. Nahiko *hezikaitzak* gertatzen zitzaizkion gobernuari berak aukeratutako gotzainak ere, Louis-Philippe, adibidez, kexu zen *bere* Pariseko Artxapezpikuaz eta erreparo handirik gabe esan zuen harako hura:

Gotzain horiek apezpikugai diren bitartean ba-ke-gogoz beteak eta esan-esanekoak dirudite, baina gotzain-sagaraketaren ondotik, bestelako giza-semeak ditugu (77).

Haatik, 90 bat apezpiku berri izendatu ziren 1830-48 urteetan; guzien —gotzainen eta ministroen— kontseiluz lamenetiarrek sarbiderik izan ez baldin bazuten ere, itxaropide printzarik bazeu zeruan: *un nouveau clergé s'élève*, zerasan Mgr Parisis-ek. Orduan eman zitzaion Baionari berrogei urtetarako apezpikua: Mgr. Jauffret 1837-1878. Gotzain berria, «moderatu» eta gober-

dizioari jarraituaz, Napoleon Handiak ezarri zituen *Articles Organiques* direlakoak: Aita Sainduaren dokumentuek gobernuaren pasai-agiria behar zuten Frantziarako, eta berdin Kontzilioen dekretuek. Apaizgaitegiak sortzeko, apezpikuen aldatetarako eta agaizgintzetarako ere gobernuaren baimena behar zen, eta Seminarioetako irakasleak 1682-ko Deklarazioa izenpetzera bortxatzen zituen legeak. Artikulu hauk ez zituen Elizak inoiz onartu.

(77) “Les évêques, tant qu'ils sont candidats, paraissent pleins de conciliation ou de condescendance; dès qu'ils ont reçu la consécration épiscopale, ils son transformés en d'autres hommes”. Ikus LATREILLE, A.: aip. lib., 304.

namendu-erakuntzei buruz alderdigabea izanen da (78).

1879-an gotzainak, haien politika pentsamoldeei gagozkiela, hiru taldetan banatzen dira: Mgr. Freppel (Angers) da Errepublikak kontrako herenaren (1/3) buruzagi; Mgr. Pie (Poitiers), etsaigo isila dutenena da; eta hirugarren hereanean, ideia politikorik agertzen ez dutenenak daduzkagu. Frantziako Gotzaineria ez zen arduratu, behar zen neurrian, erlijioaren eta politikaren nahasmenduak galerazten. Freppel erregetiarra, esate baterako, sobera mintzatzen zen deputatuen Ganbaran (79), Frantziako Etxea itzul zedila eskatuaz. Eta nahasmenduak aurrera jo zuen ideia eta politika-ekintzan, apezpiku bakoitzak bere bideari jarraitzen bait zion (80).

Apezpikuen jatorria, beste edozein estamen-

(78) GADILLE, J.: *La pensée et l'action politiques des évêques français au début de la IIIe République: 1870-1883*. Paris, 1967. Ikus MOREAU, R.: *Histoire de l'âme basque*. Bordeaux, 1970. 539 horr.

(79) Hizlari eta polemista zorrotza zen Freppel (1827-1891). 1875-ean Angers-ko Unibertsidadea eraiki zuen, eta 1880-an Brest-en deputatu atera zen eta III Errepublikak Ganbaran ezagutu zuen eskuindar kritikorik suharrenetakoa izan zen.

(80) Gotzaineriak ez zuen bilkurarik egiteko eta elkarte bezala deus argitara emateko eskubiderik. Berez zaila zen ideia-kidetasuna, inolaz ere ez zen posible bilera-mintzabiderik gabe. Agerraldietan, harmadak eta agintariak ohorezko homenaldiak egingo zizkien gotzainei (1883-ra arte edo); baina funtsezko beste eskubide horiek falta zitzaizkien apezpikuei. Aitzitik, gobernuarekin benetako lotura, ekonomikoa, zedukaten gotzainek: artxapezpiku batek 15.000 libera jasotzen zituen; gotzain soilak, 10.000.

duetakoena baino demokratikoagoa zen. Mgr Pie, zapatari baten semea zen. Baina politikak eta azpikeriak ere izaten zuten zereginik gotzain berririk aukeratzean. Eskuarki, apezpikuak erlijioz tatxagabeak dira eta bere eginkizunetarako benetan axolatuak: zintzo egiten dituzte beren artzain-ikustaldiak, irakaskintza eratzen saiatzen dira, predikatzen dute, jaieraz eta behartsuenganako kezkarik badute (81). Apaizeriagan erabateko agintea dute, noizbehinka apaizen bat asalduarren (82).

Aski esan zuen Mgr Le Camus-ek La Rochelle-tik:

(81) DANSETTE, A.: aip. lib., 375.

(82) Gogora dezagun Euskal Herrian, benetako salbuespen bezala, *Diharce de Bidassouet* (1765-1843). Hazpandar apaiz hau egiazko kasu bitxi bat dugu. Erreboluziokoan Baztango Oronotz-a etorri zen; baina herriminak eztenkatuak, 1801-ean, iparraldera itzuli zen berriz. 1819-az gero liberalismora bihurtzen da, eta josulagunen aurka ekiten du. Euskal Historiaz arduratuta, "tracer l'histoire du peuple basque et faire connaître le génie de sa langue" hartu zuen bere istudio xedetzat. Eta, burubelari, kantauriarrena ikertzen jarri zen, euskaldunak kantauriar egiten zituen teoria historikoari jarraitzen zitzaiola. Mgr d'Astros-ekin konpondu ez baldin bazen, gutiago oraindik Mgr d'Arbou-rekin. Honi, Elizbarrutira etorri orduko (1830), Bidassouet-ek *josulagunen fanatismo itsuaren* kontrako kontseiluak eskaini zizkion; baina, apezpikuak lege-mehatzuz erantzutean, Bidassouet-ek eupaka ihardetsi zion: "Vous cessez donc d'être mon supérieur ecclésiastique, dès la réception de la présente lettre. Je pense, Monsieur, que ce coup électrique, produit abortif de votre crosse de fer, rend d'ores et déjà votre autorité chimérique pour l'avenir, d'après notre liberté des cultes". Jean-Pierre Basterretxe, Baionako deputatu liberalak eta adiskideak babestu zuen, nonbait, gure apaiza. Ikus MOREAU, R.: aip. lib., 495-499.

Ene molde-egituraren arabera nahi ez luketenak bihoaz hemendik, desager daitezela, hil! (83).

Baionako Apezpikutegian hiru gizonak beteko dute XIX mendearen erdia eta gehiago: Lacroix, Ducellier eta Jauffret-ek, hirurok 1837-tik 1902-rainokoa (84). Txahok, luispilipetiartzat salatu zuen Lacroix. Dirudienez, ez zuen Napoleon III-a sobera maitatu, eta III Errepublika etorri zenean ez zituen bere ideia politikoak nabarmendu. Ducellier amorekaitzago (*intransigente*) gertatu zen; Mgr Pie-ren iritzikoa zen: Elizaren dretxoan atezain zen apezpikua. Moderatua, baina hirmotasuna ahantzigabe. Hiriart-Urruty-gan ikus daitekeenez, maite zuen Euskal Herria:

Berak ere lañoki erraten zuen; ez zuela nehon ere eskualde hautan bezalako bihotzdun jenderik hatzeman.

Ferry-ren irakaskintzaren erreforma-urteetan izan zelarik Gotzain, bazukeen asarretarako aukera egokirik. Urte haietako politika-moldeaz ez zen erraxki konforme izango:

(83) DANSETTE, A.: aip. lib., 376.

(84) XIX mendean Baionako gotzainak hauk ditugu: Mgr Loison (1802-1820), Mgr d'Astros (1820-1830), Mgr d'Arbou (1830-1837), Mgr Lacroix (1837-1878), Mgr Ducellier (1878-1887), Mgr Fleury-Hottot (1887-1889), Mgr Jauffret (1890-1902), Mgr Gieure (1906-1934). Ikusten denez, berrogei urtetan Lacroix gotzainak zuzenduko du euskaldunen erlijio bizitza. Ducellier izango da 1880-1886-etako errepublikagintzaren testigu, eta Jauffret *Ralliement* (1892) eta 1901-eko Legearena.

Orok aitortzen dute hedadura handia zuela. Bazaukan beti artoski bere nausitasuna; eta nahiz ahal guziak egiten zituen gobernamentuko buruzagiekin bakean bizitzeko, bazakien batzuetan, bere buruaren agertzen, etsaieri ihardokitze-ko (85).

1890-az gero Jauffret-ek zuzendu zuen Baionako Elizbarrutia. Honen sarrera ondoko gertakariak arras asaldatu eta odol-berotu zuten euskal apaizeria. 1889-ko bozaldian legez kontra-edo hartu zuen parte zenbait apaizek elekzio-deietan, eta berehala sortu zen katramila. Gobernuak soldata kendu zien hauei eta apezpiku etorri berri-gana jo zuen:

Eta bertzalde boz-egunak baitziren, egun hitsak eta nahasiak ezin gehiago, – ez baitire ondikotz geroztikakoak hanbat hobeak izan Frantzian! – gure etsaiek huna zeneko, ba eta huna gabe ere, zen tokira zer nahi erasia, lausengu eta mehatxu aldizka hel-araziz, inguratu zuten alde orotarik (86).

Beharreko zen zuhurtzia ahazturik, tokiz aldatu zituen hamar apaiz, Diharassarry barne. Orduan gaineratu zitzaion ekaitza gotzainari. Apezpikua framazona ote zen ere esan zuen urliak. Hamar aldatuetaatik zazpik Erromara jo zuen: hauzia irabazi eta handik ohorezko titulu eta guzi saristatuak izan ziren lau... Gotzainak, hauzia

(85) HIRIART-URRUTY, J.: aip. lib., "Ducellier" kap. Ikus MOREAU, R.: aip. lib., 540-543.

(86) HIRIART-URRUTY, J.: aip. lib., "Jauffret jaun apezpikua" kap.

galdu eta etsaiak irabazi zituen (87). Hau zela-ta zera izkribatu zuen Dihartze bikario jeneralak: *Trixte da erraitea, bainan gure Jaun Apezpikua ere errepublikanoak baizen koleraan omen da.*

Hastapen malkartsu hauen ondoren, ukan zuen Jauffret-ek bere balioa non froga. Apezpiku langile eta jaiera sakonekoa agertu zen, Eliz eskubideen defendatzaile kartsua:

Hortakotz, hastapenean lausengu bezenbat larde-ria eta beltzuri zuen, bereziki azken huntarat, egungo eguneko gizonetarik.

Ikusiz hoien (errepublikanoen) egitateak, komen-tuen kontra eginikako eta bertze lege tzarrak ez zituela onesten; fraidei eta serorei, eta eskola gi-rixtinoei atxikia zela biziki, ezagutuz gero, gutar-rik edozoin bezenbat edo gehiago begietan har-tua zuen etsaiak. (...).

Goiztiarra zen biziki. Goiz guziez, ahal zueno, lau orenetako jaikia; bere otoitz, mezak eta oro emanik, lan puska bat egina zuen, ardurenetik letra multzo bat (88).

Heriotze ordurako, eta lehenago, irabazi zuen Jauffret-ek bere apaizen gogo ona: *il vait reconquis son clergé et il fut vraiment regretté*, dio Moreau-k.

Lau urteren buruan, Mgr Gieure etorri zen Baionara (1906). Ez zen noski inongo apezpiku izateko garairik erosoena: Kongregazioneak her-

(87) MOREAU, R.: aip. lib., 540-543. LAFITTE, PIA-RRES: aipatua den Hiriart-Urruty-ren liburuaren aintzin-so-lasean.

(88) HIRIART-URRUTY, J.: aip. lib., ib.

besteratuak, ikastolak hertsiaik eta, barnetik, modernismoa, *Sillon*, integristoa, etab. *Le Colonel* deitua izan zen gotzain bonapartista honek, ukanen zuen bere indarrak non enplega, apaizeriarekin lan egiten.

4.32. *Apaizeria xumea*

Frantziako herri, herriska eta hirietako apaiz arruntak herri apaletik datoz, eta familia laborarrietatik bereziki. Burgesiaren semeak, ostera, fraidetegietara doaz. Herrisketako haurrak, erretores jaunak gidatuta, Seminario-ra zuzentzen dira, lehenen Tipira (Frantzian badira 86) eta ondoren —apaizgoaren deia gogoz onartu baldin bada— Handira. Maristek badituzte 22 Seminario Handi eta Lazaristek 24, eslijiosoak (kongregazioneak) bait dira sarrienik ikastetxe hauk daramazkitenak.

Apaizgaitegietatik apaiz saildu (*un saint prêtre*) bat nahi zen, jakituna baino lehenago; ideia honen arabera zuzentzen zen heziketa eta irakas-kintza. Heziketaren lehenen betebeharra, apaizgaia biziera saildu batetara zuzentzea zen; sentipen, pentsakizun eta denen eginahalak horretara jo behar zuten. Issy-n, adibidez, elizkizunek eta liturgiak betetzen zuten, esateko, eguna, eta intelektual eginkizunetarako lau ordu bakarrik gelditzen zitzaizkien apaizgaiei.

Zientzien jakitatea, berriz, eskasa zen, pobreziaz ahuldua. Benetako pentsatzaile modernuak ez dira ikasliburu jatorrizkoetaraino heldu. Ez da Kant eta ondorengo filosofiarik ezagutzen, fedea

galarazi bait diote zenbaiti. Elizaren historia, azken mendekoa batezere, apologetika bezala ematen da. Saint-Sulpice Frantziako Seminariorik onenak ere badu eskolakeriarik.

Halako irakasbidea ematen baldin bazen, irakasleei esker, edo desesker, izan da. Hauk ere nolahalakoak ziren. Maisuen jakintza oxta-oxta doa ikasleen aurretik; eskuliburuen morrontza gorrian dihardute irakasleek. Igaro aldietara itzulirik ari dira lanean gehienbat, eta egiaren azterketan baino gurutzada-eraso gehiago sumatzen da heziketa ahalegin hauetan. Erreboluzioa eta haren ondokoak Gaizki huts-hutsa dira. Autore kritikatuak kondenatu egiten dira, baina ez irakurri. Ez dago Liburu Sainduak zientziei dagoen azterketa kritiko baten argipean ezartzerik. Eskandalagarri izanen litzake holakorik. Dansette-k dioen bezala,

En somme, on pratique, et on érige même en principe, la mortification intellectuelle à l'égard de tout ce qui est nouveau.

Ikasbide hauekin apaizgaiak baditu XVIII mendeko eztabaidetarako erantzunak; Voltaire-ri kontraesan dezaioke airoski, baina ez Renan-i. Halatsu gertatzen zitzaien aurreko mendekoei ere: Calvino nahiz Jansenius errefuta zitzaketela, baina ez Voltaire. Bazen, alferrik izanarren, elizgizonen ezjakinaren ondoeza ikusten zuenik, Mgr Meigna adibidez:

Erlijioa, Jainkoagandikoa izan ez balitz, aspaldi-

danik gure ezjakinaren oinpetan zapaldua izango zitzakeen noski (88 bis).

Heritasun bera zuen gure euskal apaizak ere. Baionako Seminario Handian 1839-ra arte ez da Eskritura Sainduaren eta Eliz Historiaren irakaskintza aipatzen. Bien bitartean, Alemanian Strauss eta abar lanean ari da, eta, bere garaian, Renan-ek ederki zabalduko ditu haien berriak. Hau dena gomentatuaz George Sand-ek botatako enbidoari (*Voilà Jésus démoli pour toujours!*) erantzuteko kapaz ez da izango apaizeria katolikoa. Elizaren Historia, jantokian irakurtzen zizutzenetatik ikasten omen zuten Baionan (89). Irakasleak, geroago ere, errazkiegi aldatzen ziren, eta honela ez zen posible irakasleria prestu bat sortzea.

Baina XIX mendeko apaizeriak badu bertute onik. Zintzoa da, bere lanari emana, leiala, sinesten duena bizi izaten entseatzen dena. Renan bera ez da hemen ere testigurik okerreana:

Apaiz artean igaro ditut nere bizitzako hamahiru urte eta ez dut eskandalo txar bat egundo ikusi.

Antiapaizerismorik erreminduenean ere Eliza-
ren etsaiek ezingo dute apaizeriaren bertuterik

(88 bis) DANSETTE, A.: aip. lib., 378. Eta 329-gn. horrialdean, 1867-rako iritzi bat: "Dans l'état déplorable de notre pauvre Eglise de France, un prêtre qui veut se consacrer tout entier à l'étude des sciences ecclésiastiques est un homme déclassé".

(89) MOREAU, R.: aip. lib., 483-485.

uka. Apaiza pobre da benetan (90), elizkizun eta arima-bizitzaz kezkatu bizi da. Eta kasik beti erlijiozko eginbeharrak xuzen betetzen ditu. Hori bai, Seminariotik dakarkien aje hura berarekin darama: ez du ikasten, ez bait zaio ikasminik biztu. Izan ere, herriskan nahiz hauzoan egin behar dituen lanetarako ez du, beharbada, gehiagoren premiarik sumatzen (91).

Eta nonahiko politika beti ere hain nahasia izanda, non eskolatu ziren apaizak zientzia honetan? «Gorriek» beren prentsa zuten bezalaxe, «xuriek» ere bazuten berena.

Ez da sekula aski esango: *Veillot-en l'Univers* zen egunerokorik influentzidunena, hau zen apaizeriaren kontzientzi zuzendaria II Inperioaldiaren hastapenetatik (92).

Dupanloup, Montalembert eta Falloux moderatuek, zerbait egin nahi izan zuten, katolikoek beste joeratako egunkaririk ukan zezaten, baina pozoinez asetako lumarekin erantzun zien harek:

(90) DANSETTEgan ikus daitezke (aip. lib., 378-379) iritzi hau frogatzen duten datuak. Laburki: bi pertsonentzat, 2,75 libera irabazten zituen eguneko bikario batek, eta 1,35 libera gehiago beharko zituzkeen gutienik.

(91) Apaizeria katolikoa, ezjakinaren poderioz, sineskoi-keriarik lotsagarrietan eroriko da, aukerarik denean, eta gaisotasun hari jarraituaz ez du ikastoletarako premiazko litzakeen prestutasunik bilatuko. Ikus DANSETTE, A.: aip. lib., 379-380.

(92) Jakitekoa eta argigarria da Dupanloup eta Veillot-en arteko eztabaida (1853): apezpikuak zerbait esan nahi izan zien Ofleans-ko apaizei irakaskintzari buruz, baina laister sartu zen *l'Univers* tartean. Ikus DANSETTE, A.: aip. lib., 398.

Cavour-en moldeko katolikoak zirela, eraso zien, sekta bat, etab. Louis Veuillot-en jarduna 1883-raino luzatuko da (93). Urte berean asonzionisten *La Croix*, egunoroko bihurtuko da eta 530.000 ale salduko ditu. Eztabaida batzutan garaipen handirik izan ez arren, Frantziako xoko guzietara helduko da, eta arrakasta, ez da tipia izanen. Eliza-barnetik bertatik ari ez bada ere, E. Drumont-en *La Libre Parole* (1892) ere gogoangarria da. Judeguen kapitalismoa, Errepublikaren burgesia berria eta gobernamentuaren uste-la (Panama) eta negozioen abertzaletasunik eza salatuko ditu herriaren aurrean. *La France juive* liburuak ezagutarazi zuen Drumont, eta harrez gero (1886) luze-zabaldu zen honen itzala Frantzia. Apaizengan oihartzun estimagarria ukan zuen Drumont-ek, eta baita gure Hiriart-Urruty-rengan ere, haren egunerokoa agertzen hasi berri zela honela bait dio:

...Drumont hura bezalako gizon guti dela Frantzia eta Espainian... (...) Talendu handiko gizona zen eta oraino (...). Zigorrada onik ematen diote, egun guzietan, bai judueri, bai eta heien

(93) Haren iritzi hertsia eta odol beroa ahanzi gabe, esan behar da Veuillot-en bizitza gorabehera handikoa dela. Familia pobre batetan jaioa, gaxterik jarri zen lanean abogadu batekin. Borondatearen eta bere buru argiaren indarrez eskolatu zuen bere burua. 1838-an Erromara joan, eta han elizaratu zen berriz. 1843-an *l'Univers* ultramontanoaren zuzendari da. Polemista izugarria zen. 1848-ko Iraultzarekin egon ondoren, Napoleon III-ari lagundu zion, baina Erromako hauzia zela-ta honekin ere asarratu zen eta 1860-1867-etan egunkaria hertsia egin zion gobernuak. Borrokari paregabea, berdintsu eraso zien kanpoko liberalei eta barnekoei.

aldekoeri: ministro, deputatu ala zenator, gorri tzar ohoin guzieri. Ba eta xurientzat ere badu asko errateko: itsu eta nagi direla, ez dutela kopetarik, etsaiari ihardokitzeko; ez dutela ez zainik, ez odolik; oilo busti iduri dutela (94).

Egunean eguneko maisugo hauek eskolatzen dituzte apaizak, Frantzia salbatu behar dela esanaz, erlijio-gurutzada batetara dei eginez. Apaiz errepublikazaleak, lauño dira, hutsa, edo-ta direnak ez dira mintzatzera ausartzen. Apaizetxeak eskuindarren bilkura-toki dira gehienetan, bozaldietan bereziki, eta holakotan bozketa ondoren gobernuaren zigorra etorri ohi da. Halanola, 1885-ean 1.000 bat apaizi kentzen zaio soldata edo parroketatik ateratzen; 1889-an, 321. Badakigu, soldata gabetu hauetatik 35, euskaldunak zirena eta, seguraski, ez zegozkien eginkizunetan sartu zirena, lege-zigorra gaineratu zitzaientean Bikario Jeneralen (Intxauspe eta Dihartze) babesaren ukararren (95).

Apaizeriak jakin, zihur zekien Frantzia deskristautzera zihoala Errepublika, eta segurtapen hau ez zion inork kenduko (96). Eta hemendik alde on eta txar asko zetozen: politikan sartu beharra, integrismorako joera bizia, Eliza bar-

(94) Ikus HIRIART-URRUTY, J.: aip. lib., "Edouard Drumont" kap.

(95) Pon apaizaren egunkari ezkutuan, politika desmasia bezala ematen da apaiz-eskuhartzea. Apezpiku eta apaizen arteko hauzian, badirudi ez zuela asmatu benetan gotzainak. MOREAU, R.: aip. lib., 544-546.

(96) MANDROU, R.: *Histoire de la civilisation française*. Gaztelaniazko itzulpenean (México, 1966), 468 horr.

nean gobernamentuari eraso nahia... Ez zen erraza bake biderik aurkitzea; honegatik erantzuten zion hala Grevy-k Aita Sainduaren eskabide bati:

Elkarren kontrako erreminaldi doakabe hauetan, agitz guti dezaket nik Elizaren kontrakoengan; zuk, berriz, hainitz Errepublikaren etsaiengan. Horiek, zuk zeuk ere nahi duzun politika-neutraltasun baten hesparruan gordetzen baldin badituzu, urrats handi bat izanen da nahi den bakegintzarako (97).

Idea-indarkeria lege zen giro zital haretan, eta bakoitzak barne-joeren arabera aukeratzen zuen bidegurutze haretan. Euskal Herrian ere berdin: bazekiten populuagan zuten eragipenaren berri eta, borondaterik onenarekin nahi bada, hartaz baliatzera bortxatzen zituen garaiko ekaitzak. Dirassar-ek gomentatu du hau:

Erraiten ahal da ere apezek egiten zutela parte handia segurik bozen harat-hunata. Boz-emaile ainitzak apezan erranetik jokatzan ziren. Denen buru, hori ez da batere harrigarri.

Alde batetik, apezek kanpo, Eskualdun guti ziren eskolatuak eta politika gauzez hein bat argituak, eta jende frango beren baitarik joan ziren beraz apezari argi eta kontseilu eskatzerat; bertzetik, politikaren itzalpean, elizatiar eta Elizaren etsaien arteko auzia baitzen gehienik ala, horren gatik

(97) Jules Grévy Lehendakariak Leon XIII-ari egindako eskutitzean (1883-maiatza-13). Zorigaitzoz, hori dena urruneko amets bat zen, politikaren ezker-eskuinetan filosofia eta dogma egiten bait zen orduan.

apezak nahitez ekarriak ziren beren ikusi moldearen deplauki erakusterat (98).

Apaizeria, beraz, politika-borrokari zen, borrodatez eta halabeharrez. Horregatixe sartzen zen gobernamentua ere elizetan. Departamentuko jaun gobernariak, elizetako mintzaldiak zaindu egin behar zituen, bozaldia egokitzen zenean baitipat. Prefetaren begibelarriak predikari eta erretoreenganaino luzatuko ziren (99). Begiradantza hau batzutan urrunegi joaten zen, euskaldunen sentikortasuna gehiegitxo ukitzeraino. Prediku eta elizeginkizunetarako euskera utz zezatela eskatu zenean (100), jaun prefetak ez zuen inoiz deus ardietsi: bestelakorik eskatuarren, apaiz guziak aho batez euskeraz mintzatu bait ziren hurrengo igandean (101). Hontaz Hiriart-

(98) DIRASSAR, J. B.: “Eskual Herria Frantziarekin hartuemanetan”. *Ipar Euskal Herria*-n. “Jakin sorta”, 49 horr.

(99) 1879-an hala adierazten zuen Pabetik gobernariak, Ducellier asarraraziaz (1879-apirila-18).

(100) III Errepublikaren aurretik ere (1865) eskabide bera egin zuen Duruy ministroak; baina nahi zuenik lortu gabe, departamentutik esan zitzaionez: “On remarque avec peine que le clergé basque continua à enseigner le catéchisme en basque, ce qui nuit à la propagation de l’usage du français”. Eta ministroaren oharra: “Relever les points du territoire où le clergé exige le catéchisme en patois ou en langue étrangère, afin que j’en écrive aux évêques par le garde des sceaux”. Ikus MOREAU, R.: aip. lib., 508.

(101) Piarres Lafitte-rengandik jaso. 1906-an eman zuen agindu hori Pabeko Prefetak; baina alferrik. Baigorriko auzapezak, alkateak (Etcheverry-Aintchart “gorriak” hain zuzen) begiratu behar zuen hango erretorearen jokaera. Baina honek euskeraz hitzegi zuen, eta alkateak ez zion jokabide honen berri Prefetari eman; beraz, euskal auzapez “gorria” presondegira eraman zuten.

-Urrutyk *Bizia ala eskuara?* artikuluxka eman digu, Britainiako gorabeherak aztertuaz (1902):

Ministroak Bretaniako prefetei hel arazi die: beharko dutela hemendik harat hango erretor eta bikario guziek elizetan orai arte mintzo ziren breton hura utzirik... frantsesez mintzatu; katixi-ma frantsesez egin; predikuak frantsesez; otoi-tzak ere ba. — Behazu! Diren bezalako nahasi tzarrek, zertan eta noraino sartzen duten sudurra! Zer joan ziei ministroei, prefetei eta bertze jaunfutre hoier guziei, *breton* apezek eta burra-soek nahi badeie haurrei erlisionea bretonez erakatsi? (...). Jinkoak daki zeri gauden! Han bertze departamenduri bezen errexki oldarturen ahal baitire hemen bati (102).

Iparraldeko Euskal Herrian apaizeria eta herria ados dira elkarrekin eta Errepublikagintza-ren eginbeharrak ez ditu elkarrengandik bananduko; euskal (euskeradun) gizartea bat bakarra da: euskalduna fededuna, erregetiarra, izan-modu zaharrei lotua. Apaiza, berriz, bere-bere duen itsasoan da hor igeri.

4.33. *Euskal gizartea eta politika*

1790-eko otsailaren 26-an ipar euskaldunak —hiru probintziak— departamendu bakarrean sartu zituzten, biarnesekin batera: Pirinio Atlantikoen departamenduan da Euskal Herria. Hurrez gero, iparraldeko euskaldunek ez dute politika-izakirik. Departamendua, 41 kantonamenduk osatzen du eta 560 udalek.

(102) Liburu honetan bertan, aipatu kapituluan.

Euskal Herriko kantonamenduak 15 dira eta 1881-etik honakoan bozaldietarako hiru boz-eskualdetan banatzen dira; honela:

Baiona I: Baiona-Iparrekialdea, Baiona-Iparmendebaldea, Biarritz eta Uztaritz-ko kantonamenduekin.

Baiona II: Bidaxune, Ezpeleta, Hazparne, Bastida eta Donibane-Lohintzungo kantonamenduekin.

Maule: Iholdi, Maule, Baigorri, Donibane-Garazi, Donapaleu eta Atarratzeko kantonamenduekin.

Hiru boz-eskualde hauek ez dute euskal probintziekin zerikusirik. Zuberoak, (Maule, Atarratz) zenbait lurralde behenafarrekin (Iholdi, Baigorri, Donibane-Garazi, Donapaleu) eskualde bakarra egiten du. Lapurdi, berriz, bi boz-eskualdetan erdibitua dago. Elekzioetarako honela banatu den Euskal Herri honetan, 1876-an 159.802 bizilagun ditugu; 1911-n Hiriart-Urrutyren azken urteetan, 182.002 dira euskaldunak (103).

Errepublikarekin euskaldunok, biziki axolazten dira politikan, garaiak uzten eta herriari ematen zitzaion egokieraren arabera elekzioetan, alegia, bozetan. Bozaldiek oihartzun handia dute euskal lurraldeetan. Bozemateko nagikeriak bazterturik, euskaldunek hein nabarben batetan hartuko dute parte, eta biarnesek baino arduratua goak agertuko dira, salbuespen bat edo beste aparte.

(103) KANBLONG, R.: aip. lanean, 74.

Izan ere, biarnesen bozketa-uzteak, arrutki, Euskal Herrikoak baino garrantzizkoagoak dira. Bestalde, bozketa-uztearen grafikoan pondurik puntakoenak Biarnoari dagozkio (% 16 eta % 35): bozketa-lehia oso alagarriak erakusten ditu fakto honek. Euskal Herria, une batzu salbu, berdina da bere ekintzan (104).

Zergatik, ordea, Euskal Herrian bozemateko axola eta arta hau? Micheu-Puyou-k seinalatu du fenomenu honen arrazoina: erlijio eta politika, dinamika-urbieta bakarrean elkartu dira berriz ere. Erlijioak, edo hobeki apaizek, bultzatzen dute euskalduna, eta nekazaria bereziki, bozematera. Bidaxune aparte (eta hau egiaz kaskoina), 1874-1914etan bozketa-uztea oso eskasa izanen da, horrelako zabarkeria ez bait litzake barkagarri elizkoientzat, Elizak Errepublikan jasan behar duen persegizioa jakinki .

Honela, ba, zalantzarik gabe Eliza katolikoaren influentzia sumagarria da eta beti konklusio beretara garamazki. Bozematearen jokabide honetan dadukagun erlijio-diziplinaren argitan, esan behar da zerbait: Biarnoko Ekialde eta Hegoekialde nekazari eskualdeetan bozketa-uztea, abstentzionismoa, sarri gertatu da eta, hain zuzen, hauk ditugu departamenduko lurralde deskristautuenak ere (105).

(104) MICHEU-PUYOU, J.: aip. lib., 325.

(105) MICHEU-PUYOU, J.: aip. lib., 337. Astentzionismoaren berri ematen diguten mapak, kartak, obra berean darduzkagu: 326-330 horr. Esplikabideak hainitz badira ere, badirudi hemen aipatzen dena baliozkoa dela Euskal Herriko mendialderako bederen.

Hauk hola, zeintzuk ziren herri xumearen iritzia aurrera zeramakitenak? Zer esanik ez, lehenik Eliza katolikoa. Euskaldunak, katoliko dira eta biarnesak baino pratikatzaileago. Han-hemen jaso diren fraide eta serorategiek ez diete hontan guti lagundu; misiolariak herriz herri doaz, fedeak bizirik eta erne segi dezan (106). Kristau erromeriek elkartasunaren beroa ematen diote fede horri: Lourde eta beste santutegiak otoizleku bizi gertatuko dira. Baiona II eta Mauleko boz-eskualdeak dira Euskal Herrian pratikatzaileenak (igandetakoa eta Pazkoazkoa) eta epelagoak ditugu kostaldeko kantonamenduak eta Zuberua mendialdeak (107). Euskal kristaudiak, gazte asko ematen du apaizgintzarako; apaizak badu itzal handi bat eta apaizgoa maitatu eta estimatua da. Apaiza, gizartean, abots entzungarri bat dela ezin uka:

Parrokia da Euskal Herriaren benetako bihotza; eliza, bizitzaren erdiunea; eta guzien goi-buru-zagi, apaiza... Auzapezak, alkateak, ba du inportantziarik, baina hamar behatzak sobera lirake erretorearen aburuaren kontra hautatuak izan diren alkateak kondatzeko, erretorearekin ados etorri beharra dago... Elizburua, herriburu da... (108).

Apaiza da herritarren kontseilari, bizitzan eta heriotzan. Asarre-liskarrik baldin bada, harengana joko du euskaldunak, eta testamendurako ar-

(106) MOREAU, R.: aip. lib., 518-525, 557.

(107) MICHEU-PUYOU, J.: aip. lib., 92-93.

(108) BERNOVILLE, G.: *Le Pays-Basque*, 104.

girik nahi badadi, harek ukanen du guzientzat. Politika-arloetan ere ez da, beraz, harritzekoa apaizeriaren influentzia. Bozaldi batzuetan bereziki (1889-an, esate baterako) urrunxko joango dira erretoreak izkribu eta mintzaldietan (109). Baina, eragin honen esanahia mugatuaz, esan behar da piskaka-piskaka hersten doala. Bestalde ez da Euskal Herri guzian berdin onartua: adibidez, porzentaiaz, Baiona-Biarritz-Angelun gazte gutiago (erdia nahiz heren bot) apaizten da Euskal Herri osoan baino (110).

Elizgizonen ondoan, zuzenean horretarakoxe eratutako alderdi-politikoak saiatuko dira, politika-bizitza moldatzen. XX mendera arte ez dardukagu Frantzian benetako partidurik, erakunde fijo batetan antolatuta; baina errepublikazaleek badituzte beren Kongresuak, eta bilkura hauetan aukeratzen dira ezkertiar deputatugaiak. Deputatugaitzarako gizon ezagunak hautatzen dituzte, eskualdean sonatuak; zenbaitetan, programak baino gehiago egiten du gizonak (111). Gizonagan dute bozemaileek beren usteona, ez izkribu eta deietan; euskaldunek

(109) Ikus MICHEU-PUYOgan, 109-gn. horr. Berdolyren kontrako mintzaldi baten berri. Berdin: DIHARASSARRYren *Aphezen dretchoak eta eginbideak elektionetan*. 1890.

(110) BOULARD: *Essor ou déclin du clergé français*, 176. Ikus MICHEU-PUYOgan, 95 horrialdean, 1846-1945-etarako grafikoa. Autore honek Oloroeko fenomeno jakingarri bat aztertzen du: 1905-ean Seminario Tipia hertsu egiten da, eta gertakizun honek bi ondorio ditu: Biarno Garaian apaizgaien multzoa behera dator eta eskualdea Radikalismora pasatzen da. Ikus 97 horr.

(111) Hala gertatu izan da Euskal Herrian; Mauleko boz-eskualdean 1914-tik aurrera Ybarnegaray-rekin.

beren fidantza, gizoni eskaintzen diete, herriko jaunek nahiz apaizek gomendatu dituztenei; aspalditik bezala, gizonaren nortasunak itzaltzen ditu ideiak (112).

Errepublikazaleen Kongresuen gisara, eskuindarrek ere badute antolamenduren bat, baina, erakundez, haiek baino libreago jokatzen dute.

Errepublikazaleen (moderatu nahiz radikal) eta monarkizaleen (erregetiar nahiz bonapartista) artean aukeratzeko, prentsak ematen du beste bultzada bat. Ezker-eskuin, departamenduak eta Euskal Herriak badaduzkate beren egunkari eta albistariak; aipa ditzagun: *L'Indépendant* bereziki, ezkertiarren artean; *Le Memorial des Pyrénées*, *Le Patriote*, *Courrier de Bayonne* eskuindarretan. Barthou, Aubert eta E. Garet-ek *L'Indépendant*-ean dihardute eta ezker laikoaren abots dira. Katolikoan artean, gure garairako, egunkaririk bortitzena *Le Patriote* dugu. 1896-an sortu zuen Pon apaizak Paben, eta katolikoak errepublikaratzeari (*rallier*) lagundu zion, honegatik elizjendearen artean ez zuen beti arrera ona izan. Euskal apaizen artean ere iritzi desberdinak agertu ziren, guziek ez bait zuten gogoko Leon XIII-ak egin zien Errepublikarako deia. Pon berak esaten digu: batzuek ez zuten ikusten egunkariaren beharrik (Adema), besteek ez zioten txera berorik eskaini ideia berriari (Uztarizko irakasle gehienek) eta joera honetakoxea zen Hiriart-Urruty ere; hala ere, bai *Eskualdunak* eta bai *Courrier de Bayonne*-k arrera ona egin

(112) MICHEU-PUYOU, J.: aip. lib., 105.

zioten. Prentsa honen artajorrak eman zuen bere fruitua elekziotan (113).

Indar guziok tarteko Euskal Herriko iritzi publikoa eskuindarra izanen da, «xuria»; elekzioak irabazi nahi zituenak, lehenik izen *ona* eduki behar zuen, eta ideia *garbiak*; bozemaileengan errespetagarri gerta zedila, alegia. Dirassar-ek honela deskribatu du euskaldunen joera hau:

Ez da haatik ahanzi behar gizonari behatuz «ideia on» batzuen alde izaitea galdatzen ziotela eskualdun boz-emailek.

Ideia onak, erran nahi baita «xurien» ideiak. Eskualdunentzat, politika-gizonak ziren xuri edo gorri, eskuindar edo ezkertiar. Behin, gauzak molde hortan ikusten zituztenak ez zabiltzan menturaz hain makur.

Bainan urteak jin, urteak joan gero eta maku-rrago, arrunt «xuri» edo arras «gorri» deitzen ahal zirenen aldean agertzen baitziren xuhail eta gorraxta frango, eta mota guzietarik.

«Xuri» deituak luzaz segurik erregetiar ziren edo bertzenaz Napoleontiar, «gorriak» aldiz Errepublikano... Nola erregetiarrak elizatiar baitziren eta Errepublikanoak Elizaren etsai – heien iduriko Elizak trabatzen zuelakotz jendearen aintzina mendua – ainitzetan segurik Elizaren alderateko atxikimenduan edo aiherkundean izan da bozen funts gehiena, gaineratiko ponduak aise utziz bazterrerat. Eta nola Eskualdun gehienak fededun suhar baitziren, ardura eskuindarrak dituzte hautatu deputatu bezala, eskuindarrak edo ezkertiar epelak... gorriagoen aldean xuri emaiten zutenak (114).

(113) Ikus MOREAU, R.: aip. lib., 552-555.

(114) DIRASSAR, J. B.: aip. lanean, 49.

Euskal Herriaren eskuindar joera hau bozaldietan ederki ikus daiteke. Baina eskuindarrak nagusitarren, ez da hori nonahi berdin gertatu. Kostaldea da *gorriena*: eskualde hau eleksioetan oso aldakorra da eta noizbehinka ezkerrera ere jo dezake. Hemen, Baiona Iparrekialdea ezkertiarra da. Gainerako Euskal Herria eskuinean dago finkaturik, eta zenbait tokitan gero ta eskuindarrago bilakatzen da, Maule eta Atarratze aldeak salbu (115).

(115) Ikus mapa, MICHEU-PUYOU, J.: aip. lib., 299.

5. Errepublikagintzaren hauziak

1.500.000 kontra. Frantziako politika multzoak sakabanaturik daude: erregetiarrek ez dakite nor nahi duten, nor nahi ez duten argiago ikusten badute ere; errepublikanoek badakite zer nahi duten, baina ez, ordea, nahi dutena noiz eta nola ahal izango duten.

Favre, Grévy, Ferry, Simon eta Gambetta-k eskutaratu dute aginpidea, baina Bismarck-ek «agintzen» du Frantzian oraindik, eta sobera maite ez duten bozketara behartzen ditu Frantziako gobernariak. 1871-ko bi bozaldietan frantses herria oso desberdin mintzatzen da: otsailan arras monarkizale; uztailean, Errepublikaratu nahirik (116). Deputatu Ganbara nahasi bat sortzen dute bi bozaldiek: Ganbara hura, monarkia ezinezko baten Legegailu erregetiarra zen, baina ezinezko hori aski zen benetako errepublikagintza desposibletzeko.

Hauk honela, egokiera hobe bati itxaron beharko ote dio Frantziak, noizbait errepublikataru dadin? Agintean, nahiz aginte inguruan, dabilzen errepublikazaleek hala uste dute (bai Thiers-ek eta baita Gambetta-k ere); ez, ordea, paristar langileriak, eraman ezina gertatzen bait zitzaion honi, Frantziako nekazari xoko guzietatik, bozketan bidez, ezartzen zitzaion gobernamentu «xuria»: *Comme si, Paris n'était pas la capitale nécessaire de la France!*, esan zuen noizbait L.

(116) 1871-ko otsailaren 8-an: 200 lejitimista, 200 orleandiar, 30 bonapartista eta 200 errepublikazale, gehienbat moderatuak. Horra erregetiarren Errepublika! Eta 1871-ko uztailaren 2-an: 100 bat errepublikazale eta 15 monarkizale (9 orleandiar, 3 lejitimista, 3 bonapartista).

Blanck-ek. Otsaileko bozaldiaren ondorioen kontra asaldatzen dira martxoan Pariseko matxinariak. Pariseko Udalak (*Commune*) bere burujabetasuna probintzien gogoaren kontra hautatuko du (117). Komundiarren aurka Thiers-ek bidali zuen harmadaren joaldia egiaz odoltsua gertatu zen, 20.000 paristar hilko ziren azken egunetan, eta ondorengoak ondorengo (118).

Errepublika erregetiar honek «herriaren burujabetasunaren» (*soberanía popular*) arazoa dakarkio gobernamentu berriari, izan ere 1852-ko Konstituzioaz gero frantses hirigizon (*citoyen*) guziek bait dadukate bozemateko eskubiderik eta, herri horren borondatea Errepublikaritzen doanarren, 1875-era arte ez dute Errejimenaren funtsezko legeek Errepublika segurtatzen.

Errepublikaren errepublikaritzea bozketa berriek posibletzen zuten arabera, monarkizaleek

(117) *Commune* haren esanahi soziala honela epaitu dute P. M. BOUJU eta H. DUBOIS-ek: "La Commune, Marx aidant, est devenue comme un symbole de la lutte des classes, du soulèvement du prolétariat contre la bourgeoisie. Et pourtant, comme elle fut autre chose! Sursaut guerrier, jacobin, contre la province pacifiste; sursaut républicain, jacobin encore, contre un Assemblée royaliste; sursaut orgueilleux du peuple urbain contre le poids des suffrages ruraux et, dans son cadre sauvage de meurtres et d'incendies, *catastrophe du siècle insurrectionnel et romantique* (Daniel Halévy)". Ikus aip. lib., 11.

(118) Harmak isilarazi zirenean, 30.000 bat presondegitatu zituen Gobernuak: 270 heriotzera kondenatuak izan ziren (haietatik 26, hilak), 410 lanketa bortxatuetera bidaliak, 7.500 herbesterratuak, 3.400 denboraldi baterako giltzapetuak. 1879-80etako amnistiek ireki zizkien aberriko ateak eraman-behartu eta herbestetuei. MOURRE, M.: aip. lib., 461.

barnetik eraso zezaioketen Thiers-en gobernabi-deari. Izan ere hauek bazuten erremintzeko arrazoirik Thiers-ek esan ere esan bait zion entzun nahi zionari:

Egon bada Errepublikarik; bera da lurralde honetako legezko gobernamentua. Besterik nahi izatea, iraultza berri bat izango litzake, eta iraultzarik beldurgarriena gainera (119).

Hori entzun ziotenetik, bazekiten erregetiarrrek Thiers-engandik ez zezaketela itxaropen onik izan, eta, bestalde, denboraren harian errepublikazaleen indarberritzea ikusten zuten zuzen gizon berri bat bilatu zuten, Mac-Mahon (1873-maiatza-25). Horra *esperantza*, zirudienez, errepublikazaleen lagunkiderik onena zen *esperantza*, hondatuta, eta hondaturik segiko zuen errepublikazaleei gutien lagundu behar zienak, Chambord-eko konte erregegaiak, itxaropen hiltzearra suspertu ez balie. Zorioneko ikurrin zuriaren trajikomeriaren ondoren «gizarte ordenuaren defendatzaileek» (monarkizale eta erdi-ezkertiarrek) zazpi urtetarako Mac-Mahon-i eman zioten agintea.

Elekzio honek sortutako aldirakotasun hau, probisionaltasuna, probetxagarri zen errepublikazaleentzat, egoera berriak berak monarkizaleen ezina nabarmentzen bait zuten, eta 1875-ean guziek beldur zuten bonapartisten susperraldi batek kokilduta, orleandiarrek ere ontzat eman zuten Wallon-en konponketarekin gobernamen-

(119) "La République existe; elle est le gouvernement légal du pays. Vouloir autre chose serait une nouvelle révolution et la plus redoutable de toutes". Ikus BOUJU, DU-BOIS: aip. lib., 15.

duaren errepublikatasuna. Boz baten alde hutsarekin, finkatu zen Errepublikaren konstituziotasuna, ezkertiarrek hain arbuiatua zedukaten Senatua ere onartzen zuten bitartean (1875-urtarrilla-30); Mac-Mahon monarkikoa izendatu zen *Errepublikaren* Lendakari (120); baina Konstituzioak, dudarik gabe, errepublikazaleei eskaintzen zien etorkizuna. 1875-eko legeak Prévost-Paradol-en *La France Nouvelle*-n ideiak jasotzen ditu: Frantzia protezionista, parlamendudun, antisozialista eta kontserbakor baten Konstituzio-oinarriak finkatzen dira Konstituzio ordeko honetan (121). Baina konponketa guzien ondoren ere, Konstituzio-era harek ekarritako Errepublika, funtsean, deus guti aldatuaz (hitz bat edo beste), monarkia ere izan zitekeen. Posibletasun honek urduritzen zituen errepublikazaleak, eta arrisku honen mamuak eragin zituen jarraileak Errepublikaren apostolutza eta ekintzara.

Gizartearen errepublikaratzean bazen arrua zenbaitetik zetorren urik. Aipa ditzagun errepublikazaletzearen kausarik ezagunenak: geroz eta gehiago eskuhartzen du bozaldietan herriak; haurzitegietan ere bozematea da nagusi; herrixka eta hauzoetan elkarbizitza indartzen doa; hanartean Frantziako iritzi publikoaren gidatzaileak zirenak (noblezia eta apaizeria, alegia) ez datoz bat elkarren artean, maisu eta erretorearen arteko eztabaiden lekuko da herri arrunta... Urbizi aldagarri hauetan herriak berak hautatu behar du,

(120) *Loi du 25 février 1875 relative à l'organisation des pouvoirs publics*, art. 1er. et 2eme.

(121) TOUCHARD, J.: aip. lib., 513.

eta aukeratu beharrak kontzientzia demokrati-koa zindotu eta argiagotu egiten dio (122).

Jendearen iritzi-antaldaketa honek, Errepublika, egunean egunean, aurrera bultzatuko du. 1876 eta 1877-etako bozaldietan itotzen da monarkizaleen Errepublika (123), izan ere, Aita Sainduaren laguntza-eskabidea (aipatu da lehenago) tarteko dela, Ganbara sakabanatzeak ez du deus salbatzen. Mac-Mahonek berak errepublikazaleen Ganbararen aurka nahi izan eta galdu dituen elekzio hauen ondoren ez du inondik iraunbiderik, eta Lendakaritza utzi beharrean aurkitu zen Mac-Mahon mariskala (1879-urtarrilla-30); Grévy-k jaso zuen harek utzitako agintea (125). Harrez gero *République d'affaires* honetan, ministroek ere errepublikazaleak izan beharko dute, bozaldietatik agertutako herri-borondatearen erara eta Konstituzioari zegokion izpirituari jarraitzen zitzaiola.

(122) Ikus MANDROU, R. aip. lib., 467-468. Marc Bloch ere mintzatu da kausa hauei buruz bere *Société féodale*-n, 1942.

(123) 1876-otsaila-20an eta 1876-martxo-5ean egiten da lehenen bozketa hori: 360 deputatu errepublikazale ematen ditu, 4.028.153 bozekin; 140 monarkizale (76 bonapartista, 40 orleandiar, 24 lejitimista), 3.202.335 bozekin.

1877-urria-14/28-etan errepublikazaleek boz gehiago dituzte oraindik (4.367.202), deputatu gutiago izanarren, 318; baina oraingoan ere gehientasuna berena dute, 207 monarkizalen kontra.

(125) Gogora ditzagun III Errepublikaren Lendakariak: Thiers 1871-1873, Mac-Mahon 1873-1879, Grévy 1879-1887, Sadi-Carnot 1887-1894, Perier 1894-1895, Faure 1895-1899, Loubet 1899-1906, Fallières 1906-1913, Poincaré 1913-1920, etab.

Instituzioekiko errepublikagintza burutua zegoen, baina errepublikazaleak hobeagoren premia zuten noski. Errepublikari gizarte bat eman behar zitzaion, errepublikagintza funtsezkoa gerta zedin, eta «gorriok» bazekiten instituzioen errepublikaratzea posibletu zuen Frantziako gizartean bazela zenbait jende bihotzez gobernamentu haren kontra zegoena. Errepublikazaletu egin behar zuten, beraz, Frantziako gizartea, eta egin-kizun honetarako tresna ikastola eta irakaskintza izan zitezkeen, aurretik-edo Elizaren ikastetxeak zuzentzen zituzten Kongregazioneak barreatuaz.

5.1. Gizartearen laikogintza

1879-az gero Errepublikaren defentsabidean betekizunik erdikoena eta orpokoena Frantziako gizartearen sekulargintza da; honegatik, «erri-jio hauzia» demokrazi politikaren bihotzean tau-paka eta bizi-bizi aurkituko da (126). Lehentxeago esan ditugunetatik badakigu programa eta egi-tarau guzien azpitik gizonarekiko ideia bat dabilena (127). Gizartearen sekulargintzak izen eza-

(126) Hauzi honen garrantziak ez du Errepublikaren etxegintza zartatuko, ekonomiaren goraldiari eta langilearen haurtzaroari esker, eta Boulanger jeneralaren gudari-agintarismotik sendotuta irtengo da gobernamentua. *Boulangisme*-ri buruz ikus aurrerago 160-gn. oharra.

(127) Ikus gorago Radikalismoari buruz esanak, politika mogimendu honek ideologia bat bait dakar, eta Radikalismoak ezarriko dizkio azkenean helburuak Errepublikari.

guna du garaiko politikoen artean: *Errepublikaren laikogintza*.

Ekinbide honetan gizartearen alde guziei begiratu behar zaie, eta erabateko laikogintza bat osatzeko, gogora dezagun emandako lege zenbait: garai batetako epaile mogiezinak aldagarri bihurtuko dira, «xurienak» behintzat hauzitegi-tatik bazter daitezen; harmadak harma ohoreak egiteko ez daduka eliz-etxeetan sartzerik; otoitz publikoak debekatu egiten dira; alkateak zainduko du eliza eta herri-bilkuretarako elizkanpaiak jotzeko eskubidea ematen zaio, eta, herriko ordena zaintzea jaun beraren betebeharra denez, kaleetako elizbirak debeka ditzake (128).

Hori dena Estaduaren administragailuetan gertatzen baldin bada, berdintsu egingo da gizarteari berari begira. Igandeetako lan-oporketa z da gorde-beharreko; kanposantuetan debekatu egiten dira erlijioagatik lur-emate apartekoak eta harmadan kapeilautza desagerrarazi egiten da; apaizgaiek ere urtebeteko harmazerbitzua bete beharko dute (baina oraindik, gainerakoei bezala, hiru urtetarako soldaduska ezarri gabe (129).

(128) Ikus Legeen urtegunak: 1883-abuztua-30-ko Legea, 1883-urriko Dekretua, 1883-abenduko Dekretua, 1884-abuztua-14-ko Legea, 1884-apirila-5-eko Legea. Hauzitegi-tako zin-hitzetik, juramendutik, *Jainkoa* hitza ken zedila erabaki zen Deputatu Ganbaran (1882-ekaina-24). Pirinio Atlantikoe-tako deputatu errepublikazaleek ez zuten eskuhartu bozketa honetan eta Labat bonapartistak, bera monarkiko bakarra, hitza kentzearen kontra eman zuen boza. Euskal deputatuak hauk ditugu une honetan: Plantie (Baiona I), Labat (Baiona II), Pradet-Ballade (Maule).

(129) Ikus 1880-uztaila-12-ko Legea, 1880-uztaila-17-ko

Gizartearen laikogintza aurrera doa, eta gaisotegietako moja eta serorak eramango dute hurrengo erasoan. Pariseko heritegiek mojak kendu egingo dituzte, eta joera berdinean segiko da, aldian aldiko politikaren arabera, 1907-ra arte, hau da Clemenceauk erabaki orokor bat hartu arte, gaiso-etxeetatik serora denak irtenarazi zituen arte.

Etxe barneen laikogintza ere ez da ahanzten: eztabaida gogorren ondoren, 1884-ean onartzen da legezko ezkontzahaustea. Gizartearen ohituretaraino iristen denean bakarrik ikusiko da lege honek jendearen pentsaera laikoa azkartzeko zuten indarra.

Errepublikagintzaren bide-urraketa hauen ondoren, 1885-eko bozketak herriaren baietza eman zion laikogintzari, «Union des droites» zelakoan elkartu ziren eskuindarrak denak batera hondatuaz (130). Baina Euskal Herri katolikoak errepublikazaleen garaipen horren aurka eman zuen bere boza (131). 1886-az gero —garaipenak eman

Legea, 1881-azaroa-15-eko Legea, 1880-uztaila-8-ko Legea, 1889-uztaila-15-eko Legea. 1905-martxo-21-eko Legeak elizgizonen eta sekularren harma-betekizunak bi urtetara berdinduko ditu. 1885-ean Deputatu Ganbaran elizgizonen harma-salbuespena bozetara jarri zenean Labat eta Pradet-Ballade, kontserbakorrekin, salbuespenaren alde agertu ziren eta Plantie-k ez zuen eman bozik. Pradet-Balladeren bozak badu orain lau hilabete geroago egingo ziren eleksioekin zerikusirik.

(130) 383 errepublikazale (hauetatik 200 "egokierazale") 201 monarkizaleren kontra.

(131) 1881-ean Pirinio Atlantikoetan sei errepublikazale eta bonapartista bat atera baldin baziren, 1885-eko bozaldian gauzek zeharo kontrara jo zuten: errepublikazaleek ez zuten

dien segurantziaz baliaturik— «egokierazaleek» sei urtetan burutu duten errepublikagintza gordetzen saiatuko zaizkigu; garai batetako urduritasunak baretu zaizkie direlako «opportunistes» haiei, eta Ganbaran gehientasuna errepublikazaleen eskuetan egonarren (eta horrexegatik) ez dute oraingoz Elizaren kontrako persegizioa bizia-gotzeko asmorik.

Berealdiaren esplikabidea bikoitza izan daiteke: ekonomiak burgesia berria segurtatzen dio Errepublikari, eta eskola-erreformak lanabes berritua ematen dio errepublikagintzari. Izan ere, 1877-az geroztik burgesia berri batean —etorkizuna gobernamendu honi lotu dion burgesia batean— finkatzen du Errepublikak bere geroa. Eta 1886-az gero burgesia hori gordetzaile gertatzen da, kontserbakorra; egindakoa gordegarri izan dadin, eskutan du ikastola, baina ez du antikleikalismoan urrutitxo joan nahi. Aski erreminurik zegoen eskuina, oraindik ere erasoka jarduteko. Irakaskintza zen errepublika eta laiko-gintzaren tresnarik baliozkoena eta gutiago etsaierik zapoenarenetan. Baina, orduantxe ari zen moderatismoa betidanik amestutako irakaskintzaren iraultza osatzen. Baina nola? Arazo honek irabazia du bere lekua III Errepublikaren kon-dairan.

deputatu bat ere atera (Garet, Berdoly, Cassou eta abarrek galdu egin zuten), eta hiru bonapartista (d'Ariste, Labat, Harispe) eta hiru erregetiar (de Luppe, de Laborde-Noguez, Des-tandeau) bilakatu ziren garaile. Erljio hauziak izandako garrantziaz zerbait jakiteko ikus MICHEU-PUYOU: aip. lib., 140-142. Euskal bozak, eskuindartze honetan ukan zuen eraginaz ezin duda daiteke.

5.2. Irakaskintza: ikastolatik Unibertsidadera

Ikastola, gizarte batetan arazo bezala ager dadin, zenbait baldintza betetzen dira aurrenik gizarte horren baitan: lehenengoz, ideia filosofiko desberdinak, elkarren lehiakide bezala datoz. Gizartearen elkarre-kontzientzia piztatu egiten da. Honen ondorio bezala, lehiaketa nahiz borroka filosofiko hura irakaskintzara zuzentzen da, eta orduarteko edukazio *pragmatikoa*, *dogmatiko* bihurtzen, borroka beraren beharrez: *heziketaren kontzeptu dogmatikoa* agertzen da. Marxismoaren analisi-metoduak, ideologi azterketa honen oinarritan, ideologi-banaketaren azpitik, gizarte-klaseen banaketa ezartzen du gainegitura guziaren esplikabidea bezala. Mégrine-k honela laburtu du ikastola-hauziaren muina:

Gizarte baten berezitasun funtsezkoenak baldintzapetzen dute ikastola-sesioaren agerpena (zibilizazio aurreratuak, sinesmen desberdinek, tes-toinguru sozio-ekonomikoak). Liskarra, gazteriarren inguruko heziera-lehiaketa batean mamitzen da eta hau elkar-kontrako ideologietatik ekinda nahiz zenbait taldek egin dezakeen ideologia ororen zapuzketa batetik hasita (132).

Ikastolaren inguruko lehiaketa, mundu zabalean herri askotan gertatu da; gogora ditzagun Holanda, Belgika,

(132) MEGRINE, BERNARD: *La question scolaire en France*. Paris, 1963. "...la survenance des conflits scolaires est conditionnée par les caractères les plus fondamentaux d'une société (civilisation développée, diversités des croyances, contextes économique-sociaux). Elle s'exprime par le développement d'une concurrence formative autour de la jeunesse, à partir d'idéologies opposées ou d'un refus de toutes idéologies de la part de certains groupes".

Ipar-Amerika (XVIII mendearen azkenean), Tunisia.., Borroka hau ez da arraza, erlijio nahiz gizarte talde jakin bakar baten inguruan bakarrik gertatu. Eta eztabaidakideak ere hainitz motatakoak izan daitezke: elizgizonak, politikoak nahiz Estadua bera ere:

Eskuarki esateko, badakigu ikastolen borroka nola sortzen den: gizartean guziek berdinki ematen duten *irakasgaia* (hau da *irakas objektu bat*) filosofia nahiz politika batek *heziketaren beraren helburu* bihurtzen duenean sortzen da lis-karra eta gataska. Hau diodanean egin nahi du-dan oharpena axolazkoa da: izan ere, gure egu-notan dugun politika elkar-jotze zenbait, behin-lako erlijio-kofesioen arteko borroka bezain go-gor da (133).

5.21. 1879-ko egoeraraino

1762-an josulagunak Frantziatik jaurtikiak, boteak, izan zirenetik, irakaskintzaren arloan hutsune betebeharreko bat zuen erresumak. 1879-ko Erreboluzioak gogoan hartzen du, beraz, egin-kizun hori: Estaduak bere eginbehar bezala aitortzen du ikastolak eratzea, Petit-ek esango duenez (1792), errepublikazaletasuna zabal de-zan (134). Oraindik ez zen ageri «laiko» hitza;

(133) MEGRINE, B.: aip. lib., 15-16. "D'une façon gé-nérale, toute doctrine philosophique ou politique qui entend abandonner sa place *d'objet d'enseignement à l'égal des autres, pour devenir objectif d'éducation*, est source de conflit sco-laire. Cette considération est importante à una époque où le choc des idéologies civiles est parfois aussi violent que, jadis, le heurt des confessions religieuses".

(134) Oraindik Monarkia desagertu aurretik «ala dio 1791-ko Konstituzioak: "Il sera crée et organisé une Instruc-

baina Erreboluzioarekin dogmatismo politiko bat jaiotzen zen eliz-dogmatismoaren aurrez-aurre (135).

Iraultzak, egin, ezer guti egin zuen irakaskintza aintzina zedin, eta Napoleonek, berriz ere Elizaren bidez zuzendu eta bultzatu zuen eskolagintza: irakaskintzarako «*basia kofesioduna*» zedukana eskubidezko monopolio «*politikoa*» sortu zuen Napoleonek (136). Monarkia Berrikuntzarekin (1815) nabarmena egiten da elizkoi kutsapeña, baina —Iraultza egina zenez gero— katolikoak beldur dira Estaduaren irakas-sistimaren barnean ez ote dituzten itoko eta irakas-libertadearen bila doaz 1827-tik aurrerakoan. Azkenean, 1833-an iristen dute Guizot-engandik lehenen mailan Eliz-irakas sistema apartekoa eraikitzeko eskubidea, Estaduarena ere *de facto* (Kristau Eskoletako Anaien bidez) beren eskuetan duten bitartean (137). Lege berriak ikastola sortzera behartzen du udal bakoitza, eta Estadia (garaiko presopostuari lagunduaz) elizgizonez baliatuko da horretarako. Guizot Legeak, estadistikak dio-

tion publique commune à tous les citoyens, gratuite à l'égard des parties d'enseignement indispensables pour tous les hommes et dont les établissements seront distribués graduellement, dans un rapport combiné avec la division du royaume". *Constitution du 3 septembre 1791*, tit. I.

Eta Errepublikaren lehenen Konstituzioak, 1793-an, zera dio: "L'instruction est le besoin de tous. La société doit favoriser de tout son pouvoir les progrès de la raison publique, et mettre l'instruction à la portée de tous les citoyens". *Constitution du 24 juin 1793*, art. 22.

(135) MEGRINE, B.: aip. lib., 34.

(136) MEGRINE, B.: aip. lib., 35.

(137) Ikus LATREILLE, A.: aip. lib., 329-330.

tenez, bereak ematen ditu: 1833-an, 31.420 ikas-tola eta 1.200.000 ikasle daduzka Frantziak; 1848-an, berriz, 43.514 eta 2.176.079. Eta 1833-ko 47 Eskola Normalak, 76 dira 1848-an.

Baina lehenagotik mintzatzen ari zen kontentagaitz askok 1850-ean izango du berriz ere legea berritzeko aukera. Batzorde bat izentatzen da irakaskintzarako legegai bat presta dezan: bertan dira Cousin, Dubois eta Thiers unibertsidadearen defendatzaileak; bertan, Montalembert eta Dupanloup gidari katolikoak ere. Berez, batzordekideak ez ziren elkar-konpongarri, eta burges haiek eta katolikoak —elkarren etsaiak— bakezko hitzarmen batetara iritsi behar izan zuten, deus egitekotan. Falloux legegaia konponketarako hitzarmen bat da (138). Falloux Legeak (1850-martxoaren 15ean deputatuen bozez afrogatua) hiru irakaskintzak eratu nahi ditu ordenamendu berri batetan:

1. *Lehenen mailarako*, autonomia osoa ematen zaio, udalari, eta honek, nahi duena jar dezake (erlijioso nahiz sekular) herriko ikastetxean. *De facto* Eliza izango da hemen ia monopolioduna.
2. *Bigarren mailan* ez dugu lehen mailako gertaerazko monopoliorik, Elizari ikastetxeak jasotzeko eta Estaduarenetan erri-

(138) Ikus DANSETTE, A.: aip. lib., 281-287. LATREILLE, A.: aip. lib., 337-341. MEGRINE, B.: aip. lib., 37-38. 1848-ko Iraultzaren ondoren, politika zeruian ezkerretik agertzen diren hodei beltzek elkartzen ditu Batzorde-lagunak, Thiers-entzat ere josulagunak baino beldurgarriago dait ziren Blanc-en eta Proudhon-en semeak.

jioa irakasteko eskubidea aitortuarren. Eliz-ikastetxetakoek unibertsidadeko mahainburu baten aurrean egin behar dituzte etsaminak.

3. *Goren mailan*, Unibertsidadean, legez eta faktoz oso bestelakoa da egoera, irakaskintza hau *bere-berea* bait du burgesiak. Unibertsidadea Estaduaren monopolioa da, burgesiak beretzat gorde duen hesparru hertsia (139).

Ezkertiarrak ez daude bat legearekin, erlijiosoi lehen ikastoletarako titulu-beharrik ezarri ez zaielako eta katolikoek legeari tratamendu berezia eskatu diotelako. Katolikoak ere ez datoz ados Falloux Legearekin, batez ere Unibertsidadean eskuhartzerik ez dutelako. Hala ere, aitortu behar, Lege honi eta Legearen aplikapen *xuriari* esker, Kongregazioneen ikastetxeak erruz ugarituko dira: 1843-an 706.917 ikasle, 1863-an 1.610.674 (140). Bukatzeko esan dezagun, Falloux Legeak zuzenduko duela 1880-ra arte Frantziako irakaskintza. Lege hau bi agintean (Estaduaren eta Elizaren arteko) konponketa bat gertatzen da. Napoleon-en Elizarekiko politika aldatzeak eta Duruy-ren irakas-politika berriak mugatu egingo dute gora-behar hori (1863-1869), Estaduaren

(139) Unibertsidade mailan, Irakaskintzarako Goren Kontseiluan partehartzen dute elizgizonek; baina hortik beherako eskuharmenik ez dute.

(140) MEGRINE, B.: aip. lib., 39. Zehaztasun gehiagorik nahi bada, ikus LATREILLE, A.: aip. lib., 342-343. Eliz-ikastetxeak ez dira nonahi berdin banatzen, alde handiak daude lurralde batzutatik bestetara.

eskolagintza indartuaz. Duruy-k Estaduarentzat independentzia osoa nahi du irakaskintzan. Garai honetantxe, 1866-an, eraikiten du *Ligue d'Enseignement* delakoa ere J. Macé-k (1815-1894) uztarpe *cléricale*-aren kontra (hitza oraintxe zabalzen bait da) (141). Duruy-k irakaskintza behartua, debaldekkoa eta laiko izpiritualista nahi du herriarentzat; baina ez du behar hainbat laguntza aurkituko, programa handinahiezko hori bete dadin. Ministroaren eginhalak aurrerakada ikusgarria eman zion Frantziako eskolari, elizikastetxeak Falloux Legeak emandako babesean, ukitu gabe, uzten zituela. Duruy-k ez zuen egin Ferry-ren iraultza, baina sasipeturiko bideak garbitu egin zizkion gerorako (142).

1870-ekoaren ondotik hamaikak galdetzen du zer gertatu den Frantziako irakaskintzarekin: bera ote, gero, hondamendiaren errudun?

Pentsamolde bakoitzak bere aburua du. Dena dela, Jules Simon ministro errepublikazaleak aurkeztu die deputatuei bere legegaia: ikastolak behartua, obligagarria izan beharko luke eta —katolikoek beldur direnez— debaldekkoa, urrurik emana. Honelako erabakiak sor ditzakeen ez-

(141) Ikus LEON, ANTOINE: *Histoire de l'Enseignement en France*. Paris, 1967. 76-77.

(142) Duruy-ren planeamendua benetan buruz pentsatua zen, eta Elizarentzat egiazki onargarria: Estaduaren irakaskintza zabaldu beharra zegoen, deskristautzen zihoan Frantziak, Elizatik kanpora ere, zegokion irakaskintza laikoa eduki zezan; baina Estaduaren irakaskintza debaldekoak bere onetik ateratzen zuen eskuindar zenbait. Eta benetan, damurik, handik hamar urtetara ikusiko zutenez: Ferry ez zen gertatuko Duruy bat! Ikus DANSETTE, A.: aip. lib., 307-308.

beharrak alde aurretik zuzentzeko, parlamendu-batzordeak, eskuindarrek darabilten komisiok, beste aurre-ekinbide interesgarri bat eskaintzen du:

1. Udal bakoitzean, gurasoek erabaki dezate-la zer behar den, irakaskintza laikoa ala kongregaziotarra.
2. Familia behartsuek ordain-agiri batez kitatuko dute edozein ikastetxeko zorra; eta agiri hori udaletxearen kontra ordaingarri izango da.

Jules Simonek ez zuen onetsi Batzordearen idarokizuna, sujerentzia, eta bere horretan hil zen asmoa. 1871-79 urteetako eztabaidarik jakin-garriena 1874-75etakoa da. Elizari ez zaio atsegin Estaduak beretzat gorde duen Unibertsidade-monopolioa; hor ere Estaduaren lehiakide izan nahi du: elizgizonen printzipioen izenean eskatzen dute askatasuna; laikozaileek, berriz Eliza-ren eskutan jaioko litzakeen askatasun-monopolioaren kontra ekiten dute (143).

Eztabaidarik gogorrena titulu emateari buruzkoa gertatzen da: nork emango die Unibertsidade libreetakoei beren titulua. Ferryk dioenez ez daiteke Estaduaren burujabetasunezko eskubide hori inoren eskutan laga. Eskuindarrek, ordea, deretxo horixe eskatzen dute, askatasuna guzizkoa izan dadin. 1875-uztaila-12an afrogatzen da Legea: Guizot eta Falloux-ek eman zizkien es-

(143) Lege hau —1875-eko Legeaz ari da Challemel-Lacour filosofaria— “egiaz eta benetan Eliza katolikoaren probetxurako emana da...”

kubideen gain, katolikoek Unibertsidade librea irabazten zuten. Ezkertiarrek ez zieten barkatu-ko inoiz Lege honen ausardia (144).

5.22. *Ikastetxeak zertarako?*

Ikastetxeak zertarako?, galdetzen zuten eta zieten Frantziako politikoei. Hori zen eztabaida guziek funtsean zeramaten galdera. Eta legeari xedeak ezartzean alderdi bakoitzak bere helburua zedukan, benetako neutraltasun batetarako goiztxo bait zen oraindik historian.

Ez da ahanzi behar, ikastola-erreforma, laikogintza orokorraren ekinbide bat dela. Nondik jaio zen irakaskintzaren laikotzeko asmoa? Seguraski burgesia eskolatu eta jantzi batengan, geroago jende herritarrarenganaino iristeko zela (145).

Laikogintzaren testoinguruan ulertu behar da Frantziako eskolagintzaren borrokaldia, eta, honetatik, ikastolaren eginbeharra horretantxe da-

(144) Titulu ematea mahainburu, juradu, baten eginkizunztat uzten da: mahainburukoak erdibana hautatuko zituen ministroak Estaduaren Unibertsidade eta Unibertsidade librean artean. Legea, 316 bozez eta 266-ren kontra afrogatu zen. Lege honen aterpean jasoko dira Pariseko, Lila, Angers, Lyon eta Tolosako fakultade katolikoak eta bizitza luzerako gainera.

(145) Galdetu izan da ez ote zen Masoneria ideia horren zuzpertzaille, *Logie*-tatik irtenak bait dira laikogintzaren aintzindariak. Hala ere, badirudi, barreatua zegoen gogo batez baliatu zela Masoneria. Ikus LATREILLE-k dioena: aip. lib., 388. Macé-k *La Lingue Française de l'Enseignement* laikorako egin zuen deiak (1866), hura masondiarra ez izanarren, hauengan arrera eta txerarik beroena ukan zuen. Ikus hemen bertan 29-gn. oharra.

tza, gizarte laiko bat egitean (146). Baina laikogintza osoa abertzaletasunaren itzalpean jarri nahi zen, aberriak modernutasunean zegokion fruiturik eman zezan. Modernutasunak 1789-ko Iraultza eskatzen du, eta ezkertiarren etorkizun jator eta bakartzat jotzen duten bide laiko hau aberriak onar dezan, ikastola errepublikaratu egin behar da. 1880-1890ko urteetan aberri baten etorkizun hobeagorako burutu nahi da gizartearen eta ikastolaren laikogintza.

Errepublikazaleak, Falloux Legearen aurka zeuden; beste arrazoen artean, nazio batasuna urratzen zuelako egon ere. 1882-ko Ferryren Legeak, uzten du oraindik *bi Frantziak* elkar-lanean saiatzeko lain irtenbide, baina 1886-ko Bert-Goblet Legeak ez du hoinbestetarako esperantza-biderik? Freppel-ek bortizki esan zien errepublikatarrei:

Zeuok sakonagotu duzue banatzen gaituen leizea... Ez gara gu, zeuok zarate geroaren hauzia ikaragarri, amenazagarri, jartzen duzuenak: alde batetik errepublikazaleak, bestetik kristauak... (147).

(146) Errepublikazaleak, apaiz-agintarismoak eskolagan duen eskumena aipatzean, oso seriotan ari da: "la dénonciation du 'cléricalisme' par Gambetta, ce n'est pas seulement propagande mais, chez beaucoup d'esprits, conviction profonde et raisonnée". BOUJU, DUBOIS: aip. lib., 33. Bestalde, ezkertiar talde bakoitzak esanahi desberdina eman dezaioke *laiko* hitzari, Jules Simon batek nahi zuen izpiritualismo batetik Clemenceau-ren materialismora aldea bait zegoen. Ikus lehengo 46gn. oharra.

(147) LATREILLE, A.: aip. lib., 465: "Vous achèverez de creuser l'abîme qui nous sépare... Ce n'est pas nous, mais

Eta, hori horrela baldin bazen, ez zen posible sorterriaren batasunik. Hemen ere arestian aipatua jazotzen zen: ikasgai filosofiko konkretu bat (ikastolan *ikaskizun bezala* gazteari eman beharrekoa noski) errepublikazaleen eskutan dogma politiko bihurtzen zela, eta heziketa, *jomuga* pragmatiko izatetik aberri-idea *baten tresna* izanaraziaz.

Gizarteari pentsamolde berria txertatu nahi zitzaionez, premiazkoa zen, zaharrari horretarako zuen tresnaria kentzea eta orduan sortu zen eliz-elkarteen eta Kongregazionen kontrako eraso (148).

Sorterriaren moldaketarako ezarritako laiko-gintzaren abertzaletasuna, ordea, 1890-ean ez zen aski. *Déroulède* eskuindarrak ere eskaintzen zuen beste abertzaletasunik, baina zaletasun guziok ez ziren nahikoa ikastolaren gizagintzarako. Aberria ona zen, baina frantses bakoitzak, bere baitan bizi izateko ere, behar zuen beste zerbait. 1890-1900eko urteetan ikastola laikoa, etika laiko bat ematen entseatuko da. Baina errepublikazaletasun zaharra (moderatismoa) nahiz zaharbe-

vous qui posez la question de l'avenir dans ces termes redoutables, menaçants: d'un côté les republicains, de l'autre les chrétiens”.

(148) Gambetta-k ozenki esan zuen Frantziako hirietan: ““La France est vaincue: qu'elle médite sa défaite —“pensons-y toujours, n'en parlons jamais!”— mais que surtout elle comprenne bien que la vraie cause de ses malheurs fut l'enseignement donné par l'Église: qu'elle arrache donc l'école aux prêtres”. Ikus BOUJU, DUBOIS: aip. lib., 22-23.

Ikastolaren eta Kongregazioneen hauziak zuzenean daude elkar-loturik, aintzinoago ikus daitekeenez.

rritua (radikalismoa) agian beranduxko zetorren eta beharbada pobreegi, sozialismo-uholdearen eusgarri izateko. Baina hara baino lehen ikus ditzagun 1880-1886 ahaleginak.

5.23. 1880-1886 urteetako moderatismoaren eraberrikuntza

Urte hauk ditugu Frantzian ikastola-erakunde berri bat emango dutenak, eta berrikuntza horren gurasoak ezagutzekoak dira. Irakaskintza berritzaileak moderatuetakoak ditugu, asmoa radikalena izan bazen ere (149). Eta moderatuen artean izen bat dugu ahortzi ezinekoa: *Jules François Camille Ferry* (1832-1893). Ferryk, dirudenez, ez zituen apaizak gehiegi maite, eta hauek ere ez hura (150). Haren heriotzetik kasik 80 urte igaroak izanarren, ez da erraza hartaz iritzi behinbetirako bat ematea. Bere ideien jarraile hotza eta zindoa zen Ferry; Estaduaren agintebikaintasunaz ideia gorenena zuen. Sozialki kontserbakorra zen; sineskabea zen, positibista eta laikoa; administratzaile bizkorra, irakaskintza-

(149) NICOLET, C.: aip. lib., 26-27.

(150) Irakur bedi Hiriart-Urrutyk egin zion heriotze-agurra: "Hila hil, guk ez diogu egia baizik zor. Eta egia erratekotz, behar dugu erran hura bizi zelarik behinere gorde ez duguna. Huna bi hitzez egia. — Azken hamabortz urte hanttan Frantzian eginak izan diren lege tzar guzien, eta bereziki eskoletarik erlijioea kendu duen lege higuigarri horren egile nausia izan zen Ferry. — Duela sei, zazpi urte, eskoletako lege hori ezarri zutenean, bere burua gehienik, itsuskienik agertu zuena zen Ferri. — Ferry zen orduan ministroen buruzagi. Hura zuten framazon edo *harginbeltz* direlako gizon tzar horiek orok beren aitzineko". Ikus HIRIART-URRUTY, J.: aip. liburuan, "Bat gutiago" kapituluan.

ren erreformari eman zizkion bere indarrik onenak. Frantziak Ferryri zor dio bere eskola sistima: lehenen mailako ikastola behartua eta neskatxen irakaskintza (151).

Ez da bakarrik ari Ferry, lankide talde bat du inguruan. Gogora ditzagun Paul *Bert* (1833-1886) Sorbonne-ko irakaslea; Ferdinand *Buisson* (1840-1932), 1927-an Nobel Bake Saria jasoko zuena, Félix *Pécaut*, Jules *Steeg*. Bakoitzari bere eginkizuna emango zaio: *Bert*, librepenetsatzaile volterrianoa, materialista, eta batzutan antiklerikal itxuragabekoa, Irakaskintzarako Ministro da Gambettarekin (1881-82) eta berak 1882-an proposatua da 1886-an afrogatutako Legea. *Buisson*, Bert baino ezkutuagoa, isilagoa, da bere eginbeharretan, baina beti da eragile ona. Buissonek biziki maite du Protestantismoa, libre-pentsamolderako joera duen neurrian. Protestante izpiritua maite du batez ere, haren «izpiritu erlijiozko, zientifiko eta liberala»: «kristautasun tradiziozko eta osoa», erlijio laikotzat jaso nahi luke irakaskin-

(151) Vosges-en jaio zen Ferry. Aita librepenetsatzailea zuen, eta bera ere hala gertatu zen. Protestante aberats batekin ezkontzean, Frantziako goi-burgesiarekin lotzen da. 1879-otsaila/1881-azaroan eta 1882-urtarrila/abuztuaren Irakaskintzarako Ministro da; bien bitartean, lehen ministro ere bada (1880-iraila/1881-azaroan eta 1883-otsaila/1885-martxoan). Kolonien politikak itzali zuen Ferry politikoa.

Ferryren babesean emandako Legerik jakingarrienak hauk ditugu: 1880-martxo-29koa (josulagunak herbesteratuaz eta Kongregazione *pairatuen* baimen-beharra ezarriaz); 1881-maiatza-30ekoa (bilkura libertadea emanaz); 1881-uztaila-16koa (irakaskintza debaldekoa deklaratuaz); 1881-uztaila-29koa (prentsa askatasuna eskainiaz); 1882-martxo-29koa (irakaskintza behartua eta laikoa legepetuaz).

tzarako. Ferryk Lehenen Irakaskintzaren Zuzendari izendatu zuen. *Pécaut*, eta *Steeg* Protestantismotik datoz, Artzain protestanteak ditugu, baina ortodoxia protestanteak ez ditu sobera kezkatzen, nahiago dute libreprintsamendua, *Pécaut*, Fontenay-aux-Roseseko Eskola Normalaren zuzendari izango da hamabost urtetan; *Steeg*, berriaz, Lehenen Irakaskintzaren Begiraria hogeitau urtetan. Denek dute fede laiko batbera. Ferryren ministroaldiak pasako dira, baina haren gizonek beren lekuetan segiko dute, betiko fede berari leial direla.

Ferryren tesia ezaguna zen 1870-az geroztik: benetako demokrazia posible izateko ez zen nahi guzietan boz-erabaketa Legearen baten bidez aintortzea; demokraziaren bidea irakaskintza eta eskolatik igarotzen zen. Eskolaketa berdina sortuko zuen egiazko demokrazia: «Aberriarentzat, liburuaren eta ezpataren bidez» (*Pour la Patrie, par le livre et par l'épée*). Asmoa hori zen eta ez zion ezerk berehala atzera eragingo.

a) *Goi Irakaskintza*: 1879-ko martxoaren 19an bi legegai eskaintzen dizkio Ferry-k Ganbarari:

— lehenengoak (1880-martxo-18ko Legea izango denak) etsaminetarako mahainburukoak beste era batetara aukerarazi nahi ditu, 1875-eko legearen mahainburua erabat Estatu Unibertsidadearen eskutan utziaz. Aurrerakoan Unibertsidadek bakarrik eman beharko lituzke tituluak. Hemen agertzen da 7gn. artikulua sonatua.

— bigarrenak (1880-otsaila-27ko Legea izango

denak), Irakaskintzako Goren Kontseilua birrantolatu nahi du. Falloux Legeak gotzainei dei egi-ten zien, Kontseilari izan zitezten, eta oraingo legegai berriak eskubide hau kenduko lieke apez-pikuei.

b) *Bigarren Irakaskintza:*

— Camille Sée eta Paul Bert-ek ministroaren oniritziarekin proposatutako legegaiak, 1880-
-abendua-21eko Legea emango du.

— 1881-uztaila-26ko Legeak neskatxen irakas-
kintza antolatzen du: Sèvres-en Goren Eskola
Normal bat sortzen da Estaduaren nexka ikas-
tetxeetarako maistrak, errientsak, prestatzeko.

d) *Lehenen Irakaskintza:* 1880-82 urteetan
parlamenduak maila hau erabat birmoldatzen du,
zenbait Lege berri sortuaz. Proposatu zireneta-
tik, bi ditugu Legerik jakingarrienak:

— 1881-ekaina-16ko Legea. Debaldekoa egiten
du Estaduaren Lehenen Irakaskintza eta Esta-
duaren irakasle-agiri baten beharra ezartzen die,
irakasten dabiltzenei.

— 1882-martxoa-29ko Legea: behartua (obli-
gaziozkoa) eta laikoa izango da Estaduaren Le-
henen Irakaskintza.

Erreformaren hasiera-hasieratik gogortu zi-
ren alderdiak, izan ere legegaiaren atzeko atetik
sartu nahi zen zazpigarren artikulua harek erabat
asaldatu zituen katoliko eta elizgizonak. Egia
esan, Goi Irakaskintzarako gal zitezkeen eskubi-
deek baino gehiago kezkatzen zuen Eliza Kon-

gregazioneen etorkizunak eta lehen mailako irakaskintzak.

Ferryren berrikuntza hiru pondutan finkatzen zen: irakaskintza *debaldekoa*, *behartua* eta *laikoa* izango zen. Horiek ziren legegai guzien mui-na .Debaldetasuna, noski, lehenen irakaskintzarako bakarrik eskatzen da oraindik. 1882-ko legeak eskola beharra eta laikotasuna ezartzen die frantsesei, baina gobernuak ezingo du asmo hau bat-batean egintzaz egiztatu, beharreko lituzkeen maisuak ere falta bait zaizkio. Laikotasunak nabarmentzen du eskolagintza hau: irakaskintza, izpirituzalea da eta «arbasoen moralak» erakutsi behar die haurrei; Frantziaren tradizioari uko egin gabe, haren ikasbide zaharra erakutsi behar du, «Jainkoarekiko betebeharrak» ere emanaz. Erlijio-irakaskintza kendu egin da, baina aberriaren moral hura eskainiko zaio umeari (152).

Esan denez, borrokagairik latzena 7gn. artikulua izan zen. Artikulua eztabaidatzen zen bitartean aldatu ziren ministroak, hasarretu gotzainak. Bi urte luzetako liskarra izan zen hura, eta hainbesteko hasarre harek ez zion deus lagundu bilatu nahi zen zuzenbideari. Izan ere katolikoek auzardiak bat baino gehiago bultzatu zuen elizjendea uste izango ez zen aldera, Ferry-rengana alegia. Josulagunen kontrako asmoa zuen artikulua, Kongregazione guzien kontrakoa bihurtu zen (153).

(152) Ferry prest zegoen apaizak, nahi zutenentzat, kristau ikasbidea eskolan eman zezan; baina katolikoek ez zuten onartu tipikeria hau, eta ia dena galdu zuten: legeak astero ordubete bat utziko dio libre nahi duenari, ordu horretan haurrari erlijioa eman dakion.

(153) Cfr. beherago eztabaida honek Kongregazioneekin ukan zuen zerikusia.

Deputatu Ganbarak afrogatu zuen artikuluak Senaduan ez zuen aurrerabiderik aurkitu eta horrela amaitu zen haren historia. Baina, bienbitartean, Frantziako iritzi publikoa behinbetirako erdibiturik gelditzen da ikastola-hauzi honetan. Dreyfus-enaren aurretik, borrokaldi hau izan zen, agian, gogorrena III Errepublikan. Ez da harritzeko, beraz, 1882-ko abuztu-irailletako bozaldian esandakoak irakurtzea (154).

1881-eko bozketak ezkerria indartzen du berriz ere, eskuindarrak aho zabalik, esplikabiderik gabe gelditzen ziren bitartean: 208-tik 88-tara erortzen da eskuindarren deputatutza, ezkerrek egundoko arrakasta duen bitartean (155). Euskal Herrian ere giroa sargori da, eta nork daki ez ote den hurbil ekaitza: alderdi bakoitzak esan beharrekoak esan zituen, horregatio! (156). Erlijio-

(154) Adibidez, *Marseillaise anticléricale* bat kantatzen zen egun haietan. Hola zioen:

“Allons, fils de la République,
Le jour du vote est arrivé
Contre nous de la noire clique
L’oriflamme ignoble est levé...
Aux urnes citoyens,
Contre les cléricaux
Votons, votons,
Et que nos voix dispersent les corbeau”.

(155) 46 radikal, 204 Gambettarenak, 168 Ferryrenak, 39 erdiezkerrekoak.

(156) *l'Indépendant*-ek zera esaten zuen, adibidez (1881-abuztua-20): “Voter pour un légitimiste, c’est voter pour la contre-révolution, le drapeau blanc, la misère du peuple, l’écrasement du paysan, et le triomphe des Jésuites avec de Chambord. Voter pour un bonapartiste, c’est vouloir la corruption, la guerre sans fin, le gaspillage des finances, la honte, l’inva-

-hauzia izan zen Euskal Herrian, politika-programatzen lehenen kezka. Ezker-eskuinak harrika ari izan ondoren, euskal bozemaileek agertu dute beren iritzia. Hiru deputatu hauta beharrekoetatik, errepublikazaleak aukeratzen dira bi (Baiona I-tik, Plantié, Baionako auzapeza; Mauletik, Pradet-Ballade) eta bonapartista bat (Labat, Baiona II-tik) (157).

Legegaiaren eztabaida gogortxo eraman bada, Gobernuak badaki Legeen aplikapena kontuzago bete behar dela, katolikoak gehiegi sumindu gabe alegia. Ikastoletatik ez dira erabat kentzen erlijio-agergarriak, eta ez da eragozpenik jartzen, halakorik eskatzen denean, Kristau ikasbidea emateko. Politikaera honek eta katolikoek elkartu ezinak posibletzen du Legeen aplikapena. Pariseko ikastetxeetan egiten da lehenik eta bortizkiena ikastolen erreforma hau eta Udalak berak ezartzen du ministroaren begirada babesgarripean.

Legez, irakaskintza laikotu da; baina, orain-

sion et le démantellement de la France". Ikus MICHEU-PUYOU, J.: aip. lib., 137.

(157) Euskal Herrian, guzira, 13.795 boz eman dira errepublikazaleentzat eta 13.184 eskuindarrentzat. Jendearen iritzia ez dira, beraz, alde bakarrerakoak eta nahiko berdinduak daude alde bietako indarrak. Etorkizunera ez dago oraindik (berehala ikusiko denez) euskal errepublikazaletasuna batera segurtaturik. Gogora dezagun gainera, bozemaileetatik %25 emangabe gelditu direla. Ikus MICHEU-PUYOU, J.: aip. lib., 324-326. Hala ere esplikabide argiago bat beharko litza-ke Euskal Herri kontserbakorrak, kinka gaizto honetan, hainbeste boz ezkerari zergatik eman zizkion jakiteko. *L'Indépendant*-ek bestelakorik uste nahiaren, Euskal Herriak ez bait du funtsean bere kontserbakortasuna baztertu eta ahantzi.

dik 3.400 Kristau Eskoletako Anaia eta 15.000 moja Estaduaren eskoletan zuzendari diren birtartean, laikogintza noraino hel liteke egiaz eta benetan? Egoera arriskarri hau konpontzera datoz ondorengo Legeak: 1881-eko ekainaz gero fraide-mojak Estaduaren irakasle-agiria ardiestera behartuak daude. Baina erabaki honekin ezer guti aurreratu da laikogintzan, erlijioso gehienek lortu bait dute agiria. Xuxenago ekin beharko zaio laikogintzari.

Irakasleriaren eraberritzea martxan jartzeko, Bert-ek aurkezten du legegaiaren proposamendua. Jakinkarriak ditugu Bert-ek ematen dizkigun arrazoinak: Kongregazioneak ez dute ikastoletan jarraitu behar, ez bait dira inor hezitzeko lain, hauek Errepublikak eskatzen dizkien printzipioen kontra daudelako eta egiten duten obedientziatzko zinitzak noiznahi Legearen aurka daramazki. Jakina, katolikoen erantzuna erraza da, Errepublikaren Konstituzioa legeetan bait dago: legeak —diote haiek— ez ditzake hirigizonak desberdinki har, denak legearen aurrean berdinak direla esan ondoren. Bert-en legegai 1886-urria-30ean Lege bilakatzen da, eta Lege honekin iristen da 1880-86ko erreformaren gailurrunea. Legearen arabera, Kristau Eskoletako Anaiak Estaduaren ikastoletatik bost urteren buruan baztertu behar dira, apaizak ezingo dute udaletako ikas-batzordeetan parte hartu eta mojen hutsuneak sortzen direnean irakasle sekularrez beteko dira. Oraingoan laikogintza bide onetik doa; eskolaren neutraltasuna geroz eta garbiagoa izango da. Edukatzaileak ez dezake erlijiozko ogibi-

derik eduki; eskola barnean ez dago orain, orduz kanpora ere erlijiorik erakusterik.

Eztabaida, luzea izan da: 1882-martxo-28ko Ferry Legea hamabost hilabetetan eztabaidatu baldin bazen, Bert-en legegaiaren eztabaida 32 hilabete luzatzen da. Azkenik, Errepublikaren ikastola berea bakarrik izango da eta ikastola libreen duen lehiaketan, debaldetasuna lagun, bideak nahiko erosoak ditu.

Ikastolaren iraultza errepublikatiarra egin da; baina zer dio Elizak erasoaldi hau jasatean? Frantziako Gotzaineria ez da iristen *boicot* bat egitera; zalantza askoren ondoren nahiago du udaletan —legearen arabera— sortuko diren ikastola-batzordeetan parte hartu kristau sekularren bidez. Baina hasarrerik ez da falta apezpikuegan, Dupanloup-engan esate batera, zitalkeria eta itxurakeriarik zipotzena uste duten erreforma haretan:

Xederik bikainenaren estalgarripen —eta hemen dago hain zuzen arriskurik handiena, horixe bait da lilura gaitzakeena—, jakinbideak zabaltzearen atxakiaz eta ezjakina desegin nahian, sinesgabekeria zabaltzen da, erlijioari gerra egiten zaio, eta, nahi bada eta ez bada, moralaren eta gizarte-hondamendia prestatzen da (158).

(158) “*Sous le couvert d'un but excellent, —et c'est là le grand danger parce que c'est ce qui fait illusion—, sous prétexte de propager l'instruction et de faire la guerre à l'ignorance, on propage l'incrédulité, on fait la guerre à la religion, et l'on prépare, bon gré mal gré, la ruine de tout ordre moral et social*”. Latreille-ren liburutik jasoa, 389 horr.

Bestetan halakorik erakutsi ez bazuen ere, oraingoan asmatzen du Mgr Freppel eskuindarrak errealidadea begi lausorik gabe ikusten, aipatuko diren 400 hauzigizonen dimisioarena gomentatuaz:

L'Univers eta *La Gazette de France*-ko jaunok Mendebaldea atzetik joango zaiela uste dute, oihuka eta harma eta guzi. Bai zera! Ez da, ez, fusil bat ere gure alde jasoko, eta ez dugu hauzi gizon horiek goserik hil ez dakizkigun behar den dirurik ere aurkituko. Protesta dezagun, ikastola libreak jaso; sar gaitezen ikastola-batzordeetan, gurasoak agintarien zapalketatik gordetzeko; eska dezagun legearen deuseztatzea; ikasarez ditzagun legeak ekarriko dituen gehiegikeria eta itsuskeriak; baina, jainkoarren, ez dezagun zuzper jarrailerik gabekoa izango dugun gudaldi bat (159).

Katolikoek ez zedukaten premiazkoa zuten batasunik. Eta zerbait egin nahirik, prentsaren horrialdeetan agertzen dira katolikoen sumindurak eta politikan Boulanger jeneralaren aterpea

(159) “Ces Messieurs de *l'Univers* et de *la Gazette de France* se figurent que l'Ouest est debout derrière eux, fremissant en armes. Hélas! non seulement pas un fusil ne se lèverait; mais nous ne trouvons pas assez d'argent pour empêcher nos magistrats destitués de mourir de faim. Protestons, fondons des écoles libres, entrons dans les commissions scolaires pour protéger les pères de famille contre les vexations de l'autorité, demandons l'abrogation de la loi, signalons les excès et les abus auxquels elle va donner lieu, mais de grâce, ne commençons pas une campagne de révolte dans laquelle nous ne serions pas suivis”. LATREILLE, A.: aip. lib., 468.

bilatzen dute (160), honen abertzaletasun desgairaitutik probetxu baino kalte gehiago jasoaz. Senaduan nahi duenak entzun ditzake katolikoek kexuak, halanola Chesnelong ezagunak:

Jakinbidea guzienganatu nahi duzuela Frantzian diozuenean, ez duzue zuen asmoaren erdia baizik esaten: zuek, irakaskintza kristaukontrako bat nahi duzue guzienganatu eta kristau irakaskintza hondatu (161).

Frantzian eztabaida hau honela zen bitartean, zer zioen Leon XIII-ak? Aita Sainduak ez zuen bota jendeaurrerako kondenamendurik. Ez zen noski Ferryren lanarekin ados; baina, behar bada

(160) *Georges Boulanger* (1837-1891) jeneralaren ingurumarian biltzen dira kontentagaitz guziak (1887-89): "syndicat de mécontents" honetan elkartzen dira errepublikazale agintaristak, parlamenduaz nazkaturik dagoen zenbait radikal (kondekorazioen eskandaloa, 1887), abertzale mendeku-goseak (*républicains*), bonapartista eta orleandiar batzu. 1886an Freycinet-ek Defentsa Ministrotarako deitzen dio, eta laister bilakatzen da abertzale antiprusiar guzien abots. Rouvier, eta errepublikazaleak, haren aginte-nahi eta demagogiak benetan kezkarazten ditu, eta baztertu egiten dute (1887, maiatza). Déroulède eta Rochefort-ek berotzen dute orduan "martiri zapalduaren" alde jendearen abertzaletasuna: *boulangisme* delakoa da. 1888an politikari ekiten dio eta urtebeteren buruan bost departamenduk (azkenekoa Parise da) hautatzen dute deputatu. Jarraileek *l'Élysée*-ra bultzatzen dute, aginteaz jabe dadin, baina, dena punttu-puttuan zegoenean, atzera egiten du. Ez zen ausartu. Presondegiratuko dutenaren amenazoaren beldurrez, 1889an ihes egiten du Bruselera. Senaduak 1889-abuztuan kondenatzen du. Mme. Bonnemain bere maitaleari hiltzen lagundu ondoren, tiroz hiltzen du bere burua Brusele ondoko Ixelles-en.

(161) LATREILLE, A.: aip. lib., 463.

gurasoei legeak aitortzen zizkien eskubideen bitartez, posible izango zen ikastola neutraltasun egoki batetan mugatzea (162).

Caperan-ek esan duenez —eta bat baino gehiago da holaxe pentsatzen duena—, laikogintza aurrera eraman baldin bazen, katolikoek batasun gabeziagatik izan zen. Eta ezkerrek erabili zituen indarreetatik ere bai noski. 1866-an eraiki zen *La Ligue Française de l'Enseignement*, laikogintzari lagun zezaion: 1870-ean, 18.000 atxikimendu jasoak zen. Milaka lagunkide hauek udal eta herrietan egin zuten beren lana, giro-berritzea eraginaz eta, legeak horretara bidea ireki zuenean, udal-ikastoletarako laikogintzaren irtenbidean erraztuaz. *Ligue* delakoa gora eta Kongregazioek beheara, laikoek segurtatzen doaz beren ekintzaren geroa.

5.3. Erlijio elkarteak

Urte askotan Frantziako ikastolak, direlako Kongregazioneen eskutan egon ziren. Legearen aurrean, elkarte hauek bi eratakoak izan zitezkeen: 1804-ean finkatu zuen Napoleon-ek, mende beterako haien lege-egoera. Ondasun jabe izan daitezkeen *baimendunak* (*associations autorisées*) ditugu alde batetik (Lazaristak, Herbestetarako Misiok, Izipiritu Sainduaren Misiok eta mojen elkarteak), eta Kongregazione *pairatuak*

(162) Ferrata Kardinalak esana ere gogoan edukitzeko zen: "Ikastola kontutan zaila da, praktikan, erabat baztertu behar dena eta paira, eraman, daitekeena berezte".

(*tolerées*) bestetik. Monarkiaren Berrikuntzakoan egoera berdina legepetzen da, baina beste zazpi Anai-Elkarte publikoki probetxuzkotzat emanaz. Marista, Marianista, Kaputxino, Josulagun, eta abar pairatuen artean gelditzen dira orain ere. 1825-eko Legeak erraztasun bereziak ematen dizkie emakumezko eliz-elkarte hauei, eta laister 12.400-etatik 25.000-taraino igoko dira mojak.

Lege horien ondoren, gizonezko Kongregazio-neek, onartuak izateko, Ganbararen oniritzia behar dute; mojek, aldiz, aski dute administrazioarenarekin. Gobernuen «laguntzari» esker, 1860-an Frantziak baditu 30.200 fraide eta 127.000 moja (1789-an baino gehiago). Badaduka esplikabiderik goraldi honek: zabaltzen doan irakaskintzak langile berriak behar ditu; erromantizismoak eta ultramontanismoak bizkortu dituzten eliz-jaierek (Andre Mariarena, etab.) laguntzen dute, eta burgesiak berak ere, 1850-az gero, elizarako joera du.

5.31. Kongregazioneak kanpora?

Erlijosoen berpizkundean bi elkarten historia azpimarkatu behar da batez ere Frantziaren XIX mendean, josulagunena eta asonzionistena. *Josulagunek* gorabehera handiak izan dituzte mendea zehar: hasteko monarkiaren Berrikuntzak onartu egiten ditu; laister (1826), ordea, Montlosier polemistaren erasoak jasango dituzte, eta Uztaileko Monarkian sakabanatuak izango dira (1842-45). Falloux Legepean libreki irekitzen dituzte josulagunek beren ikastetxeak. *Asonzionistak*, 1845-ean jaioko ditugu. Elkarte jaiobe-

rria bi tresnez baliatuko da pentsamolde borrokari bat zabaltzeko: trenbideek santutegietara erromeriak eratzea erosoagotuko diote eta merke-merke zabalduko dituen aldizkariak —eta egunerokoak— katolikoek iritzien bultzagarri bezala erabiliko ditu. Teknika berriok erabiliaz ideia zaharrak hedatu nahiak berotzen zituen errepublikazaleak (163).

Errepublikak bazekien liberal izan behar zue-na, eta askatasun bideak legeetan aitortu zituen: komundiarrei amnistia (1880), bilkuretarako libertade osoa, prentsa askatasuna... Eta elkarte-libertadeaz zer? Hor ageri zen liberaltasunaren arriskua. Errepublikazaleek bazekiten Kongregazioneak berehala zetozena (164), eta —programa politikoez ziotenez— benetan desegin beharrekoak zirenez, ez zegoen bizibiderik eskaintzerik.

Legeak ezarritako mugapenak gorabehera, eliz-elkarteok bizi dira eta hirmotzen doaz egunetik egunera. Eta horra, batbatean, hodei-estaltzen ari zen zeruan, txismista beltza. Ferryk legegai bat aurkezten dio parlamenduari, sonatua izango den *7gn. artikulua* bat barnean duela (1879-

(163) Ikus DANSETTE, A.: aip lib., 150, 200-201, 216-218, 249-250, 381-382.

(164) Giro honen aurre-kondaira ezagutzeko, 1871-ko el-karte-legeari buruzko eztabaidak ezagutu beharko genituzke. Orduan errepublikazaleek erabateko askatasuna eskatu zuten, guzientzat libertade berdina ematen zela eta Kongregazionei inolako lege-abantailarik eman gabe. Erdiezerrekoak ados ziren proposamenduarekin, Dupanloup adibidez; baina ezker eta eskuin-buruetakoa ez zetozen bat. Bakoitza, zegoen tokian gelditu zen, edo hobeki esateko: Kongregazionei hanartean ez zuten lege-ezagupen bat eman zitzaien.

martxo-15): *baimendunak* ez diren erlijioso-elkartekoek ezingo dute irakaskintzan parte hartu. Beraz, josulagun, domingotar, marista eta bestek debekatua dute Elizaren eta Estaduaren ikastoletan irakastea. Ferryrentzat, josulagunen arriskua, irakaskintzan duten zereginetatik dator, haien ikastoletan

eskolatzen bait da Kontrarreboluzioa, haietan ikasten da Frantzia modernuaren izan-arrazoin eta ohore diren ideiak gorrotatu eta madarikatzen (165).

Berriz ere ikastolaren hauzia dator gainerako arazoetara. Zazpigarren artikulua eztabaida eta ondorengoak leherrarazten dute Kongregazioen kontrako lehenen ekaitza. Zazpigarren artikulua 1879-uztaila-9an afrogatzen da Deputatuen Ganbaran; estabaida unerik beroenean sartzten da, Senadura pasatzen denean (1880-urtarrila). Senaduak ezezkoa ematen dio artikuluari. Baimena ukatu zaio, baina Gobernuak badaki nondik jo: «dekretuak» aplika daitezela agintzen du. Hauen arabera, josulagunek ez dute Frantzian jarraitzerik eta Kongregazio *baimengabeak*, baimena eskatzera behartzen dira. 9.000 fraide eta 100.000 bat moja irtetzera bortxatuko ote ditu Gobernuak? Ikaragarria da zarata (166), eta

(165) DANSETTE, A.: aip. lib., 415.

(166) DANSETTE, A.: aip. lib., 416. Hola zioen, adibidez, Meaux-ko Seminarioan idatzitako dei batek: "Aux armes, fus des croises. Vive la Liberté et vive la Religion! Vive le Roi et vive le Christ! Mort aux écorcheurs! Tue les républicains! Aux Armes! Aux Armes!".

tribunaletaraino heltzen da. Gobernuaren sakanaketa agindua kontzientziaz ezin jarraiturik, 400 hauzigizonek utziko dituzte tribunalak. Kongregazioneetako goi-agintariek, josulagunekin bat eginaz, ez dute baimenik eskatuko: 1880-ekaina-29an fraidetegiak histen hasiko da Gobernua (167).

5.32. 1902-ra arte

Mgr Lavigerie Kardinalak, Gobernuan segidion Freycinet-ekin mintzatu ostean, fraide-agintari haiei irtenbide egoki bat eskaintzen die Gobernuaren izenean. Elkarrizketa, isilpean eramatekotan hasi du Freycinet-ek. Zoritxarrez, *La Guyenne* aldizkari eskuindarrak (hauek ez zuten nahi Errepublikapean konponketarik), norbaiten saldukeria tarteko dela, erlijiosoek izenpetu behar zuten idazkia argitara ematen du, Freycinet-ek zerabilzkien zuzemen bideak ezkertiarrei jakinaraziaz. Freycinet, ministro aulkia uztera behartzen dute, eta berriz ere Ferryk ekingo dio lanari. Hala ere, erlijiosoen sakabanaketa erabakiak nolabait bakarrik beteko dira eta, laister, askok komentuetara itzultzeko erarik ukanen du (168). 1880-ko moderatuen erasoaldiak ezer guti aldatuko du Kongregazioneen lehengo egoera; baina ezker radikalari eta eskuindarrei, zertaz berotu eta

(167) Jakitekoak eta farregarriak benetan erabaki honek Euskal Herrian sortu zituen gorabeherak. Belok-en, fraidetegitik bota zituztenean, leihotatik itzuli ziren monastegira; eta jerdarmak ez ziren berriz agertu. Ikus DARRICAU, ILDEFONSE: *L'Abbaye de Belloc*. 1875-1955. Belloc, s. d., 30-31.

(168) DANSETTE, A.: aip. lib., 414-420.

«egokierazaleen» kontra zergatik, ekina eskaintzen gelditzen zaie.

1892-an, elkarte-legegai berri baten eztabaidak eroriaraziko du Freycinet berriz ere; baina Freycinet-en oraingo legegai hau lehengo hura baino asmo gaiztoagokoa zen noski eliz-elkarteentzat. Radikalek —Estaduaren eta Elizaren apartaketa nahi zutelako— eta eskuindarrek bat egiten dute legegaiaren kontra eta Freycinet-ek utzi egingo du ministro aulkia 1892-otsaila-18an. Bezperatik, 17an argitaratu zen *Le Petit Journal*-ean Leon XIII-arekin edukitako elkarrizketa: Aita Sainduak katolikoak errepublikaratzea nahi zuen, agi zenez.

Waldeck-Rousseauren gobernura arte (1889-ekaina-22 / 1902-ekaina-2), barealdi luzexka bat ezagutuko dute Kongregazioneek. Dreyfus-en hauziak dakarkien giro-aldaketarekin emango da gudaketarik gogorrena Kongregazioneen aurka. 1898-an moderatismo zaharra agortu eta zokoratzeko dago. Politikaera berriak datoz plazara, Dreyfus-en hauziak sortu duen kalapitaren ondotik. Ordurarte sakabanaturik zebilen eskuinak batasuna idoroko du. Ordurarte defentsa-minez zebilena, igaroaldien gosez bizi zena, elkartu egiten da eta Errepublikaren atakakizunik erosoena aurkitzen du Dreyfus-engan. Déroulède, Barrés, Maurras eta *l'Action française*-k (1899) pentsabide mugarritu bat eskaintzen die eskuindarrei. Agian, Boulanger-en diktadura-gogoak (1888) arrisku kaskarragoa izan zuen, oraingo eskuinak baino. Ezkerrak ere batasuna bilatzen du, *Bloc des gauches* delakoan; oraingo hau da Errepubli-

karen bigarren ekintzailea. *Bloc* berria, eskuindarren 1900-go erdi-garaipenak, hertsiago egin zuen oraindik *Bloc* honen barne-batasuna. Eta *Bloc* guziaren bateratzaile bezala eta gidari radikalismoa gertatzen da, sozialista eta zenbait moderatu ere tartean duela.

1899-1906 urteetako politika-ibilaldia talde horien gidaritzapean egiten da, eta geroz eta ezkererago linburtuko da politika-ekintzaren antiklerikalismoa (169). *Bloc*-a da politika horren gurasoa. Ahiurriz moderatua zen Waldeck-Rousseau-rentzat, Kongregazioneen bizitza Errepublikaren deretxoaren beraren kontra dago, eta berak deretxo-Estadu bat nahi du, eskubideari eta legeari lotua; Kongregazioneek, Estaduaren barneko lege-lotura bera hausten dute. Errepublikari Estadu bati dagokion legezko barne-egitura hura bihurtu egin behar zaio. 1899-ko udazkenean Waldeck-Rousseau-k elkarte-legegai bat aurkezten die deputatuei. Legegaia eztabaidatu eta afrogatu aurretik ere ministroak asonzionistei erasoten die, 1900-ko urtarrilean sakabanatuaz.

1901-ekaina-22an afrogatzen da Ganbaran Elkarte-Legea, 303 boz alde eta 224 kontra dituela (170): harrez gero frantsesak askatasun osoan

(169) BOUJU, DUBOIS: aip. lib., 66. "...engagés sur leur gauche avec les socialistes, engagés sur leur droite avec les modérés de l'Alliance, Waldeck-Rousseau et Combes n'avaient du qu'orienter la République vers un anticléricalisme toujours plus actif. Car il fallait que la République fût militante. Le même sentiment, qui, en 1899, inspirait obscurément aux radicaux leur ralliement à la croisade révisionniste, dicte, explique leur action au long des sept années suivantes".

(170) Euskal hiru deputatuek (Baiona I-ko Legrand, Ba-

elkar daitezke; baina zuzendaritza herbestean dadukaten elkarteek nahiz Giza edo Hirigizonaren eskubideak zapaltzen dituzten elkarteak debekatu egiten ditu Legeak. Nornahik dakienez, Legearen berezketa hau Kongregazioneentzat pentsatua izan da. Elkarte denei libertatea emango dien Legeak, kentzen die askatasuna Kongregazioneei. Waldeck-Rousseuren asmotan, Lege hau kontrolbidea da; berak ez du Kongregazioneak desegiteko asmatu. Baina Legegaia aztertzeke sortu den Batzordeak eliz-elkarte haien hondamendirako nahi du, eta areago: erlijioso izanei debekatu egiten zaie ikastetxeetan partehartzea. Legeak, eskatzera behartzen duen baimena ukatzea aski izango zaio edozein gobernu ezkertiarri Kongregazioneak suntsi ditzan.

Waldeck-Rousseauk berak ez du urrunegi joan nahi, eta ezkertiarren uretan hondo-hondoraino murgildu nahi litzakeen Legea salba nahiaz, asmatu duen irtenbide bat Elizari eskaintzera doa: zergatik ez erlijiosoak apezpikuaren egintepEAN jarri (honela, zeharka, gobernuak kontrolgailu bat ere ukan dezan)? 615 Kongregazioneek eskatzen dute Legepean behar den baimena; 215, eskabide egin gabe gelditzen dira, eta hauen artean Jesusen Lagundia (171).

iona II-ko Harriague Saint-Martin eta Mauleko Pradet-Ballade) legegaiaren aurka eman zuten beren boza. Ikus MICHEU-PUYOU, J.: aip. lib., 312. Pabe II-ko Contaut-Bironek ere kontra eman zuen, departamenduko besteek (Barthou, Iriart d'Etchepare eta Cledou) alde ematen zuten aldi berean.

(171) Waldeck-Rousseauarekin, Kongregazioneek ez dute Ferryrekin 1880-an segi zuten politika bera eta bakarra gordetzen. Elizjendeak ere ez du 1901-ean hogeitau urte lehenagoko monarki-itxaropenik. Ames zaharrak hilda dira.

Legea lege, agindutakoa egintzetan itzuli behar zen eta Legea bera baino latzagoa gertatuko zitzaion Legearen aplikapena Elizari, 1902-ko bozketa sartu bait zen tartean. Zer esango ote zuen bozemaileak 1901-ean erabakitakoaren aurrean? Erlijio-hauzia, zuzen-zuzenean gertatzen da bozketa-bilkura eta propagandetako eztabaidagaia. Eta guzien eztabaidagaia, eskuinekoena eta ezkerrekoena. *Bloc*-ak irabaziko du bozetan, eta erai-ki berri den *Parti Radical*-ak bereziki: 340 deputatu ezkertiarrentzat, 250 eskuindarrentzat. Eta, batez ere, Ganbarara datorren oraingo ezkerre lehengoa baino ere puntakoagoa da. Borroka-gogoz dator, bozaldietako odol beroa epeldugabe duela, izan ere zitala izan bait da benetan ekinaldia. Bozketa bezperetan hala aldarrikatzen zuen Lurdeko predikari batek:

Hartzazue ezpata, har bozketaren ezpata, onak eta gaiztoak elkarrengandik aparta ditzan... Datozen bozetan, bi partidu bakarrik izango dituzue aukeragarri, Barrabasena eta Jesukristorena... Barrabasen alde emango ote duzue zuen boza?

Eta bozemaileek «Barrabas»-en alde hitzegin zuten. Waldeck-Rousseauk, bestelako asmoz emandako Elkarte-Legea, orain, erlijio kontrako ezpatarik zorrotzena da Radikalismoaren eskuetan. Waldeck-Rousseauk ez zuen Errepublikak, Elizaren aurkako bengakizu-gosetatik gorde. Bozketa ondoren, Combes jabetuko da aginteaz, uste zenez Waldeck-Rousseau beraren asmoak egiztatzekotan.

5.4. Ralliement: errepublikaratzea

1878-an hiltzen da Pio IX-a eta Leon XIII-arekin haro berri bat hasten da Elizan. Biharamunean, 1879-an, jabetzen da bere buruaz Errepublika. Urte berean dator Parisera Nontzio berria, Mgr Czacki, eta eskuindar gidariekin mintzatzen da berehala; baina, espero ez zutena gogoratze-ko: Frantzian badela Errepublika bat alegia. Eta politiko antiklerikalekin harremanetan hasiko da, harreman ofizialetatik kanpora ere. Badirudi diplomazia berri bat jaio dela Erroman.

5.41. *Laikogintzaren erasopean*

1880-1886etan laikogintzaren erasoak gogor dator, baina Aita Saindua isilik dago. Katoliko am-rekaintzak ez dute sobera ulertzen sistema berri hau, Pio IX-arenean eskolatuak bait dira gehienak. Leon XIII-ak maiteago du isilpean lan egin eta eztabaidak isilik gozatu, katolikoak elkartuaz eta gobernuarekiko harremanak leunduaz. 1883-an hiltzen da Chambord-eko kontea, 1884-ko urtarrilean Veillot, eta 1884-eko otsailean argitaratzen du Leon XIII-ak bere *Nobilissima Gallorum Gens*. Aita Sainduak erlijio-politikaren eztabaidan argiluneak azpimarkatu nahi ditu. Elizaren eskubideak defenda daitezela eskatzen du, baina defentsa hau ez dadila bestelako politika gogoekin nahas. Monarkizaleek ulertu zioten noski, baina ez zitzaion jarraitu bakezko jokabide honetan. Gotzaineriak ez zion lagundu eta kaze-tari katolikoek ere ez (172). Egia esan, lehenen

(172) Aita Sainduak eskutitz bat egin zion Mgr di Ren-

laikogintza-aldiaren beroan errazagoa zen agian Erroman burua hotz eta argi edukitzea, Frantziako hestualdien barnean baino (173).

Hala ere, Frantziak baditu Errepublika barnean katolikoaren politika-gidari izan daitezkeenak. 1885-ean Albert de Mun-ek Alderdi katoliko bat sortu nahi du, geroz eta biziago datozen sozial eskakizunak serbi ditzan (174). Partidu Katoliko-aren ideia honek pottegiten du, asmoa onar ez zezakeen asko bait zen. Monarkiko zaharrak, beren alderdia aitortzen zuten partidu katoliko bezala; ez zituzten galdu nahi erlijio-eztabaidak ingura zitzakeen indarrak. Katoliko kontserbakorrak, berriz, ez zuten deus maite Mun-en programa soziala. Frantzian Partidu Katolikoa ez zen posible gertatu hemen gobernamentuarena berarena, errejimenarena alegia, bait zen eztabaidakizun. Europako beste zenbait erresumatan (Beljika, Austria, Alemania, etab.) ez zen honelakorik, baina Frantziako katolikoak zatikatuegiak zebiltzen errejimenaren hauzian Partidu bakarrean elkar zitezten. Leon XIII-ak nahiago izan zuen, eskuindarren alderdikieriatan Elizaren etorkizuna murgildu baino lehen (hau zen izan ere amestutako Partiduaren berehalako arriskua),

de-ri kazetarismo katolikoaren itsumenduaz mintzatuaz (1884-azaroa-4). Ikus hontaz DANSETTE, A.: aip. lib., 438-439. L'Univers-ek ongi konprenitu zuen esan nahi zitzaiona eta behar zuen zuhurtziaz ohi baino gehiago baliatu zen ondorengo hilabeteetan.

(173) ROPS, D.: aip. lib., 138.

(174) ROLLET, HENRI: *Albert de Mun et le parti catholique*, Paris, 1947.

Mun-en ideia baztertu (175). Aita Sainduak ez zuen nahi izan katolikoak, katoliko bezala politika-elkarte bakarrean, bil zitezenik.

1885-eko bozaldiak datoz eta, Aita Sainduaren eskabidez, Lavigerie Kardinalak eskutitz bat zuzentzen die katolikoei, agintariei zor zaien menpekotasuna gogoratuaz. Erromak ez ditu katolikoak ohi den politika bide zaharretan ikusi nahi. Alditxo batean, Rouvier eta Tirard-en ministroaldietan (176), antiklerikalismoa ahaztuxea izango da, *boulangisme* delakoa tartean egokitu zelako. Rouvier-en gobernuak eskuindarrak behar ditu Boulanger eta oraindik honek berarekin dituen ezker radikalek, Errepublika itsas handitara era-

(175) DANSETTE, A.: aip. lib., 440. ROPS, D.: aip. lib., 160.

(176) *Maurice Rouvier* (1842-1911) Gambetta-ren gerizpean hasi zen politika bidetan. Oso-osorik sartu zen diru-ara-zoetan eta, azkenean, administrazio-kontseilurik garrantzizkoenataraino heldu zen. Zazpi aldiz izan zen finantzetarako ministro, eta 1887-ko ekainean ministro-kontseiluaren lehendakari bilakatu zen; baina panamistetako bat gertatu zen 1892an. Politikatik bazterturik egongo da 1902-an Combes-ek berriz deitu zion arte, hain zuzen orain ere finantza-ministro izan zedin. Berrero lehen ministro (1905-urtarrila/1906-otsaila), bere gobernupean bozkatzen da Eliza-Estaduen apartaketaren Legea (1905-abendua-5).

Pierre Emmanuel Tirard (1827-1893) ere finantza-gizona da, eta askotan izango da merkatalgoaren ministro. Sadi Carnot bere lagunak deituko dio ministro-kontseiluaren lehendakari-tzarako eta bitan izango da kontseiluaren lehendakari: 1887-abendua/1888-martxoa, 1889-otsaila/1890-martxoa. *Boulangisme*-aren aurkako ekinean jardunean ahalenginduko da, eta egin-behar honen betekizunak zuzenduko du bere politika.

Rouvier eta Tirard-ek betetzen dituzte, beraz, 1887-ekai-netik 1888-otsailerainoko hilabeteak.

man ez dezaten. Rouvier-ek eskuindar alde bat, unean-uneko lagunkide bezala hartzen du Errepublikan salbatu nahiaz. Baina eskuinak erlijio-politika samurragoa eskatzen duenez, gobernuak amorremango du, eta berdin Tirard-ekin katolikoak *boulangisme*-tik apartatu nahirik. 1886-1890-etako erlijio-politika *boulangisme*-aren unaldien arabera egiten da. Urteotan ez da legeria berririk sortuko, erlijio-politikaren gorabehera guziaz legeen aplikapenean dago.

Berandu batetan, Boulanger klerikal bihurtuko da eta Tours-eko hitzaldi sonatuan hala esango zuen:

Errepublikak arbuiatu egin behar du oraingo honen ondare, herentzia, jakobinoa, eta erresumari erlijiozko bakegintza bat ekarri behar dio, sinesmendu guzientzat eta iritzi denentzako begiramen osoarekin (177).

Bazirudien, menturazko laisterbideetan menturatzeak zekazkien arriskuak nahiko argi erakutsi zizkiela errepublikazaleei eta katolikoei *boulangisme*-ak. Beharbada 1889-az gero ez zen unerik desgaraikoena akordio bila ekiteko. 1889-ko bozketak eskuinaren eta ezkeraren azkenburukoak hondatu egiten ditu (178); «egokieraza-

(177) DANSETTE, A.: aip. lib., 444: "La République... doit répudier l'héritage jacobin de la République actuelle, elle doit apporter au pays la pacification religieuse et le respect absolu de toutes les croyances et de toutes les opinions".

(178) Ezkermuturrean 112 radikal ditugu, eskuinmuturrean 138 monarkizale; baina erdiko ezker-eskuin indarrak egiten dute gora, 326 deputaturekin (216 "egokierazale", 38 er-

leak» goraka datoz berriz ere. Aita Saindua ere ari da bere aldetik lanean: errepublikazale-edo diren batzu izendatu ditu apezpikutarako eta hasi da bere iritziak argiago ematen:

(Aita Sainduak) ...uste du... erlijio-fedea edozein partidutan aurki daitekeela, eta hauetako bakoitzean izan behar duela errespetatua.

5.42. *Errepublikarako deia*

Ideia hauk bultzatzeko aski litzake alderdi ondrau bat, konfesionala izan gabe. Honetarako 1890-ean egingo da, entsegu bezala, lehenen deia; dei egitekoarena Leon XIII-ak baiones baten eskutan utziko du, Mgr Lavigerie-gan (179). 1890-eko azaroaren 12a da eta Frantziako Itsas-harmadako zenbait ofiziali bazkari batean ongietorria eman behar dio Kardinalak. Harmadako itsas-gizon hauetatik asko monarkizaleak dira, baina Alger-eko Artxapezpikuak ez du galduko egokiera, Frantzian katolikoek komeni zaiena

diezkertiar, 72 kontserbakor). Politikaren azkenburuetakoek galdu dute, ikusten denez. Euskal Herrian bi eskuindarrek (Labat-ek Baiona II-ean eta Etcheverry-k Maulen) irabazten dute eta erdi-ezkertiar batek (Haulon-ek Baiona I-an).

(179) *Charles Martial Allemand Lavigerie* (1825-1892) Baionan jaio zen eta Alger-en hil. 1863-an Nancy-ko apezpiku izendatua, 1867-an Alger-eko artxapezpiku eta 1882-an kardinal bilakatu zen. Afrikako misioetarako erakunde-lan paregabea egin zuen; berak eraiki zuen Aita Zurien misiolari elkarte (1868). Ikus ARTECHE, JOSE DE: *Lavigerie. El Cardenal de Africa*. Ed. Itxaropena. Zarautz, 1962. 221-235. ROPS, D.: aip. lib., 140. LEPONTAINE, GABRIEL: *L'Église et l'État en France*. Paris, 1964. 97-103. HIRIART-URRUTY, J.: *Mintzaira, aurpegia: Gizon!*, "Lavigerie Kardinala".

(Aita Sainduaren borondate isila) jakin dezaten. Bazkalondoan, ohitura denez, bazkalagur bat zor zaie bazkal-lagunei; Lavigerie-k, apropos, ez dio agurraren berririk eman —ohiturazko erantzuna presta dezan noski— maikide izango den Dupe-rré amiralari. Kardinalak badaki ez dela aukera hau kale egiteko eta agurra oso-osorik irakurri egiten du: Elizak ez du eskatzen uko egiterik, dio berak,

au souvenir des gloires du passé. Mais lorsque la volonté d'un peuple s'est nettement affirmée, que la forme d'un gouvernement n'a rien en soi de contraire, comme le proclamait dernièrement Léon XIII, aux principes qui seuls peuvent faire vivre les nations chrétiennes et civilisées, lorsqu'il faut, pour arracher son pays aux abîmes qui le menacent, l'adhésion sans arrière-pensée à cette forme de gouvernement, le moment vient de déclarer l'épreuve faite; et, pour mettre un terme à nos divisions, de sacrifier tout ce que la conscience et l'honneur permettent, ordonnent à chacun de nous de sacrifier pour le salut de la patrie... En parlant ainsi, je suis certain de n'être pas dévoué par aucune voix autorisée... Ce serait folie d'espérer soutenir les colonnes d'un édifice, sans entrer dans l'édifice lui-même (180).

(180) Elizak ez dio inori eskatzen "igaroaldietako aintzazko oroitzapenei uko egiterik; baina, herri baten borondatea argiro baieztua denean eta, Leon XIII-ak berriko esan duen bezala, gobernamendu baten izaerak *berez* deus kontrakorik ez duenean (hau da, nazio zibilizatuak eta kristauak biziaraz ditzaketen printzipioen aurka ezer ez duenean); hurbilean daduzkan arrisku-amildegietan eror ez dadin gober-

Argi hitzegin zuen Kardinalak, baita Duperré amiralak —bonapartista bera— ederki ulertu ere. Txundituta eta isilik gelditu zen, Kardinalak berak agur-erantzuna eskatu zion arte: *Je bois à Son Éminence le cardinal et au clergé d'Algérie*, erantzun zion laburki. Harridura bera izan zuen Frantzian beste askok. Berehalakoan joan zitzaizkion Aita Sainduari katoliko batzu: Piou politiko errepublikara-zalea alde batetik; Freppel erregetiarra (eskuindar 45 deputatuek izenpetutako dokumendu batekin) Lavigerie-ren kontra. Izan ere katoliko monarkizaleentzat kontzientzi problema bat zen errepublikaratzeko deia (181).

Kontzientzi problema horrek ematen digu katolikoek hain sakabanaturik erantzutearen esplikabide bat. Politika-bide jakina —betidanik ibi-

namendu horri azpi-asmorik gabeko atxikimendua zor zaionean, lehendik egin diren frogak egindakotzat eman behar dira. Etorri da gure arteko banaketak garbitzeko garaia, eta baita bakoitzaren kontzientziak eta oharrak baiezten duten heinean eta uzten duten haina opaltzeko ordua; guzoi aberriaren salbamenera opal gaitzela eskatzen zaigu... Segur naiz: honela mintzatzean, ez dut aginte-itzalik duen inoren gezurtapenik eramango... Zorakeria litzake, etxean sartu gabe zutabeak zutik eutsi daitezkeenik pentsatzea”.

(181) *Afrikarra* deitu zioten Lavigerie-ri. Kardinalak latzak jasan behar izan zituen eskuindarrendandik. Ehundaka itxuragabeko eskutitz jaso zuen. Gotzainak, berriz, onenean isildu egin ziren eta Lavigerie-ren alde agertu zen bat edo beste ere bortizki iraindua izan zen. Leon XIII-a bera ere ez zen mintzatu une gaizto haretan, hainbestekoa gertatu zen ekaitza. Gogora dezagun gainera, Lavigerie-k arriskatua ez zela guti eta huskeria bat izan, izan ere hasarrarazi behar zituen aberatsek berek sostengatzen bait zioten, beren diru-laguntzez, Afrikako misiogintza.

lia zuten bidearen kontrakoa— ezarriko ote zitzaizen monarkizale katolikoei? Nolabait ere —onartzen zituzten teologariek ziotenez— Aita Sainduak izpiritu balioen serbitzuan politika erabakiren bat ezar zezakeen; baina noiz eta nola? 1890-eko egoeran eta Frantziako arazoan hoinbestetaraino hel ote zitekeen Leon XIII-a? 1870-1880-ko hamarrekotan Elizak Beljikan eta Alemanian jasan zituen jipoialdiek ez zioten holakorik kontseilatzen noski. Teologariek gehiegi babesten ez bazituzten ere, eraman berri zen erresuma horietako historia —nahiko eskarmentagarria zenez— beren alde aipatzen zuten monarkizale katolikoek.

1890-etik 1892-ko deiaaren ondoren Leon XIII-ak bidegurutze zorabiagarri batean jartzen zituen. Aita Sainduak berak ere ulertzen zuen hori:

Bai, nik konprenitzen dut orain artean politika alderdien borroketan sarturik ibili diren gizonek Aita Sainduak eskatu diena bete ahal ez izatea; holakoak, ordea, erretira daitezela (182).

Leon XIII-ak *Rerum Novarum* Enziklika 1891-n ematen du argitara. Argitalpen honen ondoren, irailean langileen errumeri bat antolatzen da Erromara. Hogei mila langile biltzen dira. Hiri Sainduan hain zuzen 1870-ean Erroma erori ze-

(182) "Je comprends que les hommes qui ont été mêlés aux luttes de parti ne puissent pas faire ce que le Pape demande, mais alors qu'ils se retirent". Ikus DANSETTE, A.: aip. lib., 473. Orduan desegingo du Chesnelong-ek bere *Union pour la France catholique* (1892). Eta Mun ere beharhala aurkituko da Errepublikaratuen artean.

neko urtehurrena betetzean langileak handik direla. Errumesetako bi gaztek *Vive le Pape* bat idazten dute Vittorio Emanuelen hilobi ondoko koadernoan. Hau jakitean, errumesen kontrako kalebirak hasten dira; Frantziako Enbaxadatexea harrikatua da, errumesen trenak ere bai. Frantziako langileriak gauez utzi behar izan zuen Erroma.

Hone honetan Frantzian badu Fallières Kultu ministroak istripu bat ere: Mgr Trégaro apezpikuarekin hauzi bat sortu da eta gotzainen eta gobernuaren arteko eztabaida gogortzen ari dela, ministroak dei bat egiten die apezpikuei, Erromarako bidaietan parterik har ez dezaten, Frantziako agintariak ikusi den bezalako ustekabekoren batean aurki ez daitezen. Badirudi ministroak, gotzainak egiten dituela Erromakoaren errudun. Eskutitzak ez du diplomazia gehiegirik, baina gutiago du oraindik Aix-eko artxapezpikua-
renak. Badaude noski apezpikuen arte horrelako itxuragabeko liskarrak pizterik nahi ez dutenak (183); baina gehienak ez dira hain bakezale eta 59 Mgr Gouthe-Soulard persegituaren alde agertzen dira. Aix-eko artxapezpikua tribunale-tara eramaten du Gobernuak ministroari esan dizkionengatik, eta Pariserako trenbidearen luzean jendeak multzoan hurreratzen zaizkio txalo eta oihuka. Hauzia galtzeak handiagotu baizik ez du egiten «persegituaren» itzala. Posible izango

(183) Mgr d'Hulst-ek, esate baterako, honela kritikatzten du Aix-ekoaren jokabidea: "Voilà ce que l'on gagne à faire des évêques avec des hommes de rien".

ote da, gero, giro honetan katolikoak Errepublikaratzea?

Pariseko Richard Kardinala mintzatua zen Errepublikaratzearen arazoa argitu nahirik-edo (184), baina ez zen aski, izan ere Alger-eko bazkalagunak sortu zituen dudamudak desegitea komeni zen, katolikoek *batasuna* birregiteko. Frantziako gotzaineriak bazedukan ekinmin urduri bat barnean; baina legez, guziek izenpetutako idazki bat zabal ez zezaketenez, Kardinalen (Lavigerie aparte) esku utzi zen eginkizuna; Erromaren bake-minak gehiegikeriarik egin ez zezan, haren berri eman gabe argitaratu zen dokumentua, 1892-urtarrila-21ean. Errepublikaren erlijio politikaren judizio bat zen hura, baina konstituzioaren onartzea eskatzen zuen, *résolument sur le terrain constitutionnel* ekiteko galdetzen zen. Eznaizbanaizko argibidea zen hura. Kardinalak, artikulu organikoen kontra, elkaturik hartu du te parte politikan, eta Ferrata Nontzioak baretu behar izan zuen Gobernuak.

Batbatean Aita Sainduak berak hitzegino

(184) Mgr Richard de Lavergne, Pariseko artxapezpikua, ez zen Mgr Lavigerie. Harek, 1891-ko martxoan, ondoko izkribu hau eman zuen argitara: *Réponse à d'éminents catholiques qui l'ont consulté sur le devoir social dans les circonstances actuelles*. Ezer guti argitu zen. Lavigerie-k Errepublikaratzea eskatzen zuen, Richard-ek neutraltasuna. "La formule du cardinal Richard n'est pas une formule de Ralliement, elle n'est même que théoriquement une formule de neutralité". Ikus DANSETTE, A.: aip. lib., 456. Hala ere, 62 gotzainek eman zuen ontzat Richard-en idazkia. Hamabik-edo bakarrik afrogtzen zuten zuzenean eta osoki Lavigerie-k agerturiko Aita Sainduaren asmoa.

du: 1892-otsaila-17an Ernest Judet kazetariak jasoko ditu Leon XIII-aren gogoaren berriak. 18an utzi beharko du Freycinet-ek, Gobernuaren lehendakariak. Egun horretan abiarazten da *Rallie-ment*-aren tresneria.

Nere aburuz —*dio Aita Sainduak*—, hirigizon denek elkartu behar dute guzien legepean. Segurki bakoitzak bere barnean duen maitegotasuna gorde dezake; baina ekintzaren eginahaletan, ez da Frantziak berak sortu duen gobernamendua besterik. Besteak bezin bidezkoa da Errepublikaren gobernu-era... (185).

Aita Sainduak otsailaren 16-an izenpetua zuen *Au milieu des sollicitudes* Enziklika, hilaren 20an argitaratuko da Paris-en. Bera da Aita Sainduak zuzenean egiten duen deia. Leon XIII-ak gizarte-beharrak aipatzen ditu gobernamendu berrien jaiotzaren esplikabide bezala. Denboraren harian gobernu-erak aldatu egin litezke, funtsean era guzietan oinarriak Jainkoagandik baldin badatozkie ere. Baina zorokeria izanen litzake gizarte-beharrak eta finkatuak diren aldaketak ez haintzat hartzea. Hala ere, edozein sistimak legeria zuzentasungabeko bat sor dezakete. Honelakotan, sistimaren barnetik ekin behar zaio aldaketari. Baliteke —esaten du Leon XIII-ak— gobernamendu bat jatorriz bidezkoa ez izatea (hain zaila da izan ere hori!), baina, gerora, aurrekoa desegin denean eta berria finkatu, guzietan onak onar

dadila eskatzen digu (186). Legeak dira aldatu beharrekoak, ez besterik, Elizaren eskubideek betetan zor zaien itzala izan dezaten.

Aita Sainduak darabilkien politika-filosofian, Frantziarako hipotesia ematen da ontzat, tesia baztertuaz. Praktikan, demokrazia liberala onartu egiten da. Ikus daitekeenez, jokabide hauk ez dira monarkikoenak, ez eta Pio IX-ari hogeitahamar urtetan jarraitu zitzaizkion katoliko amonrekaitzena ere. Errepublikaratzeak, *Ralliement* delakoak, bi baldintza bizkarreratzen dizkio katolikoek ekintza politikoari: alderdi monarkizaleak utziaz, Errepublika-gobernamendua onartzea, eta Aita Sainduaren isilpeko eskabidea katolikoak errepublikazale moderatuekin elkar zitezten.

5.43. Oihartzun eta erantzunak

Bai, Aita Sainduaren asmoa oso ederra izatea bazitekeen; baina nork egiztatu behar zuen egintzetan? Gotzaineriaren artean ez zuten denek berdin erantzun, asko arrazoi ekonomikoak lotuta bait zeduzkan. Hainitzek bere burua galdu-

(186) Ikus Leon XIII-ak kardinalei zuzendu zien 1892-maiatza-3-ko eskutitza. Eta beste hiru eskutitz ere: Mgr Fava-ri (1892-ekaina-22), Lecot kardinalari (1893-abuztua-3), eta 1897-an Mgr Mathieu-ri bidaliak. Esan beharra dago: Aita Sainduaren eskari-deian iritzi politiko bat dabil azpitik (eta hain zuzen monarkizaleek iritzi horixe ez zezaketen onar, beren buruak ukatu gabe). Leon XIII-ak berak esana da: "Puisque la cause royaliste paraît perdue en France pour longtemps, il faut que les hommes vraiment religieux ne s'y attachent pas et cherchent le bien au dehors". DANSETTE, A.: aip. lib., 436.

ta aurkitu zuen eta isildu egin zen; zenbaitek neurritasun guziarekin gomentatu zuen; Billard, de Cabrières eta Avignon-go bost gotzainek alderantzira irakurri zuten Enziklika; hogeitaz gogoz jaso eta zabaldu zuen deia (Mgr Perraud-ek esate baterako). Kristau herriak berak eta ongileek indar egin ez balute, argiago mintzatuko ziren noski apezpikuak, izan ere, gehienak familia pobreetakoak zirenez, 1892-ko gotzainak ez bait ziren aspaldi batetakoak bezain monarkizale.

Apaizeria xumean kasik denek onartu egiten dute Aita Sainduaren gogoia. Ez dira guziak ados, baina Erromatik datorkien abotsa Aita Sainduarena da eta ez, horregatik, eztabaidagarri. Ez dute beharbada sobera konprenituko, batez ere apaiz zaharrek; baina eskatzen zaien menpekotasunez hartzen badakite. Katoliko sekularren artean bakoitzak du bere historia, norberaren igeroldiari datxekola. Errepublikazaleen gidariak Etienne Lamy, Jacques Piou eta Albert de Mun izanen dira.

1893-ko bozaldian izango du oihartzunik zabalena Erromatik egin deiak. Errepublikatzearen hauziak denak kezkatzen ditu, errerepublikazale moderatu eta radikalak, monarkizaleak eta eskuindarrak oro. Rampollak Erromatik moderatuen alderako zerbait idaroki badu ere, bada oraindik zalantza eta susmorik franko guziengan, ez bait daki inork *ralliés* direlakoak norantz joko duten. Errepublikarazaleek (*ralliés*) ez dute bozemaileen konfiantzarik bereganatu; moderatuak dira irabazle 317 deputatuekin (radikalak 122) eta sozialistak 12-tatik 48-taraino doaz. Erre-

publikarazaleek 35 bakarrik ukanen dituzte. Bozketak garaipenik ekarri ez arren, *ralliés* haiek politika-giroa aldatu zuten 1893-an; hori uka ezina da. Harrez gero, libre-pentsatzaile izan beharrik ez zegoen errepublikazale izateko. Oraindixe hasi da *Ralliement* hura fruituak ematen, Elizan eta kanpotik errepublikazaletasun bat sortuaz eta katolikoengan ekintza sozialaren kezka biztuaz.

Izpiritu berri bat jaiotzen ari da, baina 1893-an bertan agertuko dira frogabideak: bata, elizen aministrazio-arazoarena, honetarako 1892-an Lege bat eman bait zen eta aplikapenak zerbait oztopo aurkitu. Zarata eta garrantzi handiagoa izan zuen *taxe d'abonnement* deituak. Tasa honekin Kongregazioneek zerga berezi bat ordaindu behar diote Estaduari, izan ere, erlijiosoek beren ondasunak herentzia bidez uzten ez zituztenez, bidezko bait zen ondasun heredatuak zuten gisara zergaren bat ezartzea. Baina *taxe d'abonnement* delakoa arina zen nonbait, eta *droit d'accroissement* bat sortu zen. Hau, berriz, zenbait teknikoren iritziz, astunegia zen. Legea afrogetua da eta orduan dator ekaitza: men egin behar ahal zaio? Beti bezala, erlijiosoen artean badira «gogorrak» eta amorremaileak, baina bi taldeok oraingoan gotzainerian bertan daduzkagu. Apezpikuek eta erlijiosoen nagusiek aburu desberdinak dituzte, eta Aita Saindua isilik dago; baina Frantziako iritzi publikoa sumindu egiten da legearen kontrako erlijiosoen eraso ikustean, geroz eta gogorrago ari bait dira hauek. Herriak ez ditu pobre ikusi, eta diru kontu hauk, zihurki, ez dira erlijioaren lagungarri gertatuko. Eztabai-

dak badu esplikabide bat: zerga berriaren atxakiarekin *Ralliement*-aren izpiritua ito nahi dute eskuindarrek.

Baina katolikoek Errepublikaratzearen kontra direnak ez daude eskuindarren artean bakarririk. Zer pentsatu zuen ezkerrek Aita Sainduaren deia entzutean? Radikalismoak ez du deus sinesten *ralliés* haien leialtasunaz; ez da fidatzen. Floquet-ek, Errepublika Errepublikatik bota nahi dutela esaten du (187). Berriki Errepublikaratuok kintakolumnista hutsak ziren radikalentzat. Hala ere, *boulangisme*-ak eta panamistek (188) erakutsi zioten Errepublikari oinarri zaba-

(187) Agi denez, katolikoek zera nahi dute: “expulser de la République les lois les doctrines, les espérances républicaines”.

(188) Behin baino gehiagotan aipatzen digu Hiriart-Urrutyk *Panamako afera*. III Errepublikak eduki zuen finantza eskandalorik zikinena izan zen. Lesseps-ek Suez-en irabazitako merezimenduak ezagutuarren, Frantziako Gobernuak eta Banku-gizonek ez zuten etorkizunik ikusten harek Panamarako amestu zituenetan. Ez zioten dirurik eman. Orduan, judegu dirudunek eta Lesseps-ek herriari eskatu zioten dirua (prentsa, lehendabizi, eskupeko ederrez igortziaz). Dirua bildu zen, baina urbide zulaezinak dena laister iresten zuen. Sosik biltzen jarraitzeko Lege berri bat behar zuen Lesseps-ek, eta ministro (Rouvier, Baihaut), deputatu (Clemenceau, Floquet) eta komeni zirenak erosteari ekin zion. Legea atera zen (1888), baina berandu; honegatik, 1889-an garbitu zen Panamako Konpainia eta 425-000 diru-aurreratzaile xume lur jota gelditu ziren. Hala ere, 1891-ko udara arte isilarazi zen arazoa; 1892-an, Edouard Drumont-ek *La Libre Parole*-an dena argitara ekarri zuenean, orduan, kalapita izugarria sortu zen. Dena jakin zuen jendeak: Konpainiarena, ministroena, deputatuena, judeguena, dena. 1893-1894 urteetan gobernu berritzeak presaka datoz elkarren atzetik. *Affaire* honek, 1890-1898 urteetan hildo sakona urratu zion mesfidantzari, eta

lagoen behar gorria, Frantziako parte on bat oraindik Errepublika errejimenari sorbaldak emanda bizi bait zen. Sozialismoa goraka zetorren (gogora 1893-ko bozketako garaipena), eta «arriskua ezkerretik datorrenean, eskuinean bilatzen dira laguntzak». Leku-lekuan zegoen Dupuy-k, ministro kontseiluko lehendakariak, Errepublikaratu berriei esana:

Nahi dut, jakina!, Errepublika sostenga dezaten; defendatuko luketen galdetzen diet bakarrik... Zabal dezagun Errepublika, frantses denak bertarasar daitezten.

5.44. *Euskal Herrian*

Euskal Herrian oihartzun handia izan zuen Aita Sainduaren deiak. *Eskualduna*-k badu zenbait urte lanean; Louis Etcheverry deputatuak eta haren gidariak zeharo ontzat eman zuen Leon XIII-aren gogoia (189).

Hiriart-Urrutyk ere orobat egiten du, eta hala dio Lavigerie-ren eta Aita Sainduaren asmoa laburtuaz:

...utz ditzagun elgarren arteko makurrak, eta jar gaiten oro Errepublikari, nahi badugu Frantzia erlijionearen etsaien eskuetatik atera, eta gizon zuhurragoen eskuetan ezarri (190).

—gure lan honetan ikutu baino egin ezin dugun honek— sekulako ondorioak ukanen ditu Frantziako politika eta ekonomian. Ikus aurrerago HIRIART-URRUTY, J.: “Panama” kap.

(189) MOREAU, R.: aip. lib., 548.

(190) HIRIART URRUTY, J.: aip. lib., “Lavigeria Kardinala”. *Eskualduna*, 1892-abendua-2.

Eta kazetariak gehiago esango du: *Guk gure aldetik aspaldixkoan urrats hori egina dugu. Ez gire bakarrak. Baina oro, orok behar ginuke hortara erori...*

Beroa gertatzen da Euskal Herrian 1893-ko bozketa. Baiona I-an ez da borrokarik, Lafont mirikuak (ezkertiarra) ez du lehiakiderik; baina Baiona II-go eta Mauleko boz-eskualdeetan guri-guri agertuko da eztabaida. Deputatugaiak hauk ditugu: Baiona II-erako Diharassarry apeza eta Saint-Martin Harriague hazpandar zapataria; Maulerako Berdoly eta Etcheverry (191).

Eskuindarra zen Saint-Martin, baina 1893-an ez zuten noski sobera maite eskuinmuturrekoek, Hiriart-Urrutyk ere adiarazten digunez. 1893-an eskuinaren izena Diharassarry zen Baiona II-ean eta ez gerora *hain xuri* izango zen Saint-Martin *gorria*. Eta Maulen zer? Hor da pilota-partidu bulartsua: Etcheverry eta Berdoly aurrez aurre! Berdoly (*gizon galdu higuin garri baten izena!*) da eskuindarren etsaia Mauleko eskualdean.

(191) HIRIART-URRUTY, J.: aip. lib., ikus Berdoly, Saint-Martin Harriague, Diharassarry eta L. Etcheverryren "aurpegiak". Berdin, aip. lib., LAFITTE-k egindako sarrera. Diharassarryk, ezaguna zenez, bihotzez erregetiar jarraitzen zuen. Honegatik bederen, Mgr Jauffret-ek ez zion bedeinkatu nahi izan *Pour Dieu et la religion chrétienne, contre les sectaires qui veulent une France athée et franc-maçonnique* titulutzat zeraman programa-papera. MOREAU, R.: aip. lib., 550. Mauleko boz-eskualdean historia luzea izan zuen Berdolyk: 1885-ean deputatutarakoan garaitua gertatu zen. 1889-1890-etan birritan garaitzen du L. Etcheverryk; baina 1893-an garaille irtetzen da honen kontra, eta 1898-an ere deputatu bilakatzen da. 1900-ean senatore da.

Aita Saindua Aita Saindu, Euskal Herrian eta Pirinio Atlantiko osoetan erregetiar eta bonapartistak dira nagusi eta Leon XIII-aren boikotatzaille. Itzal handia dute apaizeriagan ere (192); horregatik Baionako errepublikazaleek ezingo dira isildu euskal *ralliés* haiek inguruan zekazkiten etsaiak gogoratuaz:

Errepublikaratu berriok partidu zaharretako gizonak ditugu, eta Elizak zuzentzen ditu, atzo bezala gaur, gudaketara. Apaizeriaren politika aldatu egin da, baina apaiz-agintarismoak lehengo lepotik du burua (193).

Eskuinmuturraren hizkeraren berri jakiteko ez letorke gaizki hemen Diharassarryren *Aphezen dretchoac eta eginbideac eletzionetan* liburua (1890). Eta Saint-Martin ere katolikoa zen eta mo-

(192) Honela idazten zuen Pon apezak bere egunkari ezkutuan: "un grand nombre de royalistes et de bonapartistes très importants dans le département des Basses-Pyrénées étaient dous opposés aux directives de Léon XIII que nous voulions faire triompher. Leur autorité et leur influence dans les conseils ecclésiastiques étaient très grandes; les oeuvres religieuses —congrégations, écoles, séminaires, deniers du culte— n'étaient guère soutenues que par eux. Leur cause se confondait avec la cause catholique à tel point que, dans l'opinion générale, tout catholique était réactionnaire et tout républicain était un ennemi du clergé et de l'Église catholique". MICHEU-PUYOU, J.: aip. lib., 147-148.

(193) Honela zioen *l'Indépendant* errepublikazaleak 1893-uztaila-24-ean: "les ralliés, ce sont les hommes des anciens partis et l'Église les conduit au combat aujourd'hui comme hier. C'est une transformation de la politique cléricale, mais le cléricanisme est toujours là...". Ikus MICHEU-PUYOU, J.: aip. lib., 148.

deratua, baina beharbada —nork daki! —errepublikazaleegia. Maulekoan ere bada zer esanik. Hemen xuxenean eskuhartu beharko du *Eskualduna-k Le Réveil basque*-ren aurka. Apaizek eta fontzionarioek ere ukanen dute bozaldian zereginik, denak bait dira oraingoan borrokari. Badi-rudi, azken unean egindako deiari esker irabazi zuela Berdolyk bozketa:

Berak —*Aita Sainduak*—, guziek Errepublikaren ikurrinpean bildu behar dutela esan die katolikoei, eta harek gaitzetsi egiten ditu aginduok baztertzen dituztenak; gaitzespen honek Etcheverry deputatu xuria osorik arrapatzen du eta orobat Aita Sainduaren aginduen kontra hura sostengatzen dutenak ere (194).

Baiona II-ak Saint-Martin hautatu zuen 5.342 boz emanaz eta Diharassarry-ren 3.778 bozen kontra. Maulen Berdolyk 6.670-ekin irabazi zuen bozketa, Etcheverryk 6.062 zituen bitartean. Bidaxuneko kantonamendu kaskoinak eraman zuen Saint-Martin garaipenera eta Atarratzek erabaki zuen Mauleko boz-eskualdean.

5.45. *Eta Errepublikaratzear zer?*

Leon XIII-aren deiak kontraesan bat zuen barnean: politika liberal baten alde dei ultramon-

(194) "Il —Aita Sainduak, alegia— dit à tous les catholiques qu'ils doivent se réunir sous le drapeau de la République et il blâme avec sévérité les hommes qui refusent d'obéir à ses ordres; ce blâme atteint en pleine poitrine M. Etcheverry, le député blanc, et ceux qui le soutiennent dans son opposition aux ordres du Saint-Père". Micheu-Puyouk jaso, aip. lib., 149.

tanoa egiten zen. Izan ere, ultramontano batek bakarrik har zezakeen haintzakotzat Aita Sainduak politika ekintza jakin baterako egiten zuen eskabidea.

Zein arrakasta ukan zuen *Ralliement* harek? Errepublikazale gehienak ez ziren katolikoek atxikimenduaz fidatu, eta askok zapuztu egin zuen. Bourgeois radikalak (1895-96etan lehen ministro) errepublikazaletasun zaharra nahi zuen berriz ere, eta, hain zuzen ere, Bourgeois-ek gidatu zuen lehenen gobernu radikal hutsa eta bera zen radikalismoaren orduko dotrinaria (195). Clemenceau-k errepublikazaleei esaten zienez, katolikoek eta Errepublikak ez zuten sekula gauza bera nahiko; eta hauk, berriz, kexu ziren eskainitako atxikimendua ez ziela Errepublikak onartu eta.

Katolikoek Errepublikaratzeari bultzatu zuen Aita Sainduak ez zuen bere ekintzaren fruitu onik ikusiko. Leon XIII-a hiltzean, ekaitza gainean zen eta ilunaldiak hamarreko oso batean iraungo zuen gutienik. Bazirudien, dena alfer lana izan zela; baina etorriko zen noski argialdia ere, eta katolikoek, zegokien lekua onduntze (1914-eko gerratean eta ondoren) izango zuten. Ez zen alferrikako ereintza gertatu inolaz ere; baina haraino iritsi aurretik, Dreyfus-en hauzia tartekotik zen eta XIX mendeko antiklerikalismoak hor jo behar zuen lehenik gailurra.

(195) *Essai d'une philosophie de la solidarité*. 1902. Hainitzetan izan zen Bourgeois ministro eta 1902-1906etan Garbararen lehendakari. 1920-an Bake Nobel Saria eman zitzaion.

5.5. Ilunabar ala egunsenti?

1896-az gero Frantziak Gobernu moderatu bat zedukan, Méline-rena (196). Udan, oraindik uste izan zitekeen noski Frantziak idoro zuela, borrokaldi askoren ondotik, hain beharreko zuen bake bidea. Katoliko eta antiklerikal, langile eta burges, elkartu egingo ote ziren, ba?

5.51. *Dreyfus hauziaren mendebalean*

Baina, bakegintzaren unerik onenean-edo, Dreyfus-en arazoak leher egiten du (197). Hauzi

(196) *Félix Jules Méline*-k (1838-1925) III Errepublikako gobernaldirik luzeenetakoa gidatu zuen (1896- apirila/1898-ekaina). Burgesia tipiak eta bankuzale antidreyfusistak sostengatu zuten. Une honetan ekonomiak goraldi bat darama Frantzia eta Ralliement hura ere aurrera irtengo ote den pentsa zitekeen. Dreyfus aferak hondatzen du Méline-ren gobernaldia.

(197) *Alfred Dreyfus* (1859-1935) harmadako ofiziala zen, eta familiaz judegua. Prusiarrei zenbait isilpeko jakingarri eman diela-ta, 1894-urria-15ean giltzapetu egiten dute. Guda-tribunal batek epaitu eta herbeste-bortxatua ezartzen diote abenduan. Deabruaren Ugartera eramaten dute, Guiana-ra. Haren familiak-eta, beste ofizial bat salatzen dute sekretu-hausle bezala (Esterhazy, alegia); gobernuak (Méline-renak) eta epaileek Esterhazy errugabetzat ematen dute (1889-urtarrilean). Une honetan *Dreyfus afera* politika-hauzi bilakatzen da: Frantzia erdibitu egiten da. 1894-eko hauziketa birrikusi egin behar ote da ala ez? Frantsesak *revisiionnistes* eta *anti-revisiionnistes* gertatzen dira. Hamar urtetarako eztabaidakizuna izango da hau. 1898-ko urtarrilaren 13-an Zola-k bere *J'accuse* artikulua argitaratzen du Clemenceau-ren *L'Aurore*-n: Dreyfus-en erruduntasuna, harmagizonen ohorea gordetzearren baiezten duela bakarrik Harmadaren Goren Estaduak, esaten du Zolak, izan ere harmadak kondenatua bait zen Dreyfus. 1894-eko epaiketaren zenbait faltsokeria ezagutzean (eta

haren atze politikoak nahiko konprenigaitzak gertatzen zaizkigu. Frantses bakoitzak hautatzen ditu bere baliogoak eta alderdia. Alde batetan birrikusketaren (*révision*) aldekoak: idealistak dira, justizia osoa nahi dute, gizabanakoaren eskubide defendatzaileak, antimilitaristak. Talde honetan dago zenbait panamista (Clemenceau), bere buru-garbiketa egin nahirik; errepublikazaleak ere hemen dira, Errepublikaren etorkizuna «dreyfusista» bakarrik izan bait daiteke, uste dutenez. Lehenengo batetan zalantzan izan diren radikalak *dreyfusista* bilakatzen dira, Errepublika garbitasunaren bidea hortik doalakoan. Sozialistek ere (Jaurès) beste hainbeste egiten dute. Bada katolikoren bat edo beste, eta unibertsitario asko. *Ligue des Droits de l'Homme* elkarte berri-tuan biltzen dira alderdi honetakoak.

Eta nondik datoz beste aldekoak? Eztabaida honetan Guda-Kontseilua ez, baizik hauzipean harmada osoa zegoenaren kontzientzia zuten frantsesek. Beraz, erresumaren segurtasuna ere bai. *Déroulède*-k aukera ederra du bere irakurle *abertzaleei* errepublikazaleen eta judeguen saldukeriaz hitzegiteko. Antidreyfusistek beren pentsamoldean badituzte ideia-eztenak: aberria, oho-

Henri koronelak bere burua salatari faltsotzat aitortzean), gobernuak-eta onartu egin behar izan zuten epaiketa berri bat; baina 1899-an ere kondenatua gertatzen da Dreyfus, ezarritako hamar urtetarako zigorra berehala barkatuarren. 1906-ra arte itxaron beharko du Dreyfus-ek bere errugabetasuna ontzat emana izateko. Schwarzkoppen-en, Prusiaren Pariseko harma-agregatuaren paperek (1930-ean argitara emanak) errugabetasun hura argi utzi dígute. Ikus HIRIART-URRUTY, J.: hemen bertan "Goiti... beheti" kap.

rea, segurtasuna eta erlijioa ere. Monarkizale, *boulangiste*, kontserbakor eta katoliko hainitz elkartzen da, Maurice Barrès-ek bildu dituen akademiko eta unibertsitarioekin *Ligue de la Patrie française*-an. Alderdiak, elkarren kontrako ekin-tza eta ideietatik bizi dira.

Dreyfus-en aferak eskuindar sakabanatuei irakaskizun bat, dotrina bat, ematen die. Eskuinak Frantziaren lehenaldia hartzen du bere defendakizun bezala; harmada, familia eta erlijioa; historairen katean, eraztun bat da gizabanakoa. Aberriaren barnekorrontean jaio eta hazi gara; jatortasuna gordeko baldin bada, urbizi horiek garbitu behar dira. Judegu eta protestanteek us-teltzen dute sorterrria, eta haiek desbidetu dute Erreboluzio Handiaz gero. Barrès eta Maurras-ek (1899-koa da *l'Action française*) pentsakizun ol-dartzaileago bat eskaintzen dio eskuinari.

Hauzi bera tarteko dela, ezkerak ere elkar-bide berri bat du orain. Eskuinaren indarrak oinarrietan bertan dardarazten du Errepublika; defentsa premiatan da, beraz, eta *Bloc républicain* edo *Bloc des gauches* agertzen da 1899-an, sei urtetarako, ezkertiar guziekin. Sozialistak bil-du ziren lehenengo 1898-an; radikalak 1901-ean eraikiko dute, alderdi politiko bezala, beren *Parti Radical et Radical-socialiste* delakoa; modera-tuen *Aliance démocratique* antiabertzale, antikle-rikala, eta antikolektibista, 1901-ean jaiotzen da. Waldeck-Rousseau da ezkertiar elkargintza honen sinbolu; ministroaldi honek aterako du Errepu-blika defentsa hutsaren lokatzatatik, errepubli-

kazaleen indarrak ekintza politiko konkretuetan sarraraziaz.

Dreyfus kasua ez zuen noski herritar xume bakoitzak ezagutu; baina bai herri bakoitzeko jauntxo eta gidari politiko bakoitzak, eta III Errepublikaren printzipioen kritika bihurtzen da, sofritutako beste krisialdian (boulangisme, Panama, etab.) baino gehiago. Frantzia, Errepublikaren esanahiaz kontzientziatu egin zen, eta frantses bakoitzak jakin zezakeen harrez gero zer aukeratzen zuen (198). Estatuarekiko bi ikusmolde ditugu Dreyfusen krisialdian: nola ententitu zen Estadua, gizartea bera, agente eta zuzenbidea? (199).

Katoliko gehienak ez ziren zuzenbideaz kezkatu, bat edo beste kenduz gero. Milaka katoliko sartu ziren aipatu dugun *Abertzaleen Elkarte* antidreyfusistan, eta prentsa katolikoak (*La Croix*-k eta Italiatik *Civiltà Cattolica*-k) gogor

(198) MANDROU, R.: aip. lib., 470.

(199) Anatole France-k ere zerbait ikusi zuen, zera esan zuenean: "Dreyfus hauziak serbitzu handi bat egin zion gure herriari, igaroaldiaren eta etorkizunerako indarren arteko elkar-kontrakotasuna erakutsiaz". Ikus SALIS, J. R. DE: aip. lib., 611. Dena dela, Duroselle-k esana ere gogoan eduki beharke dugu: sasi-iraultza bat zen Dreyfus hauziaren iskanbila, élite baten bameko erreboluzioa eta herri-multzoak ez du mogimendu horretan eskuhartzen. Ikus DUROSELLE, J. B.: *L'Europe de 1815 à nos jours. Vie politique et relations internationales*. Paris. (Gaztelaniazko itzulpena: Barcelona, 1967), 176. Hala ere, ondore luzeak izan ditu sasi-erreboluzio harek, Touchard-ek aitortzen digunez: "Las ideas políticas de la Francia contemporánea continúan estando marcadas, en muchos aspectos, por el asunto Dreyfus".

eraso zien *révisionnistes* haiei (200). Hala ere katoliko askok ez zuen antisemitismoaren zurrunbiloen erori nahi, orduko abertzaletasunaren aje bat antisemitismoa izanarren (201). Arazo hone-tan jatorki ahalegindu zen Leon XIII-a uholdeari urbideak ematen: 1899-an *La Croix*-ri agertu zion bere gaitzespena eta hurrengo urtean egunkaria uztera bortxatu zituen asonzionistak, Aita Sainduak ere konprenitzen bait zuen Péguy-k idatzia: *dena hasten da mistikan, eta dena bukatzen politikan*. Baina politikak kalte asko egin zezaiokeen Elizari, izan ere ezkerre geroz eta zitalago bait zetorren beste antiklerikalismoan (202). Radikalismoak batez ere, Eliza oldar-talde (*grupo de presión*) bezala ikusten du, gertakizunaren argi-lun-uneak gehiegi definitu gabe eta oldartasun horren nolakoa aztertu gabe. Giro honetan, eta gomentatua den *Loi d'Association* haren ondoren, egiten da, Errepublikaren *salbamenerako*, 1902-ko bozketa.

Dreyfusen arazo honen erlijio ondorioak aipatzekoak dira. Guiral-ek dioen bezala, ekaitzean

(200) Ikus zenbait datu ROPS, D.: aip. lib., 154-155.

(201) Antisemitismo honek badu III Errepublikako gertakizun ekonomikoekin zerikusirik: 1882-an *Union Générale*-k lur jotzen du; Banku katoliko bat zen hura. Rothschild jude-guaren bankuek-eta ez ote zuten hor eskuharmenik? Judegu-gorrotoak ukan zuen eskuindarren artean auspo onik, *La France juive* (1886-an 100.000 ale saldu ziren) eta *La Libre Parole* egunerokoa esate baterako. Ikus DUROSELLE, J. B.: aip. lib., 179.

(202) Rops-ek jaso du idazle laiko baten (Debidour) iritzia: Dreyfus aferan, Kongregazioneei buruzko 1901-eko Legearen eta 1905-eko apartaketa Legearen kausa erabakilea izan zen.

zaharberritu den antiklerikalismoak hondatuko bait du, *oraingoz*, Leon XIII-ak bultzatutako *Ralliement* hura, hain zuzen gudaketa hau, behinola erlijio-borroka haien gisara jotzen bait dute dreyfusistek ere (203).

5.52. *Combes-en Gobernua (1902-1905)*

Waldeck-Rousseauk aurrera ateratako Elkar-te-Gegearen ondoren egingo den bozketari esker, haren legeria berri hau beste gizon baten eskutara etorriko da, eta —deskribatu den giroan— Waldeck-Rousseauk uste zezakeen baino urrunago joango da. Gizon hau *Émile Combes* da. Apaizgai izana zen, teologi doktoraduraino heldua; aspalditik fedegabea, baina izpiritualista; erlijio-politikan galikano eta, beraz, Eliza menpekotasun batean gorde nahi zuen (204). Combes-en mi-

(203) GUIRAL, PIERRE: *L'Expansion de l'Europe*. Paris, 1958. Léonard eta Grousset-ek zuzendutako *Histoire Universelle*-ean: III, 637-638. "Vraie crise de la conscience française, prenant l'allure d'une guerre de religion".

(204) *Émile Combes* (1835-1921), 1902-ko bozketa ondoren gertatzen da Ministro Kontseiluaren lehendakari. Waldeck-Rousseauk uste zuenez, Legea egin zeneko izpiritu moderatu berarekin aplikapena egitekotan. Baina *le Petit Père* deituak bere gisara beteko zuen eginkizuna. Combes radikala zen. 1894-95etan Senaduaren Lehendakari eta 1895-96etan Irakaskintzarako ministro. Waldeck-Rousseau eta Combesen arteko aldeaz ikus BOUJU, DUBOIS: aip. lib., 63-64. ROPS, D.: aip. lib., 158. LEPOINTE, G. aip. lib., 103. Combesen jokabidearen arrazoin zabal-sakonak aztertzeko lekuri ez da hemen; gaingiroki ikutuko ditudanak badute noski zuzter barnekoagorik, egiazkoagorik. Ikus DUROSELLE, J. B.: aip. lib., 128-129. HIRIART-URRUTYk Combesi buruz: aurrerago "Egundaino" artikuluan.

nistroaldia 1902-maiatzetik 1905-urtarrileraino luzatuko zen, Kontseilu barnean Lehendakaritzarekin batera Barne- eta Kultu-ministrogoa bere menpe zituela. Combes, radikalismo-amorekaiztasunaren agergarri on bat da.

Gobernua eskuetan hartu, eta hilabeteren buruan deputatuek, aurkeztu zaien gobernabidea afrogtatzean, Combesek garbi ditu bere politikaren estratak (205). Politiko honen ekintzak bi une edukiko ditu: lehenik, 1901-eko Elkarte-legearen aplikapena, eta, bigarren, Eliza-Estaduen elkar-apartaketa (206).

Moderatuen lehenengo gobernaldian (1880-1886), errepublikazaleen erlijio-politika ez zen erabat bete. Errepublikazaleen programak hiru

(205) Gobernuaren alde 309 boz eman ziren, 117 kontra eta 149 deputatuk ez zuten bozik eman (1902-ekaina-12).

(206) Legeak eta erabakiak honela datoz jarraian:

1901-Uztaila-1-eko Legea: Elkarteen Legea. Kongregazione *baimengabeak* ez daitezke irakasle izan.

1903-martxoan: baimena eskatu duten 59 Kongregazioenetatik 54-ri ukatu egiten zaie (gizonezkoak ziren).

1903-ekainean: eskatutako baimen guziak ukatzen zaizkie emakumezko Kongregazioneei.

1904-uztaila-7-ko Legea: Kongregazione denei ukatu egiten zaie irakaskintza.

1904-uztaila-30-ean: Erromarekiko harremanak hausten dira.

1905-urtarrila-18-an: Combes-en dimisioa, harmada barneko salaketak direla-ta.

1905-martxo-21-ean: eliz-gizonei ere soldaduska berdina ezartzen zaie.

1905-abendua-9-ko Legea: Eliza-Estaduen arteko apartaketa.

1905-abendua-30-ean: ohar-eskutitza inbentarioak, imitiorioak, egin daitezzen.

pondu izan zituen beti: kongregazioneak desegin, irakaskintza eraberritu eta Eliza-Estatuak elkarregandik apartatu. Lehenen ekinaldi haretan erdizka bete ziren asmo haiek: kongregazioneak jaurtiak izan arren, *de facto* laister itzuli ziren beren etxeetara; ikastetxe publikoetatik bota zuten Eliza, baina ikastetxe pribatuak legearen babespean jarraitzen zuten 1886-az gero ere. Bestalde, moderatuek ikasia zuten 1900-erako Konkordatuaz baliatzen beren Elizarekiko harremanetan. Dreyfus-en hauziarekin, errepublikazaletasuna ekintzaile bihurtzen da, eta ekintzaletasun honek helburu on bat aurkituko du antiklerikalismoan.

1901-eko Elkarte-Legeak, Waldeck-Rousseauren asmotan, Kongregazioneak kontrolatu nahi ditu, Estadu barnean Estadu gerta ez daitezen; Combes-ek, ordea, bestelako xedeak ezarriko dizkio Legearen aplikapenari. Combes-ek lehendabizi Kongregazioneen ikastetxeak hersteke erabiliko du Legea, eta Kongregazioneak berak desegiteko (207).

Waldeck-Rousseauren hitza janda, Combes-ek 2.500 ikastetxe hertsiko ditu zortzi egunetan, eta hori ikastaro erdian gainera. Herria asaldaturik doa, Britainian esate baterako (208), eta zenbait

(207) BOUJU, DUBOIS: aip. lib., 63. "Sans doute Waldeck-Rousseau, personnellement modéré, ne considérait le texte nouveau que comme une loi de contrôle, et se proposait-il d'en user avec précaution. Mais, outre qu'il avait réveillé et rénové l'anticléricalisme, il dut renoncer à appliquer lui-même".

(208) Orduantxe debekatu zien, arestian aipatu den be-

errepublikazale radikal ere kontra du (Goblet, Monod, Waldeck-Rousseau, etab.); baina *Aitatxoren* gogorkeria (209) ez du ezerk bigunduko: 1903-a aski du Kongregazione baimendunen 11.000 ikastetxe eta gaisotegi baimengaberi bizi-baimena ukatzeko (210). Etxeok aparte, oraindik Kongregazione *pairatuenak* ere badaduzkagu eta hauek baimen-eskabidea egin beharrean dira 1901-eko Legearen arabera: 59-k egiten dute eskabidea eta 54-ri ukatzen zaie eskatua (1903-ko martxoan).

1903-ko Apirilaren lehenengoan adiarazten zaie fraideei Ganbararen erabakia: hamabost egun ematen zaizkie beren komentuak utz ditzaten; 3.000 lagun dira «predikarien» etxeetan, 16.000 «irakasleenetan», eta herbesterako bidca hartu beharko dute, oraingoan ez bait dute 1880-an bezala joan etorririk egiterik izango. 1904-ean eramango da azkenbururaino Kongregazioneen desegintza: Kongregazione baimendunak (guti batzu) badaduzkate ikastetxe baimendunak ere, eta hauk ez dago 1901-eko Legearen arabera desegiterik. Lege berri batek, 1904-uztaila-7koak, debekatuko die Kongregazione guziei irakaskintza. Combes-ek berak emango ditu horren arrazoiak:

zala, hango apaizei bretaineraz hitzegitea, Estaduaren soldata kenduko zienaren mehatxupean.

(209) GUIRAL, P.: aip. lib., 638: "La gauche unie prend le pouvoir, sépare l'Eglise de l'État, recourt à une politique de vigilance qui, avec Combes, tourne à l'inquisition policière et cafarde".

(210) LEPOINTE, G.: aip. lib., 103. Etxe hauk, Kongregazione baimendunen etxe baimengabeak ziren.

Hau ez da libertatea ukatzea; gizarte barnean askatasuna desagiteko instituziorik molda ez dadin ari izatea baizik. Ez dugu nahi gizabanakoaren askatasun deuseztatuan baizik oinarritzen ez den instituziorik, eta horretarako oraingo gobernamendu politiko eta sozialaz baliatuaz, ordenamendu hau hondatzen ahalegintzen bait dira eten gabe instituzio horiek (211).

Instituzioak hiltzean, haien herentzia jaso behar eta Estaduak eraman zituen (Legeak behintzat horixe nahi izan zuen) haien ondasunak. Hori dela-ta hasten da Hiriart-Urrutyk kontatuko digun «imitorioen» historia.

5.53. *Eliza-Estaduen apartaketa*

Leon XIII-a 1903-an hil zen, eta Pio X-aren aitasaindualdi berriak ez zuen eroapen eta irekitasun berdina izango, agian Frantziako Gobernuak ere deus guti lagundu ziolako. Haro berri bat irekitzen du Elizak, Pio X-aren hautapenarekin. Pio X ez du politika maite baina Aitasaindugoak beti du politika ere. Pio IX-a jakinaren gainean izan zen politiko ere; Pio X-ak, politika jasan egin zuen, ezinbestean ezarri zitzaion politika eginkizuna.

Pio X-ak bere aurrekoagandik jaso du halako

(211) DANSETTE, A.: "Ce n'est pas manquer à la liberté, d'empêcher la formation dans le corps social d'institutions faites pour le détruire, d'institutions basées uniquement sur l'abolition de la liberté individuelle, d'institutions destinées à ruiner le régime politique et social dont elles se prévalent aujourd'hui pour travailler sans relâche et sans gêne à leur oeuvre de destruction".

eztabaida xiko-miko bat; nola esan behar du Erromak: Frantziako Gobernuak, 1801-eko Konkordatuaren arabera, apezpikuak izendatu, ala Aita Sainduari izendatu dizkiola (*nobis nominavit*) esanaz? Aurkezpen hutsa da, ala benetako izendapena ote da Konkordatuak Frantziako Gobernuari ematen dion eskubidea? Eztabaida zaharra zen, baina, Estaduko Kontseiluaren aholkuz, 1872-an dekretu baten bidez garbitua. 1901-ekainaz gero, berriz ere eztabaidakizun gertatzen zen, eta Combes-ek *nominavit* hutsa eman zedila eskatu zion Aita Sainduari. 1903-ko abenduan onartu zuen Pio X-ak Frantziako Gobernuaren eskaria, eta honela kitatu zen arazoa.

Aldapa pikoagoa gertatu zen, formula idatzia-rena baino, izendapen bidearena. Aspalditxotik (1871-tik), Gobernuak apezpikugaien izendapena egin aurretik Nontzioari adiarazten zion asmoa, kontrako zerbait baldin basedukan esan zezan. Baina Combes-ek laisterbidea nahiago zuen (Bourgeois-en Gobernaldian gogo bera erakutsia zedukan), eta 1902-ko abenduan, *Gobernuak izendapen hauk egiteko asmoa du jakinarazi partez, Gobernuak izendapen hauk egitea erabaki du* izkribatu zion Combes-ek Nontzioari (212). Erromak ez du onartzen Combes-en esanbidea eta geroko burugogorkeria. Gotzain-hiriek apezpiku gabe jarraitu beharko dute, beraz; ezbeharra da, baina ez azkenerainokoa. Diplomaziaren zerua beste nonbaitetik ilunduko da.

(212) Hau da, “les nominations que le gouvernement se propose de faire” esan ordez, “il a resolu les nominations suivants” idatzi zuen Kontseilu Lehendakariak.

Frantziak lagunkideak behar ditu eta Italia-gana urreratu nahi luke Delcassé Herbestera-ko Ministroak, eta Loubet Lehendakariak Italia-ko Erregeari ikustaldi bat egin beharko lioke. Vatikanoak, ordea, ez du honelakorik onartuko Vittorio Emanuele lapur bat bait da, Elizari lapurtu zitzaizkion lurraldeetako Erregea. Delcassé-k, Frantziaren beharrizanei begiratzen die, eta hauk ez daitezke zapal *irudimenezko eskubide* batzuen izenean. Loubet 1904-eko apirilean helduko da Erromara eta hiria Aita Sainduaren aurkako paretadeiez betea aurkitzen du. Erroman ere badira, nonbait, antiklerikalak. Giroa sargori da. Rampolla-k isilpeko oharkizun bat bidaltzen die munduko gobernuei; baina, isilpekoa izanarren, *L'Humanité* sozialistak argitara ematen du; beraz, jendeak badaki Vatikanoak zer egin duen: Frantziaren arazo bat kanpoko gobernuen «tribunalera» eraman! Enbaxadariari Parisera deitzen zaio. Erabakiak 327 boz ditu alde eta 96 kontra. Merry del Val-en trakeskeriak eta Combes-en zitalkeriak pozoinduko dute arazoa, 1904-eko uztailaren 23-an harremanak zeharo haustearaino. Eliza-Estaduen arteko apartaketaren atarian da Combes.

Ikusten denez, asarrebideak geroz eta ugariago dira Eliza-Estaduen artean, eta gizarte-giroa aldatzen doa Frantzian. Egia, apartaketa gogoak ez du oraindik jendea odol-berotzen; baina banaketaren ideiak baditu jarraileak, eta protestanteen artean batez ere, apartaketaren aldeko da asko; zoritxarrez, asmoaren mamitzean, politika berokeria gehiegi sartuko da eta arazoa gaiztoa-

gotzen doa denbora gutian. Combes-en politikak Frantziarena izan behar baldin bazuen, Eliza-Estaduaren arteko harremanak zuzenduko zituen legeria baten premia zegoela ikusten zen; baina 1904-1905etako makurkeriak ezer guti lagun zezaiokeen legeria berriaren iraunkortasun, betirakotasunari. Hala ere, Combes radikalak kendutako errespetagarritasuna bihurtzen ahalegindu zena, hura baino ezkertiarago bat gertatu zen: *Aristide Briand* sozialista (213).

Batzorde bat sortzen da 1903-urtarrilean eta 1904-uztailean burutzen du bere legegaiak. Bi gizon izan dira proiektuari halako liberal kutsu bat utzi diotenak, Briand eta Méjan (214). Bitartean,

(213) *Aristide Briand* (1862-1932), lege-gizon, kazetari eta politikoa sozialista izan zen. 1901-ean partidu sozialistaren idazkari jenerala; 1902-az gero, heriotzera arte, deputatu izango da. Eliza-Estaduen arteko apartaketa Legegaiak prestatzean bera izan zen *rapporteur*. Combes erortzean, Sarrien-en ministroaldian Irakaskintza eta Kulturako Ministro bilakatzen da eta bera bezalako sozialista suharragandik esperoko ez zen zehurtzia eta abileziaz moldatzen da apartaketa Legearen aplikapenean. Hogeitabi aldiz izango da ministro (eta hauetatik hamabost Herbestera). 1905-az gero sozialista independente izanen da. 1909-an lehen ministro izendatua, Clemenceau-k lehendakaritza uztean. Nazio-Elkartearen defendatzaile bizkorra izan zen eta frantses-alemanen arteko bakeatzea bilatu zuen. 1926-an Nobel Bake Saria eman zitzaion. 1930-ean Europaren Federazioa ideia zabaltzeko, agiri bat argitaratu du. GEORGES SUAREZ-ek obra garrantzizko bat argitaratu du Frantziako politikoa hontaz: *Briand, sa vie, son oeuvre*. 1938-1952, 6 liburuki.

(214) Batzorde honen berri zehatza L. V. MEJAN-ek eman du: *La séparation des Églises et l'Etat*. Paris, 1959. Apartaketa Legearen berri jakiteko, oinarritzko bibliografia bat DANSETTE-ngan aurki liteke: aip. lib., 861.

Combes-ek lehenen eta honi segiko zion (1905-urtarrilean) Rouvier-ek gero, beste bi proiektu sartzen dituzte tartean. Batzordearen azken legegaiak 1905-eko martxotik uztailekoan eztabaibatzen da.

Katolikoek bi argudio dituzte legegaiaren kontra: apaizeriari Estatuak eman ohi dion soldata, Erreboluzio garaian kendu zitzaizkion ondatsunen truke eskaintzen da. Justiziaz zor zaiona da, beraz, soldata hori. Eta bigarren, Konkordatuak elkarren hitz-harmen bat da, biren arteko hitz-ematea, eta ezin dezake alde batek bere aldetik hauts. Katolikoek iritzi hauen kontra zera dio Batzordeak: apaizen soldata Estatuari eta gizarteari ematen dioten serbitzuaren ordainez emana da, eta akordio bat hitzemaileen borondatez nahiz alde batek emandako hitza jatean hauts daiteke. Hain zuzen, hauxe da Erromak egin duena.

Legegaiaren afrogantza 1905-eko abenduaren 9-an egiten da: 345 boz ditu alde, 233 kontra. Harrez gero, Konkordatu zaharra hil da eta egoera berri bat jaiotzen da Estatuaren eta Frantziako Elizen artean. Lege berriak honela dio: kontzientzi askatasuna aitortzen da (art. I); Estatuak ez die elizgizonei inolako soldatarik emango; eliz-elkarte (*associations cultuelles*) batzuz sortzen dira udaletan eta hauen eskuetara joango dira eliz-ondasunak, eta honelako elkarterik sortzen ez denetan udalak berak hartuko ditu. Elizak, elkarte hauen menpean gelditzen dira eta bestelako ondasunak (gaisotegi, etab.) udalarenean. Legeak badaduzka bere arriskuak: nork

eratuko ditu eliz-elkarteok? Estaduaren lege baten arabera antolatzen baldin badira, ez ahal dira zisma-bide bat izango? Eta udal batean eliz-elkarte bat baino gehiago sortuko balitz, nork garbituko luke haien eztabaida? Legeak dioenez, Estaduko Kontseiluaren eginkizuna da hori; baina katolikoak ez dira hortaz fidatzen.

Alde onik ere badu Legeak Eliza katolikoarentzat: libertade osoa ematen zaio gizartean. Bilkura-libertadea, lehenik, eta ordura arte ukatu zitzaizkion kontzilio eta gotzain-bilerak egiteko eskubidea. Prentsa-libertadea: elizetan eta nonahi, gainerako hirigizonek bezalaxe, libreki mintza daitezke. Eliz-agintarien izendapenatarako askatasuna (esate baterako, Gobernuak ez du aurrerantzean apezpikuen izendapenetan eskuharrenik edukiko) eta eliz-eskualdeak nolnahi eratzeko libertadea.

Ilun-uneak ere baditu Legeak: Elizari ofizialtasuna ukatzean, gizarte itzal bat ere galdu egiten du honek; Estaduak aurrerakoan ez du eliz-presuposturik ukanen; eliz-elkarte sortu berriak eliz-hierarkiaren kontra jeiki daitezke eta zisma-bide bat gerta... Legeak, honela erabaki du katolikoek eta ezkermuturreko zenbaitek nahi ez zuten apartaketa (215).

(215) Eliza-Estaduen arteko apartaketak baditu bere prehistoria eta esanahia, noski. Ponderatu honetan, errepublikazaleria bera ere ez da beti iritzi berekoa izan. Ikus EHLER, S. Z.: *Historia de las relaciones entre la Iglesia y el Estado*. Madrid, 1966. 143-148. 1871-ko komundiarrek ere erabakia zuten apartaketa (LATREILLE, A.: aip. lib., 403). Errepublikazaleen iritzi desberdintasunak, lib. berean 390-391. Ferryren

Katolikoaren artean gutik ikusi eta igerri zuen etorkizuna. Gutti hauen artean gogora dezagun *Marc Sangnier* (216). Honentzat apartaketa, Eliza herrikoia gotuko zuen erabaki bat zen; Eliza berri bat jaiotzaraziko zuen askatasunak... Etor-kizunean, antiklerikalismoarek gabeko Frantzia bat sortu behar zen eta apartaketa honetxez posibletuko zuen amets hau. Sangnier-en *Le Sillon*-en kondenamendua gorabehera (1910), askatasun ideia hau aintzina irtengo da.

Iritzi publikoa sakon-sakoneraino zartatu zen Legearen aplikapena aurrera eramatean; apaizeria lehenen uneko nahasmenduan nahiko galdurik aurkitu zen, eta Gotzaineria —legeria honen

eta radikalismoarenak: NICOLET, C.: aip. lib., 42-45. Bert libre-pentsatzailea, esate baterako, apartaketaren aurka zegoen (LATREILLE, A.: aip. lib., 454). Combes-ek berak ere, pentsamoldez galikanoa izanik, nahiago zuen menpekotasuna. Ikus BOUJU, DUBOIS: aip. lib., 66. EHLER, S. Z. aip. lib., 127.

(216) *Marc Sangnier* (1873-1950) izanen da Frantzian intelektual zuzperraldi katolikoaren (1900-1914) eragileetako bat. Harmadan sartua, laister uzten du (1898), kristau apostoluzari ekiteko. Lehendik eraikia zen *Le Sillon* aldizkarian idatzi-ko du; *L'Éveil démocratique*-n ere bai. Errepublika eta katolikoak elkarganatu egin nahi zituen Sangnier-ek; herri xumearen hezibideak zabaldu... Pio X-ak *Le Sillon* kondenatu zuenean (fededun eta fedegabeak elkar-lanean jarri nahi zitu-ela), *La Démocratie* egunkaria eta *La Jeune République* elkarteak sortu zituen (1912). Bi Gudateen Artekoan, frantses eta alemanen arteko bilkurak eratzen saiatzen da. 1930-ean *Ligue Française des Auberges de la Jeunesse* delakoa eraiki-tzen du. 1936-an *Front Populaire*-ri *La Jeune République*-ren atxikimendua eskaini zion. 1945-ean M. R. P.-aren ohorezko lehendakari izendatzen dute Sangnier, honela Frantziako kris-tau demokraziaren gurasotzat aitortuz.

aurka zegoen— Legearen istudio bat egiten entseatu zen, Aita Sainduari lehenbaitlehen behar zuen jakinbide bat eskaintzeko. Pio X-ak, isilaldi baten ondoren, 1906-ko otsailaren 11-n hitzegin zuen, apartaketaren printzipioa zapuztuaz (oinarrietarako betiko «tesia» gordetzen da). *Vehementer* Enziklikan agertu zen kondenamendua. Eta zer egin behar zuten katolikoek *associations cultuelles* haiekin, onartu ala gaitzetsi? Maiatzean bozketara deitua izanen da Frantzia, eta apezpikuek nahiago dute itxaron, inolako iritzirik eman aurretik.

Zoritxarrez, hilabeteok ez dute zerua ozkarbituko. Herrialde, herriska, eta hauzoetan, Estaduak (Ribot-ek idarokita) eliz-ondasunak imitioriatu egin nahi ditu. Zenbait tokitan (eta Euskal Herrian), herri xumea suminduta asaldatzen zaie imitiorioak egitera datozen harmagizonei; bi aldeek (Elizak eta Estaduak) egiten dituzte eginahalak Legearen aplikapena gogorragotu z dadin. Maiatzeko bozketak ezkerria indartu besterik ez du egin; eskuindarrak berriz ere zokoratuak aurkitzen dira Deputatuen Ganbaran (217).

Vehementer-ek teorikoki katolikoek pentsamendua argitu duen gisara, Aita Sainduaren beste dokumendu batek erabakiko du Frantziako Elizaren jokabide praktikoa: 1906-ko abuztuaren 10-ean Pio X-ak *Gravissimo* Enziklikan legearekiko edozein konponketa baztertu egiten du. Legeak sortu nahi izan dituen *associations cultue-*

(217) Eskuindarrek 179 deputatu dituzten bitartean, ezkerrek 317 ditu, radikal, radikal-sozialista eta sozialisten artean.

lles delakoak ez ditu Elizak berak eratuko. Briand dabil orain tarteko arazo honetan, eta nahi luke konponketa bat (Frantziako apezpikuek bezalatsu), baina, ministroak erakunde-elkarte berriok sortzeko urtebete luzatu arren, Erromak ezezkoa ematen du berriz ere. Ondorengo urteetan Briand-ek bakezkoak egin nahirik segiko du, eta ez beti Erromaren oniritziarekin (218). Hala ere Briand ministroaren Lege-aplikapena, lehenen uneko zauria gozaten ari da. Estaduko Kontseilua, ministroaren aholkuei jarraituaz, erabakiak hierarkiaren alde hartzen saiatzen bait da. 1914-era arte beroaldi eta liskarrak izango dira oraindik, baina Briand-ek etengabe bultzatuko du bere bake-politika.

5.54. *Euskal Herrian*

Euskal Herria da urte hauetako Lege eta erabakiekin sutuena dabilenetako bat; Britainia da beste bat (219). Gudaketa honetan zuzenean hartzen du parte euskal herriak, bai fraidetegiak de-

(218) *Loi du 2 janvier 1907* (eliz-etxeak apaizei administrazio bidez uzteko erabakia hartuaz). *Loi du 23 mars 1907* (bilkura-baimen beharra zuzenduaz). *Loi du 13 avril 1908* (zenbait ondasun *Mutualités ecclésiastiques* direlakoentzat utzia). Agian Aita Sainduak ez zuen sobera konprenitu Briand-en politikaren asmoa; baina, bestalde, politikoko sozialistak baino urrunago eta sakonagotik ikusi zuen Pio X-ak Frantziako Elizaren etorkizuna. Jakingarria da Briand-en beraren iritzia: ROPS, D.: aip. lib., 243-244.

(219) DANSETTE, A.: aip. lib., 615: "...dans le pays basque, ils enchainent des ours à l'entrée des (églises)". Ikus HIRIART-URRUTY, J.: "Fuera... Bibal" artikulua, hemen aurrerago.

fendatzeko, bai imitorioak egin ez daitezzen. Herria Elizarekin dago kinka gaizto horretan.

Legeak hiru Kongregazione-mota ezagutzen zituen: irakasleena (*enseignantes*), predikariena (*predicantes*) eta merkatariena (*commerçantes*) (220). Euskal lurretan baditugu irakasleak eta predikariak. 1903-an baimena ukatu zitzaizenetatik zenbaitek etxea zuen gure eskualdean: Bétharramitek Baionan, Lamennais-ren Anaiek, Donibane-Garazin, Bastidan, Ziburun, Biarritzen, Larresoron; Marianistek, Donibane-Lohitzunen. Horiek denak *irakasleenak* genituen. *Predikariatik*, berriz, ondorengo hauk: Biarritzen dominotarrak, Donapaleun frantziskotarrak, Beloken beneditarrak, Baionan kaputxinoak.

Serora, moja-etxeak ugariagoak genituen oraindik: Gurutzearen Alabek (*Filles de la Croix*) 31 etxe zeduzkaten Euskal Herrian eta Mariaren serbitzariak 19; eta lau etxe gehiago ere baziren. 1903-ko abuztuan hertsu ziren mojen ikasketxeak. Geroxeago, 1905-ean, Kongregazione baimendunek ere utzi egin beharko dute irakaskintza, esate baterako Kanboko Kristau Eskoletako Anaiek (221).

Hiriart-Urrutyk ziririk zorrotzenak botako dizkio, bere *Eskualdunan*, komentuak herstekoa erabakiari. Errepublikazaleek ez dute komenturik nahi Frantzian, baina misio lurraldeetarako onak dira fraideak, onak mojak ere. Horrek berotzen du euskal kazetaria:

(220) Kongregazione *merkatarietatik* bat kartujoena zen...

(221) Ikus dato hauk MOREAU-gan: aip. lib., 556-559.

...komentu guziak hertsu behar dituztela mintzo diren gizonen otoizka galdatzen dituztela fraideak eta serorak hor-harat igortzeko. Hangotzat on badire, zertako ez hemengotzat? Eta hemen holako langile on, eri artatzaile, haur altxatzaile hoioren ororen erroek mozten badire; agortzen badire iturriak, non atzeman urrungo lurretarat igortzeko baitezpada behar eta nahi dituzten fraideak eta serorak?

Hori zen hastean erran nahi nizuena: *biba* eta *fuera*, biak elgarrekin, ez doazila ongi; kolpeka ari direla. Egiazki gure gizonen iduri dute zenbeit aldiz, ez dakitela zer ari diren ere (222).

Herriaren sumindura gorabehera, komentuak hertsu ziren eta fraide askok herbesterako bidea hartu zuen. Euskal Herri batetik bestera pasa zen fraidetegi eta mojaetxe zenbait. 1880-an bezalako *joan-etorria* egiteko erraztasunik ez zen oraingoan aurkituko, eta ipar Euskal Herritik etorri zitzaizkigun erlijiosoak hego Euskal Herrian finkatuko ziren behinbetirako. Honela *herbestera* bidea ez zen hain herbestekoa gertatuko. Belokek Lazkano sortu du, eta honelatsu beste hainbat etxek ere (223).

Baina komentu eta ikastetxeak desagitea baino nekezagoa gertatuko zen oraingoan, Eliza-Estadien apartaketaren ondotik etorri ziren elizondasunen bahiturak, Estadiaren eskutan gelditu behar bait zuten denak. Horretarako imitazioak ere egin beharra zegoen, eta inbentario hauen atzetik mehatxuek populua asaldatu egin

(222) HIRIART-URRUTY, J.: "Fuera... Bibal" kap.

(223) DARRICAU, I.: aip. lib., 57 eta ondorengoak.

zuten zenbait herriska eta hauzotan. Benetako kontzientzi problemak sortuaz, batzutan (224).

Herri xumea elizen inguruan nahiz barnean biltzen da, imitorio-egileak soldadu eta guzi etortzerako. Herriarentzat, eta kazetariarentzat, jendarmak *ohoinak*, lapurrak, dira. Imitorioa atxakia bat da, alde aurretik elizetako gauzez jabe daitezten. Harritzekoa da Hiriart-Urrutyk egun haietan zuen ausardia! Herriek matxinada giroa dute; Urruinan, Bidarrain eta bestetan, jendea prest da, behar balitz, harmak hartzeko. 1906-ko *Eskualduna* asarre da jendarmekin, agindariekin, soldaduekin, Legearekin...

Ohoinen eskuetan gira; ohoinak ditugu nausi Frantzian. Badagozi hogoi-ta bortz ohoin preso, gure jaun deputatu, zenator eta ministroek baino ohointza gutiago eginik.

Ebats komentuak; ebats girstino eskoletxeak, ebats orai azkenik apazgaien altxatzeko zer nahi gostarik egin Semenarioak. Oro ebats berehala: semenario handiak ala ttipiak oro.

Ebats herrietan elizarenak ziren apez-etxeak; ebats arimentzat utzi meza sariak (225).

Larresoroko Seminarioan 1906-otsaila-8an egin zen imitorioa, egunen batetan dena Gobernuaren eskutara joan zedin, eta ikusbegiratzailea orduko zen jendea han. Ez zen imitioriatu deus, eta egun guti barne 50 jendarma datoz eginbeharrak

(224) HIRIART-URRUTY, J.: "*Bravo, mon capitaine!*" artikuluan, 1906-apirila-6.

(225) HIRIART-URRUTY, J.: "Ohoiak" art., 1906-abendu-14.

egitera (226). Imitorioen ondotik, hurrengo hila-beteetan, eliz-ondasunen bahiturak datoz: abenduan Baionako Seminario handia, eta Larresoroko apaizgaiak Belokera jo zuten, monastegia hutsik bait zen ordurako. Apezpikua ere hestu, baina Mgr Gieure, gotzain berria, *le Colonel* deitua zen, eta egin zion herriari egunean eguneko predikua:

Ostiralean – esaten zuen abenduaren 16-an – utziko dut gotzain-etxea; ez dakit norantz joko dudan, baina jakin dadin esaten dut: edozeren aurretik eta nornahiren aintzinetik ttipien eta apalen apezpikua naiz (227).

Azken irten-unean oraindik mintzaldi suhar bat egiten du Katedralean. Eliza jendez leporaino betea da, adi-adi apezpikuak zer esango. Mintzaldia egin zuen, baina agintariek, beste zenbait apaizekin, tribunaletara eraman ere bai, kondanatua izan zedin. Baionako Elizbarrutia borrokaldi hauetan aintzindarietako gertatuko da. 1909-an ikas-liburuen arazoa sortzean (apezpikuek gaitzetsi egin bait zituzten hamalau liburu), zenbait tokitan euskal haurrek utzi egingo dituzte honelako liburuak daduzkaten ikastolak; baina agian urrutixko joan dira euskal apaizak, eta Erromatik liskar-bidea baztertzeko aholkua helitzean, amaituko da ikas-liburuen borroka.

Giro honetan, ez zen erosoia politika ekintza

(226) Ikus aurrerago xehetasun guzietan honen berri: "Imitorioa", 1906-otsaila-23.

(227) MOREAU, R.: aip. lib., 562.

eta Euskal Herrian gutiago. *Ralliement* hura azken urteetako politika-jasapean itoa edo da. Seminario handian ere giroa arrotzen doa, eta Leon XIII-aren hildoko gizonak ez dute barne atsegirik ikastetxean. Garaiko sargoriak ez ditu buruak argitzen.

1905-ean bozaldia dugu Baiona II-ean, eta Guichenné, *rallié* bat, irtetzen da garaile, Saint-Martin Harriague zenaren aulkirako. 1906-ko bozaldietan hiru euskal boz-eskualdeetan 24.166 boz eramaten dituzte eskuin joerako kandidatu-
rek, eta 6.888 bakarrik ezkerrekoek. Ez da monarkizalerik, baina errepublikazaleen artean deputatugai eskuindarrenak irabazten dute. Zube-roak eta Maule aldeak bereziki *Bloc*-aren kontra ematen dute beren iritzia. Bozaldi hauek gerora ere irmoagotzen doan joera bat agertzen dute, eta hain zuzen beste departamenduetan agertuko denaren kontrara. 1910-eko bozaldietan, berriro ere, erlijio-politikak mugatzen ditu alderdi politiko eta deputatugaiak. Egunurte horretarako, erabakia da Frantziaren errepublikatasuna, ez dago errejimen eztabaidarik. Baiona I-an eskuina sakabanaturik doa bozketara, eta 7.121 bozekin Garat radikalak eramango du hauteskundera, honela urte askotarako irristatzen da ezkerreko boz-eskualde hau. Baiona II-ean, lapurtar herrisken borondatez, berriz ere Guichenné izango da aukeratua. Maulen ere berdintsu gertatzen da: Pradet-Balladek ikasi du, Barthou-ren adiskide izanarren, Ganbarako bozketetan eskubide politiko-
koen alde mintzatzen, eta bere politika-bide ho-

rri esker berriz ere hautatu egiten dute Zube-roan.

Honela erantzun zieten bozaldietan euskaldun-ek 1901-1910etako erlijio-politikari. Hiriart-Urru-tyk emango digu komentario jakingarririk ordu-ko Euskal Herriaren giroa bere ikusbide jakin batetik ezagun dezagun.

BIBLIOGRAFIA

Ondorengo liburu zerrenda hau bide zuzengarriztat ematen da. Oinarrizko zenbait liburu, edo liburutegietan errazki aurki daitezkeen batzu.

- ARTECHE, J. DE: **Lavigerie (El Cardenal de Africa)**. Zarautz, 1962. 231-35.
- AUBERT, R.: **Le Pontificat de Pie IX**. Ikus FLICHE et MARTIN-en **Histoire de l'Eglise**. 21. liburukia. Paris, 1953.
- BONNEFOUS, G.: **Histoire politique de la IIIe République**. Paris, 1956-57.
- BOUJU, P.-M.; DUBOIS, H.: **La IIIe République (1870-1940)**. Paris, 1963.
- BRUNOT, P.: **La droite traditionaliste dans les Basses-Pyrénées de 1900 à 1950**. Polikopiatua. Bordele, 1969.
- CAPERAN, L.: **L'anticlericalisme et l'Affaire Dreyfus**. Tolosa, 1948.
- CAPERAN, L.: **De l'avenement de Combes à la Séparation**. Paris, 1957.
- CUZACO, R.: **Les Elections Législatives à Bayonne et au Pays-Basque**. Baiona, 1948-51. Bi liburuki. Ba du historiagile berak beste zenbait ere.
- CHARRITTON, P.: **Petite histoire religieuse du Pays Basque**. Baiona, 1946.
- DANSETTE, A.: **Histoire religieuse de la France contemporaine**. Paris, 1965.
- DANSETTE, A.: **Les affaires de Panama**. Paris, 1934.
- DARBON, M.: **Le conflit entre la droite et la gauche dans le catholicisme français**. Paris, 1953.

- DUBARAT: **Les évêques de Bayonne de 1802 à 1887.** Baiona.
- GRIMAUD, L.: **Histoire de la liberté d'enseignement de France.** 1947-54.
- GUILLEMIN, H.: **Histoire des catholiques français au XIXe siècle.** 1947.
- HIRIART-URRUTY, J.: **Mintzaira, aurpegia: Gizon!** Arantzazu, 1972.
- JAUFFRET, Mgr: **Lettre pastorale de 1899.** Baiona, 1899.
- KAYSER, J.: **Les grandes batailles du radicalisme: des origines aux portes du pouvoir, 1820-1901.** Paris, 1962.
- LATREILLE, A.: **Histoire du Catholicisme en France. t. III: La période contemporaine.** Paris, 1962.
- LATREILLE, A.; SIEGFRIED, A.: **Les forces religieuses de la vie politique.** Paris, 1951.
- LEFEBVRE, POUTHAS, BAUMONT: **Histoire de la France pour tous les Français. II: De 1744 à nos jours.** Paris, 1950.
- LECANUET, E.: **L'Eglise de France sous la IIIe République. t. II-III.** 1930-31.
- LEON, A.: **Histoire de l'enseignement en France.** Paris, 1967.
- LEPOINTE, G.: **L'Eglise et l'Etat en France.** Paris, 1964.
- MADULE, J.: **Histoire de France. II: De 1715 à nos jours.** Paris, 1945.
- MEGRINE, B.: **La question scolaire en France.** Paris, 1963.
- MEJAN, L.: **La séparation des Eglises et de l'Etat.** Paris, 1959.
- MICHEU-PUYOU, J.: **Histoire électorale du département des Basses-Pyrénées sous la IIIe et la IVe République.** Paris, 1965.
- MOREAU, R.: **Histoire de l'âme basque.** Bordele, 1970.
- PUY DE CLINCHAMPS, Ph. Du: **Le royalisme.** Paris, 1967.
- WEILL, G.: **Histoire de l'idée laïque en France au XIXe siècle.** Paris, 1925.